

 Irelore kluba: 20 urte golfa herriratzen

 Ane Irazabal kazetariari elkarrizketa

## KORONABIRUSA

# Osasun sistemaren "azkenak"

Osakidetzako Debagoieneko Lehen Mailako Arretako langileek diote "une zailak" bizi izan dituztela pandemiaren seigarren "tsunamian" / 2



**"Lan zama ikaragarria izan da, eta baita horri aurre egiteko egin dugun ahalegina ere"**

**Idoia Sanchez**  
Arrasateko ambulatorioko erizaina



**"Langileen osasun mentala eta ongizatea ez dira inondik inora kontuan hartu"**

**Aitor Montes**  
Aramaioko ambulatorioko medikua



**"Ez geunden halako olatuari aurre egiteko prest; ezin izan ditugu herritarrak ondo artatu"**

**Argiñe Ibarburen**  
Aretxabaletako ambulatorioko medikua

UXUE IGARZA LOIOLA

## Aritz Ganboa artzainak ireki du Arabako txotx denboraldia

Aramaioko Iturrieta sagardotegian egin zuten atzo irekiera ekitaldia; sagardo berriak, "zapore bikaina" / 6



## Tourra Debagoienetik igaroko da 2023ko uztailaren 2an, Gasteiz-Donostia bigarren etapan / 39

### SINADURAK

	ITSASO ERRETOLATZA / 10
	JOXEMARI MUXIKA ARRIETA / 8
	MIKEL BIAIS / 48

# Anbulatorioetako arreta, pandemiaren beharrei erantzutera bideratuta

Pandemiako seigarren olatuak bete-betean jo du Lehen Mailako Arretaren kontra. Profesionalek behin baino gehiagotan salatu dute ambulatorioetako lan zama, eta adierazi dute osasun sistemaren lehentasunetan "azkenak" izan direla

**Uxue Igarza Loiola** DEBAGOIENA

Koronabirus positiboak marka guztiak haustera iritsi ziren abendu bukaeran, eta horren kudeaketaren pisu handia Lehen Mailako Arretak jasan behar izan du. Proba diagnostikoak egiteaz gain, positiboen jarraipena egitea ere tokatu zaie Debagoieneko ambulatorioetako osasun profesionali, eta zenbat eta kasu gehiago, orduan eta denbora gehiago eskaini behar izan diote gaixo-agiriak bete edota telefono deiak egiteari. Azaldu dutenez, pandemiak familia medikuen kontsultetako "ohiko lanak" ordezkatu ditu.

Idoia Sanchez erizainak eta Argiñe Ibarguren eta Aitor Montes medikuak bat datoz: abendua "oso hilabete gogorra" izan da. Profesionalak azaroan jabetu ziren seigarren olatuaren indarrak, baina abenduko zubiaren ostean hasi zen beraien egoera "okertzen". Azaldu dutenez, transmisio komunitarioak "inoiz baino proba diagnostiko gehiago" egitera behartu ditu, eta, ondoren, horien jarraipena egitera. Opor eta jai egunetan ere lanera joan behar izan direla azaldu dute.

Ido horretatik, Aretxabaletan lan egiten duen Argiñe Ibarguren medikuak adierazi du "ez zeudela prest" halako olatuari aurre egiteko: "Ezin izan ditugu herritarrek behar bezala artatu, eta, agian, sentsazio txarra izango dute; baina baita guk ere". Arrasateko ambulatorioko Sanchezek, berriz, olatua baino gehiago "tsunamia" izan dela azpimarratu du, eta "une zailak" bizi izan dituztela: "Lan zama ikaragarria izan da, eta baita horri aurre egiteko egin dugun ahalegina ere". Aurreko hirurekin bat eginda, Aramaio

mediku Aitor Montesez azaldu du aztarnari eta administrari lanak egiten igaro izan duela bere jardunaren erdia baino gehiago: "Lan eta lan ari gara, baina ez dugu lanik egiten; hobe esanda, ez dugu guri dagokigun lana egiten. Horren adibide da ia ez dugula odol analisi normalik edota gaixotasun kronikoen jarraipenik egin".

Olatuaren gorengo puntuan, egunero 30 herritarretik gora artatzera iritsi da Montes Aramaion, eta hori "salbuespena" dela azpimarratu du. Oñatin, bestalde, 300 probatik gora egin izan dituzte egun bakoitzean. Orain, baina, protokolo berria indarrean sartu denetik, egoerak "lasaitzera" egin duela adierazi dute ambulatorioetako langileek.

## Protokolo berriak, arnasa

Urtarrilaren 7an jarri zen indarrean protokolo berria. Funtsean, Osasun Sailak COVID-19 kasuak kudeatzeko modua aldatu du, "talde zurgarrietako herritarren arreta hobetzeko" eta "Lehen Mailako Arretako zein arakatazaille zerbitzuen karga arintzeko". Labur esanda, orain, 70 urtetik gorakoek, txertatu gabeei,

## MILIOI BAT DEI JASO DITUZTE BI ASTEAN EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ANBULATORIOETAN

## LAN KARGAZ GAIN, "BERAIEKIKO BAZTERKERIA" SALATU DUTE LEHEN MAILAKO ARRETA KOEK

haurdu daudenei, immunoeskasia dutenei, gaixotasun kronikoak dituztenei eta sintoma larriak dituztenei egiten zaie jarraipena eta proba, aldiz, laneko baja behar dutenei. Hitzorduek ere aplikazioaren bitartez eska daitezke, eta horrek telefono dei gutxiago egin behar izatea ekartzen duela azaldu dute langileek.

Osasun Sailak emandako datuen arabera, azken hemezortzi egunetan, aldi baterako ezintasunerako 85.000 eskabide baino gehiago egin dira internet bidez, EAEn; baina, oraindik ere, bi astetan, milioi bat dei inguru jaso dituzte ambulatorioetan. Hala, dei horie erantzuteko, telefono-bideak "sendotu" dituztela jakinarazi du Osasun Sailak eta, bestetik, Lehen Mailako Arretan laguntzeko administrazio-eremuk 140 langile kontratatu dituztela ere bai.

Anbulatorioetan aste honetan bertan igarri dute lan karga "arindu" egin dela. "Arnasa hartzen hasi gara eta duela bi aste baino hobeto gaude", onartu du Argiñe Ibarguren, baina oraindik "kolapso egoeran" jarraitzen dutela dio. Montesez ere protokolo berriarekin proba gutxiago egiten direla esan du: aste batetik bestera, Aramaion hamarretik gora egitetik, hiru edo lau egitera igaro da. Baina, zama arindu bada ere, oraindik koronabirusari lotutako "lan asko" egin behar direla azaldu du medikuak: "Bajen edo lanerako ezintasunen kudeaketa gure gain dago eta horrek ere denbora asko eskatzen digu. Bestetik, egia da jendea aplikazioa erabiltzen saiatzen dela, baina mol datzen ez direnak ere badaude, eta hortaz, guk egin behar dugun zati handi bat. Eta badaude bes-

te batzuk tramiteak azkarrago egiteko zuzenean osasun zentrorra deitzen dutenak".

## Sistemaren azken katebegia

Lehen Mailako Arretako langileek lan kargaz gain, "beraieki-ko egon den bazterkeria" salatu dute pandemian zehar. "Profesional moduan, Lehen Mailako Arretan dagoen sentsazioa da osasun sistema osoan azkenak izan gara", esan du Ibarguren. Bere iritziz, ZIUan eta Larrialdietako Unitateetan jarri dira "begirada guztiak". Sanchezek eta Montesez ere irudipen bera dute. Montesez horren adibidetzat jarri du protokolo berriekin gertatu izan dena: "Egun batetik bestera aldatzen ziren jarraibideak, eta sarri, kazetariak gu baino lehenago izaten zuten horien berri. Errespetu falta itzela da hori". Ibarguren bide horretatik jarraitu du: "Lehen Mailako Arreta izan da sistema osoa bere gain hartu duena, eta hala ere, askotan, baztertuak sentitu gara. Protokoloak guri baino lehen helarazi zaizkie herritarrei eta ez dugu ordezkapenik izan".

Horrez gain, Aitor Montesez gehitu du "presio handia" jasan dutela ambulatorioetako osasun langileek eta Osakidetzako Zuzendaritzaren jarrera ez dela "egokia" izan: "Langileen osasun mentala eta ongizatea ez dira inondik inora kontuan hartu. Pandemia hasi zenean ere ez genuen babeserako materialik izan. Maskararik ez zegoenean, gogoratzen dut herritarrek ekarri zizkigutela batzuk; obraren baten ostean soberan geratu zirenak edo...".

Herritarrengandik jaso dutenaz galdetuta, Idoia Sanchezek adierazi du aurreko olatuetan "enpatia handiagoa" sumatu duela erabiltzaileen partetik: "Ez dut uste jendea edukazio txarrekoa bihurtu denik, baina egia da olatu honek denok gainditu gaituela. Bakoitzak bere modura kudeatzen du egoera hau, baina iruditzen zait, funtsean, ez dakigula laguntza eskatzen, eta hor dagoela koska".

Bailarako profesionalak ohiko jardunera itzultzeko "gogoz" daudela azaldu dute, debagoien dar guztiak "behar bezala" artatu ahal izateko.

## ARIZMENDI, KOOP. E.AREN BATZAR NAGUSIRAKO DEIALDIA

Arizmendi Kooperatiba Elkartearen Estatutu Sozialerako 30. artikulua dioenari jarraituz, Kontseilu Errektoreak 2021eko azaroaren 25ean egindako bilan adostu du Arizmendi Kooperatiba Elkartearen bazkideak Ohiko Batzar Nagusi honetara deitzea, kooperatibaren interesetarako onuragarria delakoan.

**EGUNA:** 2022ko otsailaren 3a.

**LEKUA:** Arimazubiko aretoa.

**ORDUA:** Lehen deialdia: 17:30ean. Bigarren deialdia: 18:00etan.

## GAI-ZERRENDA


1. Aurreko Batzar Nagusiaren aktaren onespenez txostenaren irakurtzea. Aktaren onespenerako bi bazkide izendatzea.
2. 2020-2021 ekitaldiko zuzendaritza-txostena aurkeztea, eta, hala balegokio, onartzea.
3. 2020-2021 ekitaldiko sozietate-kudeaketa eta Urteko Kontuak (Balantzea, Galera eta Irabazien Kontua, Ondare Garbiaren Aldaketen egoera-erria, Diru Fluxuan egoera-erria eta Txostena), baita Kudeaketa-Txostena ere, aztertzea, eta, hala balegokio, onartzea.
4. 2020-2021 ekitaldiko emaitzak banatzea.
5. 2021-2022 ekitaldirako helburu nagusiak eta aurrekontu ekonomikoa aurkeztea.
6. Kontseilu Soziala berriztatzea
7. Kontseilu Errektorearen berriztatzea
8. Kontu ikuskatzaileak izendatzea 2021-2022, 2022-2023 eta 2023-2024 ekitaldietarako.
9. Kontseilu Errektorea ahalduntzea Batzar Nagusian hartutako erabakiak egikaritzeko.
10. Galde-erantzunak

Oharra: bazkideen eskura egongo dira aztergalekin zerikusia duten dokumentuak, bai egoitza sozialean bai Alexian.

**arizmendi**  
ikastola

Goretti Maturana Esquibel  
Kontseilu Errektoreko Lehendakaria  
Arrasate, 2021/11/25

Otalora lizentziaduna, 8 20500 Arrasate.  
Telefonoa 943 772025 Faxa 943 797922 www.arizmendi.eus



## "Seigarren olatu honetan, lanera joateko gogoa joan zait; hori ez zait sekula gertatu"

IDOIA SANCHEZ ERIZAINA

Idoia Sanchez aretxabaletarra da, baina Arrasateko anbulatorioan egiten du lan. Pandemiak gogor astindu du bere bizitza pertsonal nahiz profesionala; batez ere, abenduko azken asteetan

### Arlo pertsonalean zer izan da zuretzat gogorrena?

Azken olatu honetan lanera joateko gogoa joan zait, eta hori berria izan da niretzat. Ez zait sekula pasatu. Nire lana asko gustatzen zait, gogoko dut erizaina izatea; are gehiago, Lehen Mailako Arretako erizaina izatea gustatzen zait. Baina aurreko hilabetean egoerak gaintitu egin ninduen eta ez nuen lanera joan nahi. Ikaragarria izan zen. Bestetik, pandemia honek lehendik zetozen hainbat zapalkuntza gehiago indartu ditu; nire kasuan, erizaina izatea, emakumea izatea eta gaztea izatea. Pandemiaren erdigunean



UXUE IGARZA LOIOLA

egon naiz, eta oraindik jendarteak uste du emakume gazte batek ez duela bere lankideek besteko autoritaterik. Hori ere gogorra izan da.

### Eta nolako izan da Lehen Mailako Arretan jardutea pandemiari aurre egiterakoan?

Hedabideetan eta herritarren ahotan Zaintza Intentsiboetako Unitateak edo COVID unitateak egon dira nagusiki. Egia da, baina, azken bi olatuetan guk ere aintzatespena lortu dugula. Jendeak hausnarketa egin du: "Anbulatorioetako langileak zergatik ez dira iristen niri deitzera?". Profesional guztiok egin dugu lan asko, eta inor ez da atzean geratu; uste dut aitortza bera merezi dugula. Lehen Arretako langileon eta herritarren eskubideak aldarrikatzeko egin diren mobilizazioetara herritar asko joan dira, eta horrek ere asko esaten du.

## "Azken hilabeteetako kolapso egoerak ez digu utzi gauzak beste modu batera egiten"

ARGIÑE IBARGUREN MEDIKUA



UXUE IGARZA LOIOLA

Bergerakoa da Argiñe Ibarburen, eta medikua da Aretxabaletako osasun etxean. Aste honetan egoerak baretzera egin duela azaldu du eta ohiko pazienteak hasi direla kontsultara itzultzen.

### Zein da herrietan lan egitearen bereizgarria?

Lehen Mailako Arretan, pazienteak ezagutu egiten ditugu; badakigu zeintzuk dauden izen-abizenen atzean, eta hori da gure altxorra. Baina egia da horrek tokatzen zaiguna baino inplikazio handiagoarekin jokatzeko ekartzen digula askotan. Pandemian, horri esker egin dugu aurrera: gure esfortzuagatik jarraitu du osasun sistema honek martxan.

### Osasun etxera joaten diren herritarrek zer diote?

Egunero jasotzen dugun kexa da kontsultak telefonoz egiten direla, eta, aldi berean, ia ezinezkoa dela

anbulatorioetako langileek telefonoa hartzea. Eta egia da; hori da egoera. Telefonoz informazio asko galtzen da, eta guri ere inpotentzia handia sortzen digu jarduteko modu horrek. Ahotsa bakarrik entzunda, pertsona ezagutu gabe, zein aurpegi duen jakin gabe, ikusi gabe, zaila da behar den moduan artatzea. Herritarrak nekaturik daude egoera honekin, eta gu ere bai. Askotan joaten naiz etxera pazienteengatik arduratuta. Dena den, uste dut hilabete hauetan herritarrek jakin dutela profesionalok egin dugun lanari balioa ematen. Akatsak egin ditugu, jakina, baina uste dut jendeak badakiela ahal dugun guztia egin dugula. Indarrean egon diren protokoloetara eta egoerara ahalik eta ondoen egokitzen ahalegindu gara. Baina kolapso egoerak ez digu utzi beste modu batera jarduten.

## "Gurasoak osasun langileak izanda, ia ezinezkoa izan da kontziliazioa urtebetean"

AITOR MONTES MEDIKUA

Aitor Montes bizkaitarra Aramaioko osasun etxeko medikua da. Pandemian, administrari eta arakatzailerik lanak egin dituela azaldu du, eta horren eraginez, "alboratuta" geratu dela mediku baten ohiko jarduna.

### Hilabete hauetan erreparatu zaio medikuen eta erizainen alderdi pertsonalari?

Osasun langileak pertsonak gara; ez gara itzaltzen botoi bati emanda. Gurasoak ditugu eta baita seme-alabak ere. Azken hilabeteetan guraso asko ikusi ditut arduratuta umeak etxean utzi eta lanera joan behar zutelako —beraiek txertatuta zeudelako—. Guk hasiera-hasieratik bizi izan dugu hori. Nire kasuan, sei asteko itxialdian ere bakar-bakarrik egon ziren bi semeak. Ama ere medikua dute, eta ia hilabete batez ez zuten ikusi.

Urtebetean ia ezinezkoa izan da kontziliazioa kasu batzuetan. Guztiz isolatuta, bakarrik egon dira haurrak.

### Hori izan da gogorrena zuretzat?

Bai, eta, horrez gain, ikusi dut nire ama ere guztiz abandonatuta egon dela. Ez du arreta medikorik izan, prozesu kroniko batek bere osasuna hondatzen zuen bitartean. Erreklamazioak egin ditugu, etengabe atzeratu den ebakuntza noiz egingo ote zioten galdetzeko. Adinekoen eta txikien osasuna hondatzen ikusi dugu, maite ditugun pertsonena, eta ez dut inolako elkartasunik sumatu ez gizartearen eta ezta Osakidetzaaren partetik ere. Olerki bat etortzen zait burura gertatutako guztia oroitzen dudanean: *Goizeko esne beltza arratsaldean edaten dugu, eta arratsaldeko esne beltza gauze edaten dugu.*



UXUE IGARZA LOIOLA

**Uxue Igarza Loiola** DEBAGOIENA

2021eko uztailean erregistratutako datuaren arabera, 64.007 biztanle ditu Debagoienak; 2020ko uztailean baino 323 gutxiago. Halere, beherazko joera hori azken urteko kontua izan da; izan ere, hamar urte atzera eginez gero, eskualdeak 63.411 biztanle zituen –egun baino ia 600 gutxiago–. Hala, esan daitezke 2011tik iaz arte gora egiten jardun duela zenbatekoak.

Pandemiak berak eragina izan dezake demografiaren beherazko bilakaera horretan; nolahi ere, ez dago momentuz, azken horren lotura berresten duen datu edo baieztapen ofizialik. Pentsatzekoa da koronabirusak eragindako heriotzek eta bestelako ondorioek –migrazioa gutxitzea, langabeziak eragindako fluxu mugimenduak, herri txikiarako lekualdaketa...– datuan eragin dutela, baina ertz gehiagori erreparatzea komeni dela diote estatistiketan adituak direnek; esaterako, jaiotza-tasari. Bailarako bi datu ematearren, Elgetan lau haur jaio ziren 2021ean, eta bederatzi pertsona hil; hortaz, hazkunde negatiboa

# Gipuzkoako eta bailarako biztanleria jaitsi egin da

2020tik 2021era Debagoieneko biztanleriak behera egin zuen –guztira, 323 herritar gutxiago zenbatu ziren–; halere, herri guztietako joera ez da bera izan: Aramaion, Aretxabaletan, Elgetan eta Eskoriatzan gora egin zuen populazioak

## Debagoieneko demografia datuak

	2021	2020	2011	2001
Antzuola	2.081	2.102	2.187	1.900
Aramaio	1.456	1.442	1.496	1.447
Aretxabaleta	7.108	7.103	6.725	6.156
Arrasate	21.867	22.073	21.972	23.367
Bergara	14.584	14.659	14.577	15.046
Elgeta	1.141	1.131	1.106	973
Eskoriatza	4.131	4.106	4.043	3.938
Leintz Gatzaga	211	217	272	254
Oñati	11.428	11.497	11.033	10.757
<b>Debagoiena</b>	<b>64.007</b>	<b>64.330</b>	<b>63.411</b>	<b>63.838</b>

ITURRIA: INE

izan da. Gauza bera gertatu da Eskoriatzan ere: 21 izan ziren erregistratutako jaiotzak eta 37, aldiz, heriotzak.

Gipuzkoari dagokionez, Eustat Euskal Estatistika Erakundearen eta INE estatu mailako zentroaren arabera, lurraldeak 2020an izan zuen azken hamar urteetako biztanle kopuru handiena (716.897), baina, era berean, azken urteetako heriotza kopuru handiena ere urte hartan erregistratu zen (7.738). 2021ean, 3.000 biztanle gutxiago zituen, eta lehen hiruhilekoan behera egin zuten heriotzek ere. Gipuzkoako datu ofizialik ez dagoen arren, Euskal Auto-

nomia Erkidegoan %10,8 jaitsi ziren heriotzak iazko lehenengo hiru hilabeteetan.

**Herrietan, gorabeherak**

Bailarara bueltatuta, zenbateko orokorrak dio 2021ean 2020an baino 323 herritar gutxiago bizi zirela Debagoienean. Herriz herri aztertuta, baina, joera hori ez da leku guztietan errepikatu. Arrasaten, Bergaran, Oñatin, Antzuolan eta Leintz Gatzagan behera egin du populazioak lehenengo pandemia urtean; Eskoriatzan, Aramaion, Elgetan eta Aretxabaletan, aldiz, gora.


Azken hamarkadan ere demografiak bilakaera desberdina izan du bederatzi herrietan. Adibidez, Aramaio, Antzuolak eta Arrasatek 2015ean izan zuten biztanleria-datu handiena; Leintz Gatzagak, 2011n; Bergarak, 2014an; Aretxabaletak, 2019an; Oñatik, 2020an; eta Elgetak eta Eskoriatzak, iaz.

Eta beste hamar urte atzera eginda, 2001ean, Arrasaten ikus daiteke aldaketa handiena: 23.367 biztanle zeuden eta iaz, 21.867. Kontrakoa gertatu da Oñatin: 10.757tik 11.428ra igaro dira.

**KORONABIRUSA**

## Baieztatutako positibo metatuak Debagoienean

ITURRIA: EUSKO JAURLARITZAKO OSASUN SAILA



## Positibo kasuak eta intzidentzia

	Positiboak aste honetan	Positiboak aurreko astean	Positibo metatuak	Positiboak biztanleekiko
Arrasate	387	630	7.658	%35,02
Bergara	292	589	4.787	%32,82
Oñati	187	308	4.061	%35,54
Aretxabaleta	183	213	2.249	%31,64
Eskoriatza	121	115	1.313	%31,78
Antzuola	30	68	750	%36,04
Aramaio	26	29	482	%33,10
Elgeta	19	34	254	%22,26
Leintz Gatzaga	5	11	55	%26,07
<b>DEBAGOIENA</b>	<b>1.250</b>	<b>1.997</b>	<b>21.609</b>	<b>%33,76</b>

OHARRA: EGUZTENERA ARTEKO DATUAK

ITURRIA: OSASUN SAILA

## Presioak behera egin du Debagoieneko Ospitalean

Positiboak zenbatzeko protokoloa aldatu den arren, oraindik 100 kasutik gora atzematen dira egunero

**U. I. L. DEBAGOIENA**

Pandemia hasi zenetik 21.609 kasu atzeman ditu Osakidetzak Debagoienean; horietatik 1.250, azken astean. Hilabeteko datuari dagokionez, 5.610 positibo hauteman dira hiru astean.

Pandemiaren bilakaera aztertzeke, ospitaleetako datua da adierazleetako bat. Debagoieneko ospitalean hamaika lagun daude ingresatuta –aurreko astean baino lau gutxiago–, eta EAEn, 122 lagun daude ZIUn –

aurreko astean baino hamalau gutxiago– eta 718 plantan (ia 100 lagun gutxiago).

Bestetik, adinekoen egoitzei erreparatuta, 35 egoiliar daude kutsatuta eskualdean; horietatik 29, Aretxabaletako GSRn.

Ametsak  
Biziz!



Sorizailera • ANALITIKO - KRITIKOA • Kooperatiboa  
Hurbilekoa eta Empatikoa • Eskualduna • BARRU SONDATZESUNA DUNA  
Eskaladuna • Eraldatzailea



# MATRIKULA EPEA

## URTARRILAREN 17tik 28RA

ATE IREKIAK  
URIBARRI



0-6 URTE

Urtarrilak 26 asteazkena 17:30

BISITA PERTSONALIZATUAK  
GUNE GUZTIETAN

Gogoratu ikastolako atek zabalik dituzuela,  
gure guneak eta etapak ezagutzeko.



HARTU ZURE  
TXANDA HEMEN!



ATE  
IREKIAK

BISITA  
PERTSONALIZATUAK

943 77 20 25

www.arizmendi.eus





Ezkerretik hasita, Joxean Aretxaga, Aritz Ganboa, Felix Ajuria eta Fermin Etxebarria, urteko lehen kupela ireki berritan. H.L.

## Uzta oparoko txotx sasoia abian da Araban

Aramaioko Iturrieta sagardotegian egin diote ongietorria 2022ko sagardo denboraldiari, Aritz Ganboa artzainaren eskutik. 100.000 litro sagardo ekoiztu dituzte Arabako Sagar eta Sagardogileen Elkarteko hiru ekoizleek, eta 2020ko kopurua gainditu dute

### Hasier Larrea ARAMAIO

Iaz ez zuten sagardo denboraldia behar bezala inauguratzerik izan Araban, baina arantza hori kendu ahal izan zuten atzo, hilak 20, Iturrieta sagardotegian eginiko 2022ko sagardoaren aurkezpenean. Aritz Ganboa artzain eta dibulgatzailea gonbidatu dute Iturrietako sagardo berriaren lehen

kupela zabaltzeko, eta haren alboan egon dira bi aramaiok: Idiazabal jatorri izenaren presidente Felix Ajuria eta 93 urte dauzkan Fermin Etxebarria artzaina. Modu horretan, sagardogileek omenaldia egin nahi izan diete euskal artzainei, "bi sektoreen arteko harremana sustatzea funtsezkoa" dela nabarmentzeko.

### Egindakoarekin conforme

Udazkeneko sagar uzta oso ona izan dela aipatu du Iturrietako Juanan Aretxagak, urtean zehar sortutako zalantzak kolpe batez uxaturik: "Hasieran beldur ginen ez ote genuen iaz baino gutxiago jasoko, euri gutxi egin zuelako urtean zehar. Atera kontuak, sagarrondoetatik fruituak erortzen hasi ziren lehortegatik. Baina

gero, euri pixka bat egiten hasi eta egoera konpondu egin zen".

Hori horrela, 100.000 litro sagardo ekoiztu du Arabako elkarteak aurten, eta horren %35 txotx egiteko kupeletara eta %65 botiletara bideratuko dute. Iturrietako sagardoa dozena bat sagar-barietate ingururekin egin dute aurten; *gezalima*, *txalaka*, *goikoetxe*, *moko* eta *uridin sagarra* dira horietako batzuk: "Gozoagoak, mingotsagoak edota gaziagoak izan daitezke; beraz, denak nahastuz lortzen dugu azken emaitza".

### "Zapore bikaina"

Aurtengo enbaxadoreak, Aritz Ganboa nafarrak, denboraldia irekitzeko artzainengan pentsatzea "ohore handia" izan dela adierazi du, bi ekoizleek egiten dituzten produktuak ondo ezkontzen direla gehituta: "Sagardoa gaztarekin eta arkumearekin bikain nahasten da; lehen sektoreko bi ekoizle onen arteko harremana eta gertutasuna ondo sinbolizatzen du horrek". Felix Ajuria ere Idiazabal izenaren eta Arabako sagardotegien arteko lotura "aspaldikoa" dela nabarmendu nahi izan du.

Aurtengo sagardoari dagokionez, "mundiala" dela adierazi du Ganboak: "Hemen gauza onak egiten dira, ezagutza eta kultura oso bat dagoelako; naturak ematen dizkigun fruituekin egin dezaketen onena egiten dute ekoizleek. Beste behin ere, sagardo bikaina edan dezakegu".

Tamalez, sagardotegira doazenez ezingo dute txotxa ohi bezala egin, pandemiaren protokoloa tarteko. Mahai bakoitzetik batek beteko du pitxarra kupeleko sagardoaz, ondoren mahaira itzuli eta edalontzietan apurtzeko.

## Bailarako bost herritatik igaroko da Korrika

laz bertan behera geratu ostean, aurten izango da AEK-k bultzatutako ekitaldi kolektiboa

### H.L. DEBAGOIENA

Hogeita bigarren Korrikari Amurrioren ekingo diote, martxoaren 31n, eta hurrengo egunean, apirilaren lehenean, jasoko dute testigua Debagoieneko herriek. Denek ez, ordea, onatzen, elgetarrek, antzuolarrek eta aramaiok euren herrietatik kanpora mugitu beharko baitute Korrikari sostengua emateko.

Euskal Herriko zazpi probintzietan zehar 2.180 kilometro egin ostean, apirilaren 10ean amaituko dute ibilbidea, Donostian. Kilometroak erreserbatzeko aukera otsailaren 1ean zabalduko du AEK-k. Horretarako, honako telefono zenbaki honetara deitu behar da: 946 464 000; edo helbide elektronikoz eskaera egin: [gipuzkoa@korrika.eus](mailto:gipuzkoa@korrika.eus).

Abestia eta bideoklipa ere aseton aurkeztu dute. *Hitzekin* du izenburu, Sustrai Kolinak idatzi eta Ane Garciak, Anarik eta Nerea Urbizuk abestu dute.

## Bailarako ordutegia

Soraluzetik sartuko da apirilaren 1ean Korrika, Legutiora bidean.

### Eguerdian zehar

- **Bergara** izango da testigua jasoko duen lehen herria, 11:59an.
- **Arrasatera** iritsiko da ondoren, 12:57an.
- **Aretxabaletari** 13:43an egokituko zaio lekukoa eramatea.
- **Eskoriatzarrek** 13:56rako prest egon beharko dute.
- **Leintz Gatzagatik** Arabara joango da, azkenik.

## Aurrera doaz, "pixkanaka eta gure kabuz"

Arabako Sagar eta Sagardogileen Elkartea (ASSE) Koartangoko, Trebiñuko eta Iturrietako sagardotegiek osatzen dute, eta euskal sagardoaren jatorri izena darama euren produktuak: "Lurraldean hirurok gara sagardoa ekoizten dugun etxeak; gero, alde batetik, *sagardotegi* izena jartzen dioten jatetxeak daude, baina ez dute sagarrik ekoizten, gehienetan Gipuzkoako

sagardotegiren bati erosten baitiote. Bestetik, eskala txikiagoan diharduten sagar-ekoizle ugari daude; Aramaion eta Ozetan, esaterako, produktua ingurukoei banatzeko egiten dute. Komeni da hori guztia bereiztea", adierazi du Aretxagak.

Era berean, Arabako administrazioetatik laguntzarik jasotzen ez dutela nabarmendu

du, mahatsaren ekoizpena lehenesten dutelako: "Berriki, Aldundiko Nekazaritza Saileko diputatuari entzun diot 600.000 euro banatuko dituztela Arabako Errioxako ardoa promozionatzeko; bien bitartean, sagardoa ez zuen aipatu ere egin, ez baitugu sosik jasotzen".

Ondorioz, ahal duten modura egiten dute lan, Gipuzkoako Fruitagintzaileen Elkartearekin

(Fruitel) aliantzak gauzatzuz, adibidez. Aurten, bi ikastaro egin dituzte batera, bata inausketa teknika berrien inguruan eta bestea lur motei buruzkoa. Lehenengo ikastaroarekin lotuta, joan den udazkenean, lehen aldiz jaso zuten uzta zati handiena makineria bidez, fruta-horma teknika erabilita. Hala, "20 urte atzera hilabete osoa iraungo zukeen eskulana bi egunean" egin ahal izan dute.

## Foru-udalerrri haiek

**JOSE LUIS ELKORO UNAMUNO**

BERGARAKO ALKATE OHIA ETA ALKATEEN  
MUGIMENDUKO KIDEA  
BERGARA

1976ko uztailaren 21ean, Foruen Abolizioaren mendeurrenaren egunean, Euskal Udalen Manifestua irakurri nuen Bergarako udaletzeko osoko bilkuren aretoan, ni neu alkate nintzela. 68 udalerrik eskubide historikoak aldarrikatzeko konpromisoa hartu zuten.

Foru Erregimenean udalerrriak Herriaren benetako ordezkariak izan ziren, gizarte tradizionalaren berezko gai publikoak kudeatzen zituztenak. Eta Batzar Nagusiak hiribildu eta herrietako ordezkariak osatzen zituzten.

Euskal Herria nazio bat dela defendatzeko borrokan jarraitzen dugu, eta horrela aintzat hartu eta errespetatu egin behar da.

Euskal Herrian elkarbizitza ezinezkoa izango da sakoneko arazo politiko bat dagoela onartzen ez bada, sufrimendu handiko aurrez aurreko borroka bat ekarri duena. Horrek eskatuko du elkarriketa eta euskal herritarrek askatasunez adierazitako borondatea errespetatzea:

autodeterminazio-eskubidea.

Borroka hori udalerrietan finkatu beharko da, haiek baitira autonomiaren eta demokraziaren euskarri.

Hala ere, Espainiako eta Frantziako gobernuak euskal udalerrriak menderatzen jarraitzen dute. Eta egoera hori areagotu egin da Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernuaren azken erabaki eta asmoekin.

Udalerrien autonomiari larriki eragiten dioten erabakiak hartzen ari dira. Eta gobernu-alderdiak (EAJ eta PSE) dira gure lurraldetik udal-eskumenak inbaditzen dituztenak. Udalen foru-eskubideak urratu eta menderatu egiten dira.

Egungo botere autonomikoa *interes publiko goreneko proiektuak* legez inposatzen saiatzen ari da, alde bakarretik eta udalerriei galdetu gabe. Eta okerrera da euskal alderdi politiko gehienetako ordezkari askok utzikeria egiten dietela beren eskumenei.

Ingurumen Administrazioari buruzko legea onartuta dago, ingurumen-hondamendiak areagotuko dituenak –AHTa, erraustegiak, *fracking*-a...-. Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Legearen aurreproiektua osagarria izango da. Lurraldearen Antolamendurako Legea izango da ondorengoa, hirigintzako udal-eskumen garrantzitsuak murriztuko dituenak.

Herri honetako oreka instituzionala hausten ari da, eta udal-eskumenak murriztu. Udalerrien foru-eskubideak berriro aldarrikatzeko unea da.

## Larunbatean denok Bilbora!

**IRATI MUJIKA LARRETA**

ARAMAIO

Urtarrilaren 22an, giza eskubideen urraketa basatiaren aurrean Bilboko kaleetan gure askatasun nahia zabalduko dugu Bizitza Plataformak antolatutako manifestazioan, 17:00etan, Casillatik abiatuta, *STOP diktadurarako pasaporte* eta *Askatasuna* lelopean. Geroz eta agerikoagoa da herritarren ezinegona; ikusi besterik ez dago azken asteetan Euskal Herriko txoko askotan izandako mobilizazio jendetsuak.

Txertatze experimental masiboaren bidez ezarri den pasaporte lotsagarri hau ez da osasun kontua –agintariak onartu duten gisan–; kontrol soziala eta diskriminazio larria da gure egunerokoan bizitzen ari garena. Inoiz ezagutu gabeko totalitarismoari atea irekitzen dio txartel honek, itzulerarik gabeko atea, pertsonen kontrola eta digitalizazioa eskutik hartuta. Gaur, gure txertaketari buruzko informazioa eskatu nahi digute tabernan sartzeko, eta bihar zer?

Denborak erakutsi du, aurrez, inposatutako dekretu askok legea urratzen zutela, eta pasaporte hau ere ilegala da, hainbat tratatutan jasota ditugun oinarritzko eskubideak urratzen dituelako. Ehunka urtetan

lortutako eskubideak defendatzeko ordua da. Zer esango diegu gure ondorengoei, beldurragatik denari uko egin geniola?

Instituzio, alderdi eta eragile ezberdinei ozen esango diegu: ez dugu herritarren kontrako abusu gehiagorik onartuko, ezta diskriminaziorik ere. Auzolanaren bidez kontrol sozialerako pasaporte hau gelditzeko gonbidapena luzatzen diegu herritarrei, Bizitzako taldeetan antolatuz, erakunde eta norbanakoak informatuz... Geroz eta gehiago, larunbatean ikusiko dugu elkar Bilboko kaleetan!

## Urtarrilaren 29an Bilbora!

**ROBERTO POSADA DIEZ**

DEBAGOIENEN KGS-REN IZENEAN  
DEBAGOIENA

Urte berriarekin batera, hitzordu garrantzitsu bat dugu urtarrilaren 29an. Indarrak batu eta azken urteetako ofentsibari aurre egiteko unea da, ezarritako neurri bidegabeak salatu eta erantzuleak seinaltatzeko momentua.

Gazte langileon egoera etengabe okertzen ari da. Soldata baxuen truke lan egiten dugu, praktika kontratu negargarriekin, aste gutxi batzuetako edo hilabeteko kontratu tenporalekin, ordu estrak sartuz eta, behin baino gehiagotan, ordaindu gabeko lanorduak burutuz. Aurreztea, egonkortasun

minimo bat lortzea eta etorkizunerako planak egitea ezinezkoa da egungo baldintza ekonomikoekin. Eta horrek bizitzako esparru guztietan eragiten digu; harremantzean, osasun mentalean, bizi ohituretan zein kontsumitzen dugun aisialdian.

Pandemiak aldaketa ekonomiko eta sozial horien atzean dagoen krisia areagotzea ekarri du; areagotzea eta azaleratzea. Azken bi urteetan ezarritako neurriak pandemiari aurre egiteko neurriak direla sinestarazi nahi izan digute, baina denborak aurrera egin ahala agerian gelditu da ziklo ekonomiko berri baterako moldaketa eta berregituraketa fase baten gaudela. Alarma egoera ezarri zenean GKS egindako irakurketetan adierazi zen bezala, bankari eta enpresari handien partetik ezarritako ofentsibak kontrol sozialean eta sumisioan oinarritutako gizartea du helburu, pobrezia orokortzea eta eskubideen urraketen normalizazioarekin batera.

Basakeria honi aurre egiteko, politikari profesionalek ez dute inolako proposamen errealik plazaratu; miseria kudeatzera mugatu dira. Horregatik, bakoitzak bere arazoak izanda ere, gure kabuz antolatu eta eskubide kolektiboak defendatzea dagokigu.

Urtarrilaren 29an Bilbon ikusiko dugu elkar!

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

## HAUXE BAI JENEROA!

**GARBIÑE UBEDA**





ZABALIK

JOXEMARI MUXIKA ARRIETA

## Hiztun baztertuak

Ohikoak dira gizarteak bizi dituen arazoei buruzko artikuluak. Hauen artean, publikatzen diren azterketa soziologikoei gure jendartearen ezaugarriak ulertzen laguntzen dute. Horrelako artikulu kopuruak eta idazle barietateak gizarte mailako sentsibilizazio handia adierazten du.

Artikulu hauetan, jendeak nozitzen dituen hainbat motatako arazoak azaleratzen eta lantzen dira: soldata eskasak, soldata arrakala –batez ere, gizonen eta emakume artean–, behin-behineko lan kontratuak, osasun arazoak –kalean, lantegietan, etxean–, etxebizitza gabeak, ingurumena, arrazakeria, matxismoa... Era berean, medioaren eta idazlearen arabera ikuspuntu ezberdinetatik idatziak izaten dira: sindikala, politikoa, ekologista, feminista, kirolzalea...

Behin eta berriro gaur egungo jendartearen bizi diren arazoak azaleratzen direla kontuan izanda, zergatik ez da azaltzen euskara hiztunak jasaten duen bazterketa? Hau esatea gehiegikeria iruditu dakioke inori. Noizbehinka, artikulugile berezi batzuek idazten dute euskara


hiztunen bazterketa honen inguruan. Euskaltzaleren batek idatzitakoak izan ohi dira; bestela, kasu bakanen batean, feministek egindako azterketaren batean ere agertzen da. Baina, adibidez, sindikalistek gai honen inguruan publikoan eginiko kezarik ez dudala inoiz irakurri esatera ausartuko nintzateke.

Ez al da hau jendartearen bizi den arazo bat? Edo hezkuntza arloan soilik gertatzen da? Orduan, zergatik ez da euskara hiztunek Euskal Herriko edozein leku edo alorretan bizi duten bazterketa hau aieratzen?

Izan ere, non daukate euskara hiztunek euskaraz aritzeko aukera? Ba al dago komunikazio sistema euskaraz duen entitaterik? Euskaldunok euskaraz egiteagatik baztertu gabe bizitzeko aukerak behar ditugu lan eremuetan, hezkuntzan, aisian, kirolean... Hau da, gure herrian, Euskal Herrian.

## MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



## HANDIK ETA HEMENDIK

### Gure hitzak

ANDER IZAGIRRE

'TTAP'-EN ARGITARATUA

Pierok 89 urte ditu eta etxeko lan guztiez arduratu da orain dela gutxi arte. [...] Bere emazte Mariak 87 urte zituen eta burua nahastuta. [...]

Zer uzten du bizitzak, zein oroitzapenek ateratzen dute muturra olatuen artean, memoria urpera doanean? Argitasun uneetan, Mariak gogora ekartzen zuen Piero elizan ikusi zuen eguna, artean nerabe zirela: "Jornaleroek igande goizetan ere lan egiten zuten eta eguerdian mezetara joaten ziren. Pierok aurpegia hautsez zikinduta zeukala ikusi nuen

eta zapiarekin garbitu nion. Gurasoek errietan egin zidaten, ez ninduten nekazari batekin ezkondu ikusi nahi". Jostuna izan zela gogoratzen zuen, gau eta egun soinekoak josten pasa zuela bizitza. Giovanni ere aipatzen zuen, Marzolarra herrixkan gerrarako errekrutatu ez zuten mutil bakarra, desgaitasun intelektuala zeukalako. Nazi talde bat Giovanni hil arte torturatzen dibertitu zen, zuhaitz batean zintzilikatu zuten eta hiru egunez inor ez zen ausartu gorpua jaistera. Gerraren amaiera ospatzeko, egunsentiraino aho-soinua jo zuen musikari itsua ere gogoan zeukan Mariak, eta

berak orduan 12 urte zituela, eta Iginu aitaren berririk ez zutela, naziek Alemaniara bidali zutelako lan behartuak egitera. [...]

Duela aste batzuk hil zitzaigun Maria. Hauek ziren memoriaren naufragioan flotatzen gelditu zitzaizkion hondarrak: maitasuna, lana, gerra. Sukaldean aurkitu genituen behin biak, besarkatuta: Maria, nahastuta eta senarraren bularrean babestuta; Piero, emaztearen masaila laztantzen eta bere izena behin eta berriz xuxurlatzen, Maria, Maria, Maria, eta Mariak orduan bizitzako gauzarik garrantzitsuenak ulertzen zuen dudarik gabe.

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

**Argitaratzailea**  
Goiena Komunikazio Taldea  
Kooperatiba Elkarte  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

**Lehendakaria**  
Monika Belastegi.  
**Zuzendari nagusia**  
Iban Arantzabal.  
**Eduki zuzendaria**  
Eneko Azkarate.

**Erredakzio batzordea**  
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

**Zuzendari komertziala**  
Mireia Larrañaga.  
**Administrazio zuzendaria**  
Agurtzane Gaintzarain.

**Diseinu arduraduna**  
Iñaki Iturbe.  
**Hizkuntza arduraduna**  
Sergio Azkarate.  
**Harpidetza eta banaketa arduraduna**  
Ilgone Osinaga.

**Sailletako arduradunak**  
Xabi Urtzelai (Kirola),  
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).  
**Maketazioa**  
Imanol Soriano, Aitor Lagoma,  
Amaia Martínez de Arenaza.  
**Publizitatea**  
Mireia Larrañaga,  
Ziortza Martín,  
Amaia Mundiñano.

**Administrazioa**  
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,  
Nerea Artola.

**HARPIDETZA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
harpidetza@goiena.eus

**PUBLIZITATEA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
publi@goiena.eus  
**EGOITZA NAGUSIA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05  
Telegram eta WhatsApp:  
688 69 00 07  
berriak@goiena.eus

**Lege Gordailua:** SS-965/2014  
**ISSN:** 2174-369X  
**Tirada:** 19.000 ale  
**Difusioa:** 18.723 ale

**Inprimategia:**  
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

**Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua**



**EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA**



## BERBAGAI

# "Gazte jendearengan badago kezka politiko bat"

MIREN TXURRUKA GAZTE KOORDINADORA SOZIALISTA TALDEKO KIDEA

**Larraitx Zeberio Lekuona** ARRASATE  
Gazte Koordinadora Sozialistak (GKS) manifestazioak deitu ditu hilaren 29rako Bilbon eta Iruñean. Debagoienetik ere antolatu dituzte autobusak. Miren Txurruka (Bergara, 1998) Deba bailarako taldeko kidea da.

## Ze gogoeta dago egiten duzuen deialdiaren atzean?

Pandemiak ez du krisi bat sortu; aurretik zetorren krisi bat areagotu du. Ezarritako neurriak, kontrol sistemak, eskubideen urraketak, baldintza ekonomikoen okertzea... Ez dira momentuan hartutako neurriak izan. Gelditzeko etorri diren neurrien hasiera dira. Hori salatzeko manifestazio jendetsu bat egitea erabaki dugu. Jende askok bat egin dezakeen terminoetan planteatu dugu, gizartearen parte handi bat parte hartzera gonbidatuz. **Langabezia kronikoa, lan baldintza prekarioak,**



Miren Txurruka, eguaztenean, Arrasaten. L.Z.L.

## murritzaketak... Nortzuk dira erantzule nagusiak?

Gazteok funtzio bat betetzen dugu egitura ekonomiko eta sozial honetan. Bankari eta enpresari handiak kokatzen ditugu gure egoeraren

kaskartzearen erantzule nagusi moduan. Politika bidez egikaritzen dute botere hori, eta Parlamentuan dauden alderdi politikoak –ezkerretik eskuinerainokoak– mugatzen dira botere hori gizartearen

egikaritzera. Alderdi politikoak ere –guztiak– erantzule bezala izendatzen ditugu, denon ongizatea bermatzeko duten ezintasunagatik. Burgesiaren boterea egikaritzeko txotxongiloak dira. Hala, beharrezko ikusten dugu hortik at antolatzea, eta, langileen antolakuntza independente batekin, lorpen txikiak irabaziz, botere harreman horretan eragitea. **Komunismoa duzue aldarri.** Bai, antolakuntza komunistaren aldarria egiten dugu. Bere horretan aldarrikatzen dugu, gaurkotasuna duelako eta gizartea ulertzeko oso oso tresna egokia delako. **2019an sortu zen GKS. Gazteen kontzientzian eragiteko diharduzue lanean. Zer-nolako da erantzuna?**

Orokorrean, gazte jendearengan badago kezka politiko bat. Egin ditugun jardun, formakuntza eta borroka konkretuetan erantzun nahiko ona egon da, kontuan hartuta zein den, egun, gazte jendearen egoera. **Zer-nolako antolaketa duzue?** GKS antolakunde nazional bat da, Deba bailarako talde bat daukana, Debagoiena eta Debabarrena bere baitan hartzen dituen. Lurrean

gertatzen diren problematikak Kontseilu Sozialista Deba Bailaratik lantzen ditugu, eta ez Gazte Koordinadora Sozialistatik. Estrategia beraren baitan kokatzen gara, baina bakoitzak bere problematikak eta bere lan esparruak ditu. Horregatik bereizten gara hainbat antolakundetan. Askotariko azpiegiturak erabiltzen ditugu; kale-lana oso garrantzitsua da. Gero, gaztetxeak, Bergaran dagoen Zubietako zentro sozialista eta udalek dituzten azpiegiturak erabiltzen ditugu.

## Zuen irakurketak plazaratzeko plataformak ere sortu dituzue.

*Gedar.eus* langile kazeta da, baina badu aldizkari propio bat, *Arteka* izango dena. *Burdin hesia* programa berezi bat da. Gure irakurketen berri izateko hor daude bai sare sozialak bai *Gedar* eta halako baliabideak. **Zer dago jokoan hilaren 29ko manifestazioan?** Manifestazio oso garrantzitsua da. Indar erakustaldi bat izango da. Bi urteotan hartu diren neurrien atzean dauden interesak eta horien nolokotasuna azalduko dira. Alternatiba baterako lehenengo pausoa izan daiteke.

## ITURRI ONETIK

### Organoa zaharberritzera, martxoan

Otsailaren 21etik martxoaren 4ra bitartean, desmuntatu eta Frantziara eroango dute Bergarako San Pedro parrokiako Stoltz Freres organoa. Zaharberritze lanek 2024ko ekainera arte iraungo dute. 468.103 euro kostako da 1889ko martxoaren 18an inauguratu zuten organoa berritzea. Eroan aurretik, ordea, agur ekitaldi bi egingo dituzte, otsailaren 19an, eguerdian eta iluntzean, San Pedron bertan. Bergarako Erraldioen Konpartsa, herriko koroak, organo emanaldia eta beste iragarri dituzte.

## ALBISTE IZAN ZEN

2016-01-08

### Urkuluk ezohiko itxura urtarrilean: %64 beteta

Urkuluko urtegiaren betetze maila %64 zen 2016ko urtarrilean. 2007a ezker baxuena –%55eko betetze maila zuen urte hartako urtarrilean–. Eta gaur egungo %99,48tik urrun. Duela egun batzuk, gainezka eginda zen. Ezohiko egoera hartan, alerta egoeran zen 2016ko urtarrilean Debagoieneko urtegia. Edozelan ere, eta ezohiko irudia erakutsi arren, urtebeterako ura zegoen; hain justu ere, 6 milioi metro kubiko pasa pilatuta zeuden.



GOIENA

## HAU BE BADOGU!

### Korrika 'trending topic' izan da asteon

Aurtengo ibilbidea ezagutzera eman zuen Korrikak eguaztenean.

*@jonirizar*: "Birritan begiratu behar izan dut. Harridura eta pena sortzen dit 11.000 biztanletik gorako herri euskaldun batetik #Korrika ez igarotzeak. Izango du, ziur, arrazoiren bat AEK-k. Oñatin ez bada ere, elkartuko gara ibilbidean zehar tipi-tapa euskararen alde. Eutsi goiari!"

*@mikel\_irastorza*: "#Korrika: mugarik gabeko euskararen lurraldea".

*@martinez\_xabier*: "Aurten berandu joan beharko gara ohera. Korrika badator!"



Sei herritarren laguntzaile, lau eraikin garbitzaile, hiru lorezain eta naturaguneak babesteko lau langile kontratatu ditu. E.A.

## Langabeen kontratazioak "ondo" funtzionatzen du

Arrasateko Udalak hemeretzi langabe kontratatu ditu aurten, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren laguntzarekin. Marga Garmendia Enplegu teknikariak dio langabeen kontratazioaren formularekin asmatzen ari direla, "ondo" funtzionatzen ari delako

### Eneko Azurmendi ARRASATE

Udalak 2021-2022 urteetako Enplegua Sustatzeko Planaren baitan egin ditu kontratazioak, "eta 2020-2021eko herritarren brigaden esperientzia pilotuari jarraipena emanez".

Batetik, herritarren laguntzaileen taldea sei langilek osatuko dute, eta honako funtzio hauek izango dituzte: herritarrei informazioa eman eta arreta eskaintzea, aisialdiko eremuetan herritarrei informazioa ematea, hiri-altzariak udal zerbitzuetan duten egoerari buruzko informazioa ematea, udal dokumentuak eramatea –zirkularrak, bandoak...–, ikastetxeetako haurrei hainbat jardueratara laguntzea –kiroldegia, liburutegia, kultura...– eta haurrei laguntzea eskolara bidean dauden oinezkoentzako pasabideetan.

Bestetik, naturaguneak mantentzeko brigadan lau langile egongo dira, eta ibaien ertzak garbitzea eta landare inbaditzaileen hedapena mugatzea izango

da haien zeregina, era berean, bide naturalen sarea eta naturaguneen mantentze-lanak egingez. Hala, haien ardura izango da pilatutako zaborra ateratzea, landare inbaditzaileak kontrolatzea, zuhaitzak landatzea eta inaustea, landa-gunean lurra moztea, bide naturalen sarea mantentzea eta baratze-parkea mantentzea, besteak beste.

Era berean, hiru langile kontratatu dituzte lorategien mantentze-lanak indartzeko lanak, zuhaitzak landatzeko eta abar.

Horrez gain, eraikinak garbitzeko errefortzu-brigadan lau langile egongo dira, COVID-19ak eragindako garbiketa-behar puntual berriei aurre egiteko asmoz.

### HAMAZAZPI LANGILE BRIGADA TXIKIETAN ARIKO DIRA; BESTE BIAK, INFORMATIKA ARLOKO LANETAN

Hala, udal eraikinaren garbiketaren bereziak egingo dituzte.

Brigada txiki horietako kontratuak bost hilabetekoak izango dira. Sexuaren arabera, hamar emakume eta zazpi gizon daude; horietatik sei, 55 urtetik gorakoak dira, eta hiru, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren titularrak edo onuradunak. Kontratuen aurrekontua 257.166,13 eurokoa da, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak eta Udalak finantzatua.

### Informatika arlorako, bi langile

Azkenik, Udaltzaingorako informatikako laguntzaile bat kontratatu dute, tresna informatiko bat ezartzeko, eta Udal Euskaltegirako beste teknikari bat ere bai, Moodle plataformaren kudeaketa-lanak egiteko. Bi kasuetan, kontratuen iraupena hamabi hilabetekoa izango da, 2021eko azaroaren 30etik 2022ko azaroaren 29ra, biak lanaldi osokoak –90.111,19 euro, Lanbide eta Udalaren artean–.



NIRE USTEZ

ITSASO ERRETOLATZA

### Bat ez ezik

Abesbatzako beteranoak dio 20 urteren ostean oraindik ere beraien lekua ezin topaturik ibiltzen direla kantatzen hasterako. Pausoa ezkertera, ez eskuinera, simetria zaindu zuzendariarekin, aurrean ala atzean... Non kokatu jakin ezinik hainbeste ekitaldiren ondoren. Gazteek harrituta begiratzen diete betiko lekura joan besterik ez duten helduei. Hauek, denbora tarte horren gozamenen: "Gaztelu bat erasotu behar duen tropa bat bagina, errukienak ginen". Poza nabari zaie.

Lagunaren ama erresidentzian dagoela-eta sufritu ei du, amak berak baino gehiago. Askok kostatu zitzaion zainduago egongo zela konbentzitzen, eta hara non, behin bertan, amak gimnasia aukeratu duen pastelak egin ordez, alabak sekula asmatuko ez zukeena. Etxeko bakardadetik taldean plana izatera igaro baita. Pozik dago orain.

Pandemia bilakatu den bakardade ez hautatuak arduratzen nau, bihotzaren negu ilunetik nola atera, nola tristura poztasun bihurtu... Isolamenduaren gotorlekua setiatzeko modu bakarria baitago: besteekin komunitatean.

## Hogei proposamen lehenetsiko ditu boluntario talde batek

Aurrekontu parte-hartzaileen lehen fasea amaituta, proposamen onenak aukeratzeko ditu Leheneste Taldeak

### E.A. ARRASATE

Aurrekontu parte-hartzaileen lehen fasea amaitu da, herritarren 243 proposamen jasota. Orain, proposamenak aztertu eta sailkatu ondoren, hogei proposamen lehenetsiko ditu hamar eta hamalau boluntario artean dituen Leheneste Taldeak, bozketara pasatzeko. Azken fase hori martxoan abiatuko da.

Leheneste Talde horretan parte hartuko duten herritarren aukeraketa hiru irizpideren arabera egin dute: adina, generoa eta bizilekua. Bi bilera egin-

go dituzte, urtarrilaren 25ean eta otsailaren 2an.

Otsailaren, taldeak lehenetsitako proposamenen azterketa teknikoa egingo dute udal teknikariek, eta proiektu-izaera emango diete, bideragarritasun teknikoa, legala eta azpiegiturazkoa aztertu ondoren.

Hogei proposamen pasako dira martxoan eta apirilean izango den bozketara pasako dira. Bozketaren data zehatzak eta prozedura martxoaren hasieran jakinaraziko dituzte.

### Estela erromatarra Arrasatera ekartzea gura dute popularrek

Gipuzkoako Batzar Nagusieta PPren bozeramaile Juan Carlos Canok eskaera egin dio Aldundiari, Meatzereko San Balerio ermitari dagokion botzko estela edo hilarri erromatarra Arrasatera ekar dezaten exijitzeko, eta Kulturaren ikusgai jarri. Egun, Segobrigako Museo Arkeologikoan dago, Cuencan (Espainia).

### OHARRAK

#### Danok Bat elkarteak

Jose Mari Mondragon, Luis Martinez eta Joseba Viteriren senide eta gertukoak gonbidatu ditu haien omenez egingo den mezara. Etzi, 12:00etan, San Juan Bataiatzailearen parrokiaren.

#### Hitzaldia gaztetxean

"Faxismoa borrokatzeko estrategien inguruan" ariko dira gaur, 18:00etan hasita.

# 120 ekarpen inguru egin dituzte arrasatearrek

Etorkizuna Eraikiz programaren baitan, Markel Olano Gipuzkoako diputatu nagusiak Arrasaten abiatu ditu herriz herriko bilerak, eta, Maria Ubarretxena alkatearekin batu ostean, arrasatearrek egindako proposamen eta kezka eman dituzte ezagutzera

**E.A./J.O.** ARRASATE

Aldundiak 2021eko ekainean jarri zuen Arrasaten Etorkizuna Eraikiz kapsula, eta herritarren kezka eta proposamenak batu zituzten. 2040. urteko Gipuzkoa nola irudikatzen zuten galdetuta, arrasatearrendik 120 ekarpen inguru jaso zituzten, eta Maria Ubarretxena alkateak zehaztu duenez, etorkizuneko lan-ildoak zehazteko "ezinbestekoak" izango dira horiek: "Guretzako oso garrantzitsua izan da jakitea herritarrek zein kezka dituzten. Azken batean, Udalaren politikak ere zentzu berean joateko aukera ematen digu horrek, eta kontuan hartuko



Maria Ubarretxena eta Markel Olano, Herriko Plazan. JONE OLABARRIA

ditugu etorkizunari guztiok batera aurrera egiteko".

## Berdintasuna, kezka nagusi

Herri bakoitzaren kasua ezberdina izanda ere, Olanok nabarmendu du badirela errepikatzen diren kezka, hala nola klima aldaketa eta berdintasuna. Dena den, aitortu du azken urteetan aldatu egin dela tendentzia: "Orain arteko inkestetan, enpleguak eta arlo ekonomikoak zuten protagonismo handia, eta, horrek garrantzirik galdu ez duen arren, beste kontu batzuk ere geroz eta gehiago lantzen dira".

Arrasatearren kasuan, ekonomiarri, emakume eta gizonen berdintasunari eta mugikortasunari lotutako balioak izan dira nagusi, baita euskararen erabilera eta ingurumenaren zaintza eta zahartzaroari lotutakoak ere. Berdintasunari erreparatuta, askotariko proposamenak egin dituzte; besteak beste, indarkeria jasaten duten emakumeei laguntzeko diru gehiago inbertitzea, genero indarkeriari buruzko kontzientziazioa areagotzea eta berdintasunerako lan politika hobetzea.

## Martxoaren 8ari begirako kartel lehiaketa martxan da

Emakumeen Nazioarteko Egurenaren harira, Berdintasun sailak 25. Kartel Lehiaketa jarri du abian. *Feminismoa denon kontua da* gaia ardatz hartuta, otsailaren 14ra arte aurkeztu daitezke lanak, BAZen. 450 eurokoa da saria. Informazio gehiagorako, 943 79 41 39 edo 618 20 62 33ra deitu edo [emakumetxokoa@arrasate.eus](mailto:emakumetxokoa@arrasate.eus) helbidera idatzi.

## Seme-alaben heziketan laguntzeko saioak egingo dituzte

Gizarte Zerbitzuen Sailak antolatuta, gurasoen "estrategia pertsonalak, emozionalak eta hezitzaileak bereganatzeko" saioak egingo dituzte otsailetik maiatzera, Kulturateko Biteri gelan. Izen emateko, Gizarte Zerbitzuetara deitu (943 25 20 07) edo [prebentzio@arrasate.eus](mailto:prebentzio@arrasate.eus) helbidera idatzi behar da, urtarilaren 28a baino lehen.



**arizmendi ikastola**



ARRASATEKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Arizmendi ikastolak kudeatutako Udal Zerbitzua

ARRASATEKO UDAL HAUR ESKOLA

ATE IREKIAK

0-6 URTE  
**ERDU**  
EGITASMOA

**URIBARRI**

0-3 URTE

Uribarri etorbidea z/g.a

**urtarrilak 26**

17:30

**MATRIKULA EPEA!**

**URTARRILAREN 17tik 28ra**

**HARTU ZURE TXANDA HEMEN!**



943 77 20 25 [www.arizmendi.eus](http://www.arizmendi.eus)



Arrasateko Tailaginen Elkarteak 47 bazkide ditu egun. Argazkian, horietako batzuk, Araba etorbidean duten lokalean. E.A.

# 40 urtean, zura eskutik eskura

1982an sortu zuten Arrasateko Tailaginen Elkartea (ARTE), eta, beraz, berrogeigarren urteurrena du aurten; egun, 47 bazkide dira, baina atek irekita dituzte zura lantzen ikasi gura duen edozeinentzat; hala, hastapen ikastaroak ari dira eskaintzen asteotan

## Eneko Azurmendi ARRASATE

"Gure egunerokoa da hau, egur artean bizi gara". ARTEko egungo presidentearen berbak dira, Iñaki Kortabarriarenak. Izan ere, berrogei urte luzeren ostean, osasuntsu dirau elkarteak.

Askotariko profilak dituen jendea dute taldean. "Arotz profesionalak izandakoak bai, baina baita elektrikariak, mekanikariak, bulegariak eta abar ere", azaldu du Kortabarriak. Horrek agerian uzten du tailla edozeini zuzendutako jardura izan daitekeela eta, era berean, baduela erakargarria den zerbait. "Lan bat bukatzean sortzen den poztasun hori ederra da, asebeteta geratzen zara. Horrez gain, arlo fisikoak zein mentalak lantzen dira; irudimena, esaterako. Adinez nagusia den jendea ere badugu, eta haiendako funtsezkoa da sormena lantzea".

## Emakumeei dei berezia

Egun 47 bazkide diren arren, guztiak gizonezkoak dira, eta onartu dute emakumezkoak gustura hartuko lituzketela taldean. "Egon izan dira emakumeak, baina gaur egun guztiok gizonezkoak gara. Horregatik, emakumeak erakarri gura ditugu, gutxienez, ezagutu dezaten tailla mundua gertutik", dio Joxe Urteaga elkarteko kideak.

## Ikastaroak eskaintzen dituzte

Zura lantzen ikasi gura duen edonorentzat atek zabalik dituzte une oro, eta horren era-

## "ARLO FISIKOAK ZEIN MENTALAK LANTZEN DITUGU; IRUDIMENA, ESATERAKO"

IÑAKI KORTABARRIA, PRESIDENTEA

kusgarri dira azken asteotan ematen ari diren ikastaroak. "Oinarrizko maila duen batek ez du arazorik edozein eskulan egiteko, baina hutsetik hasten diren horientzat hastapen ikastaroak eskaintzen ditugu, apurka ikasten joan daitezten", zehaztu du Kortabarriak. Hala, hiru mailatan dituzte banatuta ikastaroak: hastapenekoak, hobekuntzakoak eta goi mailakoak. "Orain, hastapen ikastaroarekin ari gara, urtarrilean hasi eta otsail erdi ingurura arte". Astelehen, eguzten eta egubakoitzetan elkartzen dira, 17:30etik 19:30era, elkarteen lokalean (Araba etorbidea, 13). Gero, hastapen ikastaroa jaso eta ikasten jarraitu gura duten horiei hobekuntza ikastaroak emango dizkiete. Intereza duenak bi telefono zenbaki hauetara deitu dezake: 628 05 50 84 edo 652 74 09 18.



Mattin Amondarain, eskulan batekin, elkarteko beste kide batzuekin. ARTE

## Mattin Amondarain, sortzaile nagusi

Mattin Amondarain izan zen ARTEren sortzaile nagusia, eta taillagin ofizioa herrian ezagutarazteko asmoz sortu zutela nabarmendu du Kortabarriak. "Amondarainekin batera ibili ginen lau bat pertsona geratzen gara taldean", gaineratu du egungo presidentek.



1988ko santamasetan elkarteak egindako erakusketa. ARTE

## Urteurrena ospatzeko, erakusketa

80ko hamarkadan hasita, hainbat erakusketa egin izan ditu ARTEk. Irudian, 1988ko santamasetakoa. Azkenak 2003an, 2008an eta 2018an egin dituzte eta aurten ere egingo dute bat, berrogeigarren urteurrena ospatzeko –data zehazteke dute–.

## Geroz eta modalitate gehiago

Elkarteko kideek nabarmendu dute "garapen" bat izan duela elkarteak urte hauetan guztietan, geroz eta modalitate gehiago jorrotzen baitituzte: "Euskal tailla eta tailla geometrikoa lantzen jarraitzen dugu, baina

## "GIZONEZKOAK GARA GUZTIOK; BEHAR DITUGU EMAKUMEAK ERE ELKARTEAN"

JOXE URTEAGA, ELKARTEKO KIDEA

baita eguneroko lantresnak, erliebeak, eskultura tradizionalak, eskultura modernoak eta bestelakoak ere".

Eskulanei askotariko erabilerak ematen dizkiete. Batzuk oparitu egiten dituzte, beste batzuei erabilera praktikoa ere ematen diete, koilarek edota kaikuei, adibidez, eta "kuttunenak" etxera eramaten dituzte, apaingarri moduan jartzeko. "Norberak mimo handiz egindako eskulana bada eta ondo geratu bada, etxean ondo gordetako txokoren batean jartzen dugu".

## ARRASATE HERRI ESKOLA:

[zuzendaria@arrasatehe.eus](mailto:zuzendaria@arrasatehe.eus)

### HAUR HEZKUNTZA (2-5 urte)

#### BEDOÑABE

Alfonso VIII 1  
Tel.: 943 79 20 69

#### MUSAKOLA

Elkano 10  
Tel.: 943 79 04 49

### LEHEN HEZKUNTZA (6-12 urte)

#### ERGUIN

Uribarri Auzoa 36  
Tel.: 943 79 77 74

## ARRASATE BHI:

[zuzendaria@arrasatebhi.net](mailto:zuzendaria@arrasatebhi.net)


### DBH (12-16 urte)

Elkano 24  
Tel.: 943 89 94 78

### BATXILERGOA (16-18 urte)

Santa Teresa 25  
Tel.: 943 89 94 78

Bideoa ikusgai:



# GOXOTASUNEZ ERAIKITAKO KALITATEZKO ESKOLA

→ MATRIKULAZIOA:  
URTARRILAREN  
17TIK 28RA

ORDUTEGIA:  
09:00 - 18:00



## Guztion eskola, guztion artean

# Partidurik galdu ez duen 'oilarra' dator Mojategira

Zapatuan (16:30) Mojategin bisitari izango den Elgoibarrek oraindik ez daki ligan partidu bat galtzea zer den, eta, hala ere, ez dira kategoriako liderrak. Touring dago aurretik, eta, hain zuzen, Mondra da liderrari aurre egin dion talde bakarretakoa

## Xabier Urzelai ARRASATE

Kategoriak jaitsi berri den Elgoibarrek oraindik ez du partidurik galdu. "Touringekin batera Elgoibar da, orain arte ikusitakoaren arabera, koska bat gorago dagoen taldea. Touring irabazteko kapaz izan ginen, eta normalena da Elgoibarrek lehenago edo geroago ere partidu bat galtzea; ea gure kontra den", dio Cristian Levissek, Mondra entrenatzaileak.

Hala, halako kontrario baten aurrean garbi dauka ezin dutela burua galdu: "Uste dut halako partiduak naturaltasunez hartzea dela onena. Eibarren kontra ikusi genuen larregiko motibazioak ez digula mesederik egiten, hanketan pisu handiegia sumatu genuen orduan, eta, esaterako, uste dut UDaren kontrako derbian hori hobeto kudeatu genuela".

## Koronabirusak, tregoa

Levissek hainbat jokalarik ditu min hartuta, baina Elgoibarren kontrako partiduak nahiko ondo prestatu ahal izan dutela nabarmendu du: "Gabonen bueltan dezente zigortu gintuen COVID-19ak, baina aste honetan tregoa moduko bat izan dugu, ez dugu taldean gorabeherarik izan, eta eskertzekoa da, gainera.



Elgoibarren kontrako partiduan, iazko otsailean. I.SORIANO

## "ELGOIBARREN KONTRA NATURALTASUNEZ JOKATU BEHAR DUGU, ZORATU BARIK"

Talde arrasatearra bosgarren dago sailkapenean, eta mailari eusteko borrokan baino gehiago goiko postuen saltsan ibil daitezkeela ikusi dute, nahiz eta orain arteko berdinketa kopuruak ez dien mesederik egin.

"Egia da hori nahiko erlatiboa dela. Esaterako, Ordiziaren edo Allerruren kontra berdindu ginen partiduak irabaztekoak izan ziren, eta berdinketa motz geratu zitzaigun. Kontrara, Bergararen kontra berdindu izan bagenu... Urre zaporea izango zuen berdinketa horrek. Hor dago Elgoibar, berdinketa askorekin, baina aurre-aurrean. Ez galtzea beti da positiboa, baina bai, egia da liga amaieran berdinketa horiek pena ematen dituzela, puntu bat sari txikia izan daiteke".

## Mugarri Ingou azken ordukoaren zain dago

Arrasatekoek Corazonistasen kontra jokatu behar dute bihar, baina COVID-19 kasuak daude tartean

## X.U. ARRASATE

Atzo, eguena, Mugarri Ingouren eta Corazonistasen arteko partiduak kolokan zegoen oraindik, Arrasateko taldeko arduradunak Federazioaren azken ordukoaren zain zeuden. "Berez, zapatuan 17:00etan dugu partidua, baina, joan den astean gertatu moduan, oraingo astean ere koronabirus kasuak izan dira tartean eta azken erabakiaren zain gaude", adierazi dio GOIENARI Ane Herrorek.

Hain zuzen, azken asteotan koronabirusa talde guztien kon-

trario nagusi bilakatu da, positiboak han eta hemen izan dira eta. Eta Mugarri Ingouri jaitsierra fasea hasi berrikan eragin dio pandemiak. Joan den astean atzeratutako partiduak urtarilaren 29an jokatuko dute, baina zapatukoa atzeratzen badute norgehiagoka aste barruan jokatuko beharko dute: "Fase gogorra izango da, multzo gogorra tokatu zaigulako. Baina taldea aste barruan oso ondo ari da entrenatzen, motibatuta gaude, eta ea ondoren lan hori kantxara eramateko kapaz garen".

## MUK Leioaren kantxan defendatuko du hirugarren postua

Joan den asteko garaipenarekin (82-76 Ulaciaren kontra) Mondragon Unibertsitatea EBako hirugarren postuan egonkortu da, Baskoniaren eta Santurtziren atzetik. Bitxia da, moreen bihar (18:30, Leioa) kontrarioak ligan irabazi dituen lau partiduak etxetik kanpora irabazi ditu, etxean jokatutako denak galdu dituzte.



Sergio Iglesias. IMANOL SORIANO



ARRASATE ATLETIKO

## Arrasate Atletikokoak, martxan

Urtea hastearrekin batera hasi dituzte pista estaliko denboraldiko txapelketak, eta joan den asteburuan Arrasate Atletikoko kuadrilla polita –hogei lagun– Anoetan izan zen, parte hartze libreko probetan esku hartzen. Oraingo asteburuan, Euskadiko klubaren arteko txapelketa egongo da jokoa, belodromoan bertan.

## Orain arte egindakoa, datuetan

### Garaipenak eta porrotak, berdin

Orain arte jokatutako 17 jardunaldietatik 7 partidu irabazi dituzte, 7 berdindu eta hiru galdu. Berdinketa kopuru horrek asko zigortu du talde zuri-morea.

### Defentsan, sendo

18 gol egin ditu Mondrak, eta 13 jaso. Elgoibar, Eibar, Bergara

eta Touringekin batera gol gutxien jaso dutenak dira.

### %92, etxeokak

Lehenengo itzulian, Cristian Levissek 26 jokalarik erabili ditu; horietatik 24 arrasatearrak dira.

### 8 urte klubean

Jokalarien artean klubean daramatzaten urte kopurua, batez beste, 8,07koa da.

### Talde gaztea da

Taldeko jokalarien adinaren batez bestekoa 23 urtekoa da. Zarautzen kontrako partiduan atera zuten hamaikako gazteena (21,9).

### Bost jokalarik debuta

Aurtengo denboraldian, oraingoz, debuta egin dute Pascualek, Xoxin-ek, Txito-k, Arizagak eta Errastik.

# Euskaltzale eta artisau nekaezina agurtu dute

Danel Goikoleari Aldai parkean eginiko hileta zibilean lagun ugari batu ziren martitzen arratsean; txalapartariak, dantzariak eta bertsolariak lagun dutako ekitaldia tristuratik baino gehiago umoretik jorratu zuten senitartekoeak, "Danelen izaera horrelakoa zelako"

**Hasier Larrea** ARRASATE

"Bizitzak jarraitu egin behar du eta guk hori egingo dugu, guk jarraitu egingo dugu. Eskerrik asko denoi!". Hori esanez amaitu zuen hileta zibileko hitzartzea Danel Goikolearen anaiak, Jonek. Jende ugari batu zen ekitaldian, Goikoleak 52 urtetan zehar egin-dako ekarpenaren seinale.

Haren aita Patxik sartu zion euskalgintzan murgiltzeko harra. Almen bertso eskolako eta AEDko partaide izan zen gaztetan Goikolea. Bertsolari zela "egunero jolas" zuela aipatu du bere lagun Amaia Gabilondok: "Tabernako izkina batetik barrura sartzen zen edonori bertsoa botatzeko gai zen, bat-batean". AEDko kide Itxaro Artolak eta Iban Lazkanok adierazi dute Iparraldeko euskaltzaleekin harreman estua egin zuela Hegoaxe taldearen bitartez. "Herri Urratsen eta Seaskaren alde lan handia egin zuen", dio Lazkanok.

**Artisaua, ezereen gainetik**

Bere sormena eskulanak egitera bideratzea gogoko zuen Goikoleak. Tailer ugari aritu zen herrigintzarako pertsonaiak eta apaingarriak sortzen; bere eskuetatik irten ziren, besteak beste, SUDC elkartearen jaietarako karrozak, Txikilandiako



Hileta zibilean, bertsoak pantailan eta argazkia erdian, lore sortekin. XABI URZELAI

apaingarriak, Txatxilipurdiren Eguzkilaru eta Ilargitxo pertsonaiak eta Arrasate Herri Eskolako Buztantxo maskota.

Antzerkigintza, ikus-entzunezkoak eta arte garaikidea ere jorratu zituen; horren adierazle dira *Oiloloke Xoua* eta *Top Manta* antzezlanetan, *Mikeltxoren abenturak* esketx-muntaian, Arrasate Telebistarako karaokean eta herriko paretak margotzeko Muralart kolektiboan parte hartu izana, esaterako.


Kazetaritza ikasitakoa, *Egin* egunkarian egin zituen lehen

urratsak, eta, gerora, sindikalista eta Mankomunitateko langilea ere izan zen.

**Azken agurra, bertso bidez**

Urtarrilaren 4an Goikoleak berak Xanti Iparragirre omendu zuen bezala omendu zuten Goikolea Aldai parkean elkartutakoek; bertso sorta eskainiaz, alegia. Ekitaldian zehar, Danel berak etxekoei abestutako bertso baten audioa entzun zen, eta Almeneko bertso eskolako lagunak taula gainean zirela kantatuz amaitu zuten ekitaldia.

## Nola gogoratzen duzu Danel?




**AMAIA GABILONDO**  
GARAION

"Txatxilipurditik sortutako Garaion proiektuan hasieratik ibili zen buru-belarri. Ozetako espazio hau sortzaile sena garatzeko amets bat bezala ikusten zuen berak. Izan ere, 30 urtean zehar auzolana bultzatu du beti, izan udalekuetako sukaldari, laguntzaile edo zuzendaritzako partaide".



**IXIDRO ARRIETA**  
LAB SINDIKATUA

"2015 eta 2019 urteen artean aritu zen LABeko ordezkari, Mankomunitatearekin zubi-lanak egiten eta abar. Herri mugimenduan aritzen zen edonork ezagutzen zuen; bat-batekoa, alai eta ganberroa zen, baita lanean ere. Arazoak konpontzen laguntzeko beti zegoen prest, oso hurbilekoa genuen".



**IBAN LAZKANO**  
AED

"Iaia zen ideiei zukua ateratzen. Dirua ateratzeko tonbola, zaborra lurretik jasotzeko egurrezko tramankulua... Egiten zuen edozer gauzarekin lortzen zuen arrakasta. Iparraldekoekin harremana estutzeko Hegoaxe taldean asko inplikatu zen; Seaskakoak harrizta zeuden zenbat lan egiten zuen".



**KEPA ALTUBE**  
MURALART

"Aisialdian egiten genuen lan, ederto pasa dugu elkarrekin. Aldamio gainean paretak margotzen egunero hamar orduz aritu ostean, atsedean hartu beharrean beti zegoen hurrengo proiektua nola egin pentsatzen. Akabera gabeko torlojuja zen, berak ematen zuen energia guztia benetan eskertzekoa da".

## Zatoz gu ezagutzera

**Eskola txikiak,  
familia giroan**

**Deitu hitzordua  
hartzeko.**

**Arrasateko  
HAURRESKOLAK**



**MUSAKOLA** haurre eskola  
Elkano 8 • Tel.: 943 79 13 03

**BEDOÑABE** haurre eskola  
Alfontso VIII 1 • Tel.: 943 79 76 86

**ARRASATEKO UDALA**  
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

**EUSKO JAURLARITZA**  
DEPARTAMENTU BILA  
**GOBIERNO VASCO**  
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

# 'Birusarekin nola bizi', elkartegiko lehen saioa

Arabako Aldundiak antolatzen duen programaren barruan, Fernando Gomez-Busto mediku geriatrak hitzaldia egingo du martitzenean kultura etxean. Erretiratuen elkartetik adierazi dute ez dela aurrez izenik eman behar saioan parte hartzeko

## Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO

Arabako lurralde historikoko 55 urte baino gehiago duten pertsonendako programa soziokulturala jarri du martxan Arabako Aldundiak. Aramaiok ere programan parte hartuko du eta Aldundiak antolatzen dituen zenbait hitzaldi edo ekintza herrian egingo dira.

Alaiak erretiratuen elkarteak ibili da programa osatzen. "Aldundiaren proposamena jaso genuen, eta euren programan jasota zeuden hainbat hitzaldi aukeratu genituen. Horietako batzuk izango dira Aramaion eskainiko dituztenak", azaldu du Alaiak erretiratuen elkarte presidentea Migel Loitik.

## Urtarrilaren 25ean

Lehenengo saioa martitzenean izango da, urtarrilaren 25ean. *Birusarekin bizitzea, nola eta noiz arte?* izango da hitzaldiaren gaia, eta Fernando Gomez-Busto mediku geriatrak eskainiko du, 18:00etan, kultura etxean. "Pandemia garai honetan nola

## +55 elkartegiak

### Egitaraua.

- **Otsailak 15.** *Gure zoru pelbikoa lantzen ikasi (I).* Ania Ibisate fisioterapeutarekin.
- **Otsailak 22.** *Gure zoru pelbikoa lantzen ikasi (II).* Ania Ibisate fisioterapeutarekin.
- **Martxoak 15.** *Oinordetza eta testamentua,* Ana Mendia abokatuarekin.
- **Martxoak 29.** *Las abuelas son guerreras* antzezlan.

Oharra: hitzordu guztiak 18:00etan izango dira, kultura etxean.

bizi, egungo egoera... azalduko du. Araban hitzaldi asko ematen dituen mediku ezaguna da Gomez-Busto", dio Loitik.

Alaiak erretiratuen elkarteak euskarazko hitzaldien aldeko apustua egin zuen aukeraketa egiterakoan: "Medikuak euskaraz daki, baina etorriko den jendearen arabera euskaraz edo gazteleraz izango da hitzaldia".

### Jarraipena izango du

Pandemiaren gaineko hitzaldien ondoren, otsailean izango da hurrengo saioa: zoru pelbikoa lantzeko bi saio egingo dituzte: otsailaren 15ean eta 22an. Ania Ibisate fisioterapeutak eskainiko ditu bi saioak.

Martxoaren 15ean, oinordetza eta testamentuaren inguruko hitzaldia egingo du Ana Mendia abokatuak. Zikloa, aldiz, antzerki batekin amaituko dute: Tania teatro taldeak *Las abuelas son guerreras* antzezlan egingo du. Zahartze aktiboaren inguruko lana izango da, umore ukituarekin.

## GORA ETA BEHERA



## Eskolako patioan sua egin dute asteburuan



Aste bukaeraren ondoren horrela agertu zen patioa: erratsak, paperontziak erreta... Udalak ekintza gaitzetsi du, eta eskolaren azpian sua egiteak ekar ditzakeen ondorioez ohartarazi.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) edo 688 69 00 07.

## Transexualitateaz jardungo du Naizen elkarteak eguenean

Haurren transexualitatea ulertu eta bidelagun izateko argibideak eskainiko dituzte, hilaren 27an, 18:00etan

### A.E.G. ARAMAIO

Gorbeialdeko Berdintasun Sailak antolatuta, haurren eta gazteen transexualitatea izango dute berbagai datorren astean. Naizen elkarteak egingo du hitzaldi-solasaldia eta hainbat argibide emango dituzte haurren transexualitatea ulertu eta bidelagun izateko.

Urtarrilaren 27an, eguena, izango da saioa, kultura etxean, 18:00etatik 20:00etara.

2015ean sortu zuten Naizen elkarte Arabako, Gipuzkoako, Bizkaiko eta Nafarroako zortzi

familiak. Gaur egun, 100 familiarik gora dira elkartean. Elkartearen helburuak dira: haur eta gazte transexualen familiei transexualitatearen inguruko laguntza eta heziketa ematea; haur eta familia horien errealitatea ezagutzera ematea, beraien eskubideen eta aldarrikapenen zabalkundea eginez; hezkuntzako profesionalentzako informazioaren transmisioa eta trebakuntza; eta, adin txikiko transexualen eskubideen eta interesen defentsa eremu guztietan egitea.

## Odol-emaileen elkarteak eskerrak eman dizkie guztiei

Urtarrilaren 14an, Aramaion izan zen Arabako odol-emaileen autobusa. Hain zuzen, 16 odol-emate izan ziren. Nabarmendu dute horietatik hiru odol emaile berriak izan zirela. Elkartetik eskerrak eman nahi dizkiete odola ematera joan ziren guztiei –18 joan ziren, guztira–, eta hurrengoetarako animatu ditu herritarrak.

## 2021ean, zazpi haur jaio ziren, eta bederatzi pertsona hil

Zazpi haur jaio ziren 2021ean Aramaion, eta hil, aldiz, bederatzi pertsona hil ziren: horietatik bost gizonezkoak eta lau emakumezkoak izan ziren. Erroldako datuen arabera, 2021eko abenduaren 31n 1.441 biztanle zituen Aramaiok. 2020ko abenduaren 31n 1.477 zituela kontuan hartuta, Aramaiok biztanleak galdu ditu 2021. urtean.



Fernando Gomez-Busto medikua. 'ELGLOBAL.ES'



# Gustuko jarduerak, familian eta euskaraz

Mintzalagun egitasmoaren barruan sortutako Gurasolagun programaren barruan, hilero mendi buelta bat egingo dute. Etzi, domeka, Beluntzako ur-jauzietara joango dira; bi ordu inguruko txangoa egingo dute, umek samur egiteko modukoa

**Arantzazu Ezkibel Galdos** ARAMAIO  
Gorbeialdeko Gurasolagun egitasmoaren barruan, Beluntzako ur-jauzietara egingo dute ibilaldia etzi, domeka. Urkabustaizen elkartuko dira, 11:00etan, Izarrako frontoiko aparkalekuan. Bi ordu inguruko txangoa izango da, haurrek samur egitekoa.

## Gurasolagun zer den

Gorbeialdeko Mintzalagun egitasmoaren barruan dagoen programa da Gurasolagun. Helburua da familiak –guraso eta ume– elkartu eta euskaraz lasai eta eroso aritzeko espazioak sortzea, gustuko jarduerak eginez, edo, besterik gabe, elkarrekin egonez.

2021eko irailaz geroztik dago martxan programa. Gaur egun, 13 familia daude taldean. Hala ere, antolatzaileek diote inork parte hartzeko aukera izanez gero badagoela horretarako aukera. Ikasturtea bukatu arte dago zabalik izen-ematea. Parte hartu gura duenak programako



Gurasolagun programako familiak San Bittorren. JONE GOITIA

## IKASTURTEA AMAITU ARTE DAGO ZABALIK IZEN-EMATEA. HILERO EGINGO DUTE MENDI BUELTA BAT

koordinatzailearekin harremanetan jarri beharko du, 662 12 02 09 telefono zenbakira deituta edo [mintzalaguna@gorbeialdea.org](mailto:mintzalaguna@gorbeialdea.org) helbidera idatzita. Gurasolagun programan parte hartu ahal izateko eskatzen duten

bakarra da euskaraz ulertzeko gaitasuna izatea.

## Mendi ibilaldiak

Gorbeialdea ezagutzeko aukera eskaintzen du programak; eta ez hori bakarrik, baita familian

Lehenengoa Zigoitian egin genuen, Letonatik San Bittorrera, ordubete ingurukoa. Erabaki dugu hilero herri ezberdin batean egitea ibilaldia. Hala ere, lehenengo irteera hartan izena emandako familiak baino gehiago elkartu ginen.


## Aramaion ere egingo duzue?

Bai, hala egiteko geratu ginen. Hilabete bakoitzean familia batek hartuko du testigua. Familiak ongiatorriak izango dira.

## "Ingurua eta jendea ezagutzeko modu egokia iruditzen zaigu"

JONE GOITIA GURASOLAGUN-EKO KIDEA

Jone Goitiak Gurasolagun programan parte hartzen du familiarekin batera.  
**Zergatik erabaki zenuten egitasmoan parte hartzea?** Eskolan zabalduko ohar baten bitartez izan genuen egitasmoaren berri. Interesgarria iruditu zitzaigun; izan ere, orain dela pare bat urte etorri ginen Aramaiora bizi izatera, Arrasatetik. Beti jo izan dugu Arrasatera, eta Gorbeialdea ez dugu horrenbeste ezagutzen. Ingurua ezagutu eta jendea ezagutzeko modu ona iruditu zitzaigun, eta, euskaraz bada, hobeto. Gainera, antzerako gustuak dituzten familiak ezagutzeko balio du.  
**Nola antolatzen dituzue irteerak?** Lau familia elkartu ginen, bakoitza herri batekoa.



J.G.

euskaraz egun ederra pasatzeko aukera ere.

Lehenengo irteera Zigoitian egin zuten, Letonatik San Bittorrera egin zuten ibilaldia. Asmoa da hilero mendi buelta bat egitea.



A.T.F.

## Areto futbolekoak, Gasteizen

Aramaixo Tropikala Futbol taldeak Gasteizen jokatu du ligako zortzigarren jardunaldia, Bar Turismo taldearen aurka. Lehia domekan izango da, 12.45ean, Olanarben. Aramaioarrak zilarrezko ligako sailkapeneko bigarren tokian daude, 18. punturekin, Dinamo Lakuabizkarra liderrak baino puntu bat gutxiago dute.

## Ohitura zaharrei utsiz, eztarri gozoz eta umore onez

Santa Ageda batzerako entsegua aire zabalean egingo dute, hilaren 27an, udaletxeko arkupean, 19:00etan

## A.E.G. ARAMAIO

Ohitura zaharrei utsi gura diete herriko hainbat eragilek; hori horrela, aurten, Santa Ageda batzea egitea adostu dute. Aramaixoko Bertso Eskolak, Papargorri Abesbatzak, Triki Kalejira Trikitixa Eskolak eta Alaiak Jubilatuta Elkarteak antolatuta, herriko baserri eta kaleak koplaz beteko dituzte otsailaren 5ean, zapatua.

Santa Ageda batzea egin aurretik, bi entsegu egingo dituzte. Egungo osasun egoera kontuan hartuta aldaketa batzuk egingo



Santa Ageda kantuan. GOIENA

dituzte bai entseguetan eta baita egunean bertan ere. Hala, entseguak aire zabalean izango dira, udaletxeko arkupean. Urtarrilaren 27an, eguna, eta otsailaren 3an, eguna, egingo dituzte entseguak, 19:00etan.

Egunak berak ere izango ditu aldaketa txiki batzuk: otsailaren 5ean, 09:30ean elkartuko dira, plazan, eta goizez bakarrik egingo dute Santa Ageda batzea. Aurten, gainera, ez dute bazkaririk egingo. Betiko bi ibilbideak egingo dituzte, eta, kaleko batzea ere goizean egingo dutenez, hiru taldetan banatuta ibiliko dira kantuan.

Parte hartu gura duenak izena eman dezake [labur.eus/santaageda](http://labur.eus/santaageda) inprimakia beteta. Eztarri gozoz eta umore onez daudela erakutsiko dute aramaioarrek, beste behin.



Korrikan taldeko kideak martitzenean: Maddi Garro, Oihane Sarasketa, Virginia Goienetxe eta Jaione Mendikute. MIRARI ALTUBE

## Arineketan egitera, taldearen babespean

Korrika taldea sortu dute aurtengo ikasturtean Ibarra kiroldegian. Oihane Sarasketa monitoreak lagun eginda hainbat adinetako bost emakume joaten dira takarraran egitera martitzen eta eguen iluntzeetan, eta taldearen atek zabalik dituzte

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Emakumezkoek osatutako korrika taldea eratu dute Ibarra kiroldegian, eta Athloneko monitore Oihane Sarasketa korrikalari eibartarrak gidatuta dihardute lanean udazkenaz geroztik. Gaur-gaurkoz, bost kidek osatzen dute talde hori-argazkian, hiru eta monitoreak eta martitzen eta eguenetan

elkartzen dira, 19:00 bueltan. Debalde da jarduera Ibarra abonatuendako, eta taldeko atek zabalik dituzte probatu gura duenarentzat.

**Norberaren erritmora**

Bidegorria dute korrikarako pista une honetan, eta Esko-riatzarantz edo Arrasaterantz joaten dira. "Ea eguna luzatzen

hasien den eta Urkulura igotzen hasten garen, hainbat ibilbide eta aukera daudelako", adierazi du Sarasketak.

Luzaketak eginez hasten dute eguneko saioa, eta gero, 35 minutu inguru egiten dute korrikan, berriro luzaketak eginda bukatzeko. Hainbat maila zehaztu dituzte, norberaren erritmora errespetatzeko: "Egun batzue-

tan, elkarrekin joaten gara guztiok, eta motelenaren abiadurara egokitu. Beste batzuetan, ostera, taldeka banatzen gara; saioaren zati bat elkarrekin egiten dugu eta beste minutu batzuk bi edo hiru erritmo ezberdinetara. Horrela, bi helburu betetzen ditugu: batetik, taldea indartzen dugu elkarrekin goazenean; eta, bestetik, norberak bere erritmoan jardun dezake". Era berean, teknika ere lantzen dute, pausoa zelan eman eta eskuak zelan luzatu ikasteko.


Entrenamendu saioa bakarrik izan ez dadin erronkaren bat edo beste ere finkatu dute: "Maiatzean izaten den Otala Zelai krosa jarri dugu jomuga. Horrez gain, Behobia-Donostia aipatzen ere hasi dira batzuk, baina, oraingoz, bertako proban hartuko dugu parte, eta gero gerokoak".

**Entrenatu eta ondo pasatu**

Emakumeak korrikan egitera animatzea du helburu taldeak, Sarasketaren esanetan: "Gero eta gehiago ikusten ditugu han eta hemen, baina oraindik, askotan, ez gara ausartzen bakarrik irtetera. Horregatik, taldearen babesa eskertu egiten da, eta neguan are gehiago, ilunetan jardun behar denean".


Horregatik, kirol hori gustuko dutenak probatzera gonbidatu gura ditu: "Askotan ematen diren arrazoiak beldurretik sortzen dira: 'Ni gutxi ibiltzen naiz'; 'Poliki egiten dut korrikan'... Jakin erritmo guztietara moldatzen garela eta edonork duela lekua. Elkar ezagutzeko, entrenatzeko eta ondo pasatzeko topagunea da. Eta txapelketetara edo probetara taldean joateko aukera izango dugu".

### Zergatik animatu zara?



**MADDI GARRO**  
KORRIKALARIA

"Orain dela urte batzuk hasi nintzen tarteka korrikan egiten, eta kuadrillako lagun baten arrimuan sartu naiz taldean, nahiz eta astean behin bakarrik etorri ahal izan. Motibatuta jarduteko lanean erronkatxo batzuk ere finkatu ditugu Otala Zelaiako krosean parte hartzea, esaterako".



**VIRGINIA GOIENETXE**  
KORRIKALARIA

"Lesakarra naiz, baina Arrasaten nabil ikasten, eta kiroldegira igeri egitera etortzen nintzen. Monitoreak animatu ninduen eta probatzea pentsatu nuen. Hasieran, erritmoa hartzea kosta egin zitzaidan, baina orain, oso gustura nabil; eta taldearen babesa beti eskertzen da".

## 'COVID ziurtagiria'-ren aurka sinadurak batzen dabilta

Bizitzakideak taldekoek mahaia jarriko dute gaur Herriko Plazan, 16:30etik 17:30era bitartean

**M.A.** ARETXABALETA

Bizitzakideak taldea sortu zuten Gabonen bueltan hainbat aretxabaletarrek, COVID ziurtagiria-ren derrigortasunak kezkatuta. Urtarril hasieran Arrasaten egindako manifestazioarekin

bat egin zuten, eta aste honetan sinadurak batzen dihardute; gaur, egubakoitza, Herriko Plazan jarriko dute mahaia (16:30-17:30).

Bizitzakideak taldekoek adierazi dute "jendartearen zatiketa

eta sektore baten bazterketa" eragiten duen neurria dela ziurtagiriaren derrigortasuna, "zerbitzu publikoetatik, kultur eta kirol ekintzetatik, osasun publikorako sarbidetik, zaharren egoitzetatik, ostalaritzatik... kanporatzen dituelako" txertatuta ez daudenak edo beste arazoirekin batengatik ziurtagirik ez dutenak. "Herriarrak diskriminatzen" direla uste dute, "jendartearen sektore baten kriminalizazioa bultzatuz". Gaineratu dute oinarriko eskubide batzuk

zapaltzen direla eta hainbat lege urratzen dituela.

Txertatu gabeak zein txertatuak gonbidatu dituzte adierazpena sinatzera, "herritarren arteko berdintasuna defendatzeko eta oinarriko eskubideen zapalkuntza salatzeko". Internet bidez ere egin ahal izango da, eta horretarako zein zalantza argitzeko, honako helbide honetara idatz daiteke: [bizitzakideak@gmail.com](mailto:bizitzakideak@gmail.com). Bilketa gaur bukatuko dute eta jasotako sinadurak udaletxean aurkeztuko dituzte.

**M**obiliario  
**A**RENAZA

**ALTZARIAK**  
**DISEINUA**  
**APAINKETA**

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA

# Urkulurako bidearen konpontze lanak, aurrera

Aretxabaleatik hainbat auzotara doan GI-3131 errepidearen zati batek beherantz egin zuen abenduaren 9ko euritearen ondorioz; hamabost metroko luzera eta zortzi metroko altuera dituen horma egonkortzeko lanetan dihardute orain

## Mirari Altube ARETXABAETA

Aretxabaleatik Urkulu urtegi-za zein inguruko auzoetara doan GI-3131 errepidea konpontzen dihardute joan den asteaz geroztik. Zati batek beherantz egin zuen abendu hasieran, eta harri-lubeta egiten dabilta horri eusteko.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren ardurapeko lanak dira eta hiru bat aste iraungo dute; ondo bidean datorren astean bukatuko dituztela jakinarazi dute. Orain arte, txandaka bideratu dute zirkulazioa, autoendako segurtasuna bermatze aldera, eta lanek iraun bitartean ere hala xe mantenduko dute.



Hondeatze-makina Urkulu urtegiako errepidea konpontzen. IRATXE BENGOA

## Hamabost metroko luzera

Iazko abenduaren 9an izandako euriteak hainbat arazo eragin zituen Aozaratza, Areantza, Goroeta eta Larrino auzoetara doan errepide horretan. 0,400 kilometro-puntuako zatiak, hain zuzen ere, beherantz egin zuen, eta hori da konpontzen dihardutena orain. Hamabost metroko luzera eta zortzi metroko altuera ditu konpondu beharreko hormak, eta lehentasunezko lanen artean sartu du Aldundiko Errepide Sailak. 45.000 euro inguruko kostua izango dute.

## Lur-jausia, konponduta

Ez zen izan, baina, euriteak errepide horretan eragindako arazo bakarra. Puntu hori baino metro batzuk beherago lur-jausi bat izan zen –lurraz gain, zuhaitz-enbor eta adar asko erori ziren–, eta autoendako itxi egin zuten hainbat orduz. Hori jakin, eta laster ekin zien Aldundiak garbitze eta txukuntze-lanei; edozelan ere, zenbait auzotar haserre agertu ziren, errepidearen ordezko biderik ez zelako egokitu.

## Pailazoen oparitutako zuhaitzak hilaren 28an landatuko dituzte

Porrotzek eta Marimototsek *Amaren intxaurrak* emanaldia egingo dute gaur, egubakoitza –sarrerak agortuta daude–. Eta ondoren, intxaurrondoaren kimua oparitutako diete umeei –atzoko emanaldian egindako legez–. Heriotzaren gaia lantzea da ikuskizunaren helburua, eta, hori osatzeko, zuhaitza landatzea bizitzaren eta heriotzaren sinbolo gisa. Udalak bat egin du ekimenarekin.

Oparitutako kimuak Algara ludotekako hezitzaileek jasoko dituzte umeen izenean, eta, hain zuzen ere, umeak izango dira protagonista urtarrilaren 28an egingo duten landaketa ekitaldian; trenbide zaharraren berdegunean izango da –bidegorriaren ondoan, Santakurtz kalearen atzealdean–, 17:30ean. Musika eskolako dantzariak agurra dantzatuko dute, eta Lekaixoka bertso eskolako kideek egindako bertso bat abestu. Bukatzeko, *Amaren intxaurrak* ikuskizunaren abesti bat dantzatuko dute.



**Pausoka**  
haur eskola

**0-3**  
urte

## Etorri eta ezagutu!

Izen-emate epea: **Urtarrilaren 17tik 28ra**

**Hitzordua hartzeko deitu.**

*Pandemia egoera dela eta, ezinbestekoa da hitzordua eskatzea.*

943 77 03 77  
pausoka.he@gmail.com  
[www.pausoka.eu](http://www.pausoka.eu)

619 44 95 97

Belorrieta 8 • 20550 Aretxabaleta

zeuria  
zeuena  
geuria



# "Intentsitatera egokitzea izango da lehen pausoa"

OIER AZKUNAGA ARETO FUTBOLEKO JOKALARIA

Bigarren B mailako Lauburu-Ibarra taldeak fitxatu du jokalaria aretxabaletarra. Lesio bat pasa berri, jokatu egin nahi du, eta erronka berriarekin ilusionatuta dago

Imanol Beloki ARETXABALETA

20 urteko gaztea bada ere, ibilbide oparoa izan du azken urteetan Oier Azkunaga aretxabaletarrak areto futboleko. Eskoriatza Kirol Elkartearen areto futboleko eskolan aritu ostean, Aretxabaletako UDA klubera joan zen futboleko jokatzera, eta gero, berriz Eskoriatzara bueltatu zen. Bertan, kategoriaz kategoriaz igo da mailaz, kadeetatik lehen taldera iritsi arte. Hala, maila nazionalean egin zuen iazko denboraldia Azkunagak, eta orain, bigarren B mailan jokatzeko ateak ireki dizkiote. Etapa berria ilusioz hasita, ikastea da bere helburua, eta kategoria honetako intentsitatera ohitzea dela lehenengo pausoa adierazi du.

**Lauburu-Ibarra taldeak fitxatu zaitu. Aukera aparta kategoria berri bat probatzeko, ezta?**

Iazko denboraldia amaitu zenean, udan, Lauburu-Ibarra taldeko entrenatzailearekin jarri zen harremanetan Eskoriatza Kirol Elkartearekin hitz egin ondoren, eta proposamenari ezin nion ezetzik esan. Eskoriatza maila nazionalean ari da, kategoria bikaina da, baina gogoan nuen bigarren B mailan jokatzeko, eta argi nuen erabakia. Hala ere, Eskoriatzako taldea uzteak pena pixka bat eman dit.

**Etapa berria hasi berri duzu, baina lesio gogor batetik zatoz. Dagoneko errekuuperatuta?**

Iaz, maiatzean lesionatu nintzen partidua batean jaurtiketa bat egiten ari nintzela. Aurreko zuzena koardizepsa hautsi nuen, eta handicap horrekin Lauburu taldean hasi, eta gutxira, abuztuaren 14an, berriz hautsi nuen tendoia, eta gaur arte. Entrenatzen aritu naiz, errekuuperatzen, eta minutuak jokatzeko gertu nago. Hori da lehenengo pausoa, maila honetako intentsitatera egokitzea. Gero, maila honetaz disfrutatuta nahiko nuke; hala



Oier Azkunaga, Lauburu-Ibarra taldeko kamisetarekin. LAUBURU-IBARRA

## "SAILKAPENEO GOIKO POSTUENGATIK BORROKAN ARITZEN DEN TALDE SENDOA DA LAUBURU-IBARRA"

ere, kontuz, berriz ez dut lesionatu nahi eta.

**Joan den hasteko deialdian izan zinen, baina ez zenuen partidua jokatu. Asteburu honetan izango dituzu minutuak?**

Denboraldiko bigarren buelta hasi berri da, eta, hasieran, maila eta taldera egokitzea da asmoa. Zapatuan, Bastida taldearen aurka dugu, aurten mailaz igo den taldea. Beraz, aukera aparta da neure burua probatzeko, eta gustatuko litzaidake jokatzeko, baina hori entrenatzailearen erabakia da.

**Eta nolakoa da Lauburu taldea?**

Bigarren B mailan urte asko daramatzen taldea da, eta ia denboraldi guztietan ari da goiko postuengatik borrokan. Bigarren mailara igotzeko *play-off*-a ere jokatu izan du, eta helburu horri eutsiz proiektu berria abiatu du. Izan ere, zenbait jo-

kalarik taldea utzi dute, eta uste dut talde sendoa osatu dutela. Nire kasuan, euskal selekzioetik ezagutzen ditut hainbat jokalaria, eta horrek nire alde egiten du; ea taldera ondo egokitzen naizen eta klubak dituen helburuak lortzen ditugun.

**Eskoriatza Kirol Elkarteak eman zuen zure fitxaketaren berri sare sozialen bitartez. Hitz ederrak eskaini zizkizuten, eta hori poztekoa da, ezta?**

Eskerrak eman zizkidaten urte hauetan taldean egindako lanarengatik. Zortetik onena opa didatela zioen mezuak, besteak beste, eta, beste talde batean jokatu dudaren arren, nire erronka berriarekin pozik daude. Eskertzeko mezua, duda barik. **Eskoriatza taldea, beraz, presente izango duzu?**

Hirugarren mailako goiko postuetan daude *play-off*-etan sartuta. Ea kategoriaz igotzen diren eta bigarren B mailan elkarren aurka jokatzeko aukera izaten dugun, gustatuko litzaidake. Horrez gain, lagunak ditut Eskoriatzan eta ateak irekita izango ditudala esan didate; beraz, etorkizunean ez dut baztertzeko Eskoriatzara bueltatzea.



Itziar Azpiroz, Naturaren leihoak lanaren egilea, erakusketan. MAIDER ARREGI

## Ama Lurretik sortutakoa zimeldu ez dadin, artea sortzera

Landare prentsatu, lehor eta naturako osagarri desberdinen konposaketak batzen ditu erakusketak

I.B. ARETXABALETA

Askotariko diziplinak batzen dituen artista da Itziar Azpiroz leitzarra, eta Aretxabaletako Arkupe aretoan *Naturaren leihoak* izeneko erakusketa jarri du; urtarrilaren 31ra arte ikusgai izango da.

"Ama lurak zentzumenak elikatu, emozioak biztu eta artea sortzera bultzatzen gaitu bere edertasuna zimeldu ez dadin". Hala deskribatzen du erakusketaren egileak, Itziar Azpirozek, Arkupeko erakusgelan jarri duen lana. "Naturak zentzumen guztiak elikatzen dizkigun moduan, artea egitera inspiratzen gaitu. Laburbilduz, naturak bizia islatzen du beti, eta inspirazioa ematen digu denerako. Horrez gain, omenaldi bat izango litzateke naturarekiko errespetuari, miresmenari, eta merezi duen eskerra adierazteko. Eta, bide batez, deialdi bat ere egiten du,

gizarteak kontzientzia zabalagoa izateko. Erakusketan ikusten den moduan, gauza txikienekin ere adierazi dezakegu naturak eskaintzen digun edertasuna".

**Askotariko konposaketak**

Erakusketak landare prentsatu, lehor eta naturako osagarri desberdinen konposaketak azaltzen ditu. Kolore, forma eta testura desberdinekin ama lurrarekiko lotura adierazten dute. "Iruñean, aparkaleku batean, adibidez, hostoak edo dena delakoa bildu eta prentsatu ditut, prentsaz edo liburu artean. Gero, kontraste moduan, Leitzako bazterretan batutakoekin, esaterako, pinaburu txikiarekin, beste nortasun bat eman diet. Forma, kolore eta testura ezberdinekin hiri eta herriaren arteko fusio bat egin dut. Eta azpimarratzeko da eguzki dindaiek ere protagonismoa dutela erakusketan".

## Oraindik badaude Bulego taldea ikusteko sarrerak

Zapatuan Ibarra kiroldegian eskainiko du Azkoitiko Bulego musika taldeak kontzertua. 19:00etan izango da emanaldia, eta udal webgunean *-aretxabaleta.eus-* daude sarrerak salgai, bost eurotan.

Askotariko diziplinak batzen dituzten 2019. urtean sortutako pop estiloko musika taldea da Bulego. Musikaren panorama

garaikideari so eginez eta gaur egungo beharrei erantzunez sortutako inizatiba bezala definitu izan da taldea; izan duen arrakasta ikusi besterik ez dago, pop dantzagarria eta energia positiboz bete eskaintzen du boskoteak, eta hori izango dute gozagarri Aretxabaletako emanaldira joaten direnek. Lehenengo eta bigarren diskoetako kantuak eskainiko dituzten arren, hirugarren diskoa izango da aurkeztuko dutena Aretxabaletan, *Erdian oraina* izeneko.



Joan den asteburuan Mazmela elizatean saiek erasotutako artaldeak; ardi bat eta bildots bat akabatu zituzten. IMANOL BELOKI

## Ardien erditzean sai sarraskijaleen erasoak

Ez da ezohikoa hildako animaliak jatea saiek, bailarako larreetan ganadua, ardiak eta abar daudelako, baina bizirik dauden animaliei ere eraso egiten diete. Hori gertatu zen joan den asteburuan Mazmela elizatean, eta ez da lehenengo aldia

**Imanol Beloki Unamuno** **ESKORIATZA** Saiak edo putreak hildako aberez elikatzen diren hegaztiak direla jakinekua da, baina izaten dira bestelako kasuak. Horren adibide da joan den asteburuan gertatutakoa. Egubakoitzean, hilaren 14an, Eskoriatzako Mazmela elizateko zelai batean ardi bat erditzen ari zela erasotu eta hil egin zuten saiek, jaiotzen ari

zen bildotsarekin batera, eta, handik bi egunera, domekan, urtarrilaren 16an, berriz, beste ardi bat, modu berean, erditzen ari zela, jaioberri zegoen bildotsa hil zuten, nahiz-eta bizilagun batzuek saiak uxatu eta ardia ez zuten akabatu.

Ez da lehenengo aldia sarraskijaleek animalia bizidun bati eraso egiten dietena, baina, kasu

honetan, duela bi urte ere jasan zuen artalde berak saien eraso. Hori horrela, "zer gertatzen da halako kasuetan? Nor egiten da artaldeak sufritu duen erasoaren kargu? Kalte-ordainak badaude? Nola jokatu behar du artzainak halako kasuen aurrean? Erreklamatzeko balio du ezertarako?...". Honako galdera hauek atera ditu mahai gainera Josu

Zurutuzak, Eskoriatzako Mazmela elizateko 60 ardi-buruen jabeak, joan den asteburuan bere artaldeak kalteak jaso zituen herritarrek.

### Erasoak, eguerdi partean

Hiru egunetan bi eraso jasan ditu Josu Zurutuza eskoriatzarraren artaldeak, eta, horregatik, egunotan ez die begirik kentzen ardiei. "Artaldeak izan zuen bigarren erasoaldian, bizilagun batzuek uxatu zituzten erasoan ari ziren saiak, eta eskerrak horri; bestela, ardi bat gehiago galduko nukeen, agian. Eman nuen gertatutakoaren berri, eta txosten bat egingo zutela erantzun zidaten. Lanketa hori egiteko aste honetan artaldea dagoen ingurura joango zirela esan zidaten. Beste lan batzuk tarteko ezin izan nintzen bertan egon... Seguru pasako zirela eraso gertatu zen gunea aztertzeraz, baina gutxi dago ikusteko bertan. Horrekin batera, azpimarratzekoa da, beste zenbait kasutan ere hala gertatu delako, 11:00etatik 14:00ak bitarteko ordua izaten dela erasoak izaten diren ordua sarritan; eguerdi partean, batez ere. Beraz, egun hauetan, ordu tarte horretan artalde ingurura joan behar izaten dut, zerbait gertatuko ote den beldurrez... ", adierazi du Josu Zurutuza.

### Gertatutakoa, jasota

Halako erasoak gertatzen direnean, aztertu egiten dituzte kasuak basozainek, Zurutuza adierazi moduan. Artaldearen jabeak kontatutakoarekin eta eraso gertatu den eremuan ikusten dutena jasotzen dutenarekin txosten bat bidaltzen dute Donostiara, Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Ingurunearen

Garapeneko Departamentura, basa-faunaz eta basa-floraz arduratzen den zerbitzura. Hala, Zurutuza bertatik erantzun bat jaso nahiko lukeela adierazi du, halako kasuak areagotuz gero kalteak ere areagotzen direlako, eta, normalean, kaltetua beti artzainak izaten dela argudiatuz.

### Karena gustuko

Saiak hildako animaliak jaten dituzte, normalean, baina animalien bat gaixorik, errenka edo gaizki ikusten badute, izan liteke horiei ere eraso egitea. Horrekin batera, ardia izan edo beste animalien bat, erditzen badago, saiek eraso egitea arruntagoa da; izan ere, jakinekua da saiek karenta (plazenta) gustuko izaten dutela, eta hori jatera joaten dira. Bide horretan kalte handiagoak eragin ditzakete.

### Norberak konpontzea, garesti

Artalde bateko jabe den artzainak halako kasu baten aurrean bere esku hartzen badu arazoa, eta sai bat hiltzea okurritzen bazaio, sai bakoitza hiltzeagatik 9.000 euroko isuna jaso dezake, baina Zurutuza argi du hori ez dela irtenbidea: "Nire ardiak salbatzearen ez nintzateke halako isun bat jasotzera arriskatu, ez dute hainbeste balio... Hala ere, arazo bat dugu ardi-jabeok, eta inguruetan gertatu diren kasuak zenbatzea, egoera aztertzea, eta zerbait planteatzea ondo legoke", adierazi du Zurutuza.

## HIRU EGUNETAN BI ERASO JASO DITU JOSU ZURUTUZA ESKORIATZARRAREN ARTALDEAK

## Irakurzaleei zuzendutako literatura solasaldiak abian dira

Datorren egunean, 18:00etan, kultura etxean, Agota Kristof-en 'Koaderno handia' liburua aztertuko dute

### I.B. ESKORIATZA

Euskarazko eta gaztelarazko liburuen gaineko literatura solasaldiak hasi dira berriro Eskoriatzan. Gidari lanetan Mikel Albisu eta Monika Leiva arituko dira, eta orain arte,

azken urteotan egin den moduan, partaideei liburu bat irakurtzeko proposamena egin eta irakurritakoaren gainean aztertzea, sakonago lantzea eta iritziak partekatzea izango da helburua.

Atzo, eguna, 18:00etan, gaztelarazko irakurketaren solasaldia izan zuten, Monica Leiva gidariarekin. Maria Gainza idazlearen *El nervio óptico* liburuen gaineko solasaldia egin zuten, eta datorren egunean, berriz, Agota Kristof-en *Koaderno handia* liburua aztertuko dute.

Egitasmo honen informazio gehiago nahi duenak *biblioteca@eskoriatza.eus* helbidera idatzi dezake, edo 943 71 31 35 telefono zenbakira deitu.

## OHARRAK

### Kiroldegia itxita

Atzo, eguna, ur sareko mozketa dela-eta kiroldegia itxita egon zen 12:30ak arte. Egin beharrekoak eginda, normaltasun osoz erabili ditzakete instalazioak erabiltzaileek.

### Derbia, ateak itxita

Eskoriatza areto futbol taldeak eta Mondratek zale barik jokatuko dute zapatuko partidua Manuel Muñozen (39. orrian informazio sakonagoa).

### Porrotx eta Marimotots

*Zorionak Marimotots* ikuskizuna izango da urtarrilaren 28an. Bi saio izango dira, baina sarrera guztiak agortuta daude.



Jon Plazaola umorista eta aktorea oholiza gainean, *Irabazi* antzezlanean. TXALO PRODUKZIOAK

## Ikus-entzuleen barrea "irabazteko" asmoz

Umore kritikoa, beltza, bakarrizketa urratzaile helburuarekin, eta euskaraz. Hori ardatz izanda, 'Irabazi' antzezlana ikusteko aukera izango da domeka honetan, 19:00etan, Eskoriatzako Zaldibar antzokian, Jon Plazaola aktore urretxuar ezagunaren eskutik

**Imanol Beloki Unamuno** ESKORIATZA Gabonetako oporraldiaren ostean, Eskoriatzako Kultura Sailak berriz heldu dio kultura agendari, eta urteari hasiera emateko aparteko proposamena ezarri du. Hain zuzen ere, hilaren 23an, domeka, *Irabazi* antzezlana izango da Eskoriatzan, Jon Plazaola umorista eta aktore ezagunaren eskutik. 19:00etan hasiko da ikuskizuna, eta sarrerak salgai daude, bost eurotan, Manuel Muñoz kiroldegian eta *bibe.me* webgunean.

### Plazaola, aktore ezaguna

Txalo Produksioak ekoiztetzearen *Irabazi* antzezlanean, Jon Plazaola da protagonista nagusia. Aktore urretxuarrak lan ugari egin ditu telebistan; *Alli abajo* telesailean sekulako arrakasta izan zuen Iñaki pertsoniarekin, baina Euskal Herrian ere egindako lanengatik oso ezaguna da: *Barre librea* bakarriketen programako aurkezleetako bat izan da Aitziber

Garmendiarekin batera, *Wazemank* programako gidolaria izan da eta *Vaya Semanita* programan ere aktore lanak egin izan ditu, besteak beste.

Telebistako lan hauez gain, antzerkian, jendaurrean, ere aritu izan da eta ari da lanean Plazaola. Esaterako, *Losers* antzezlanean aritu da, eta 2020an aurkeztutako *Irabazi* proposamenarekin izango da oraingoan Eskoriatzan. Sekula ezer irabazi ez duen Felixen paperean murgilduko da urretxuarrak komedia dibertigarri honetan. Plazaolaren umore bereizgarriarekin, irabazi edo galtzeari buruzko hausnarketa izango du ardatz Zaldibar antzokian aurkeztuko duen proposamenean.

**ANTZOKIAREN  
EDUKIERA %60KOA  
IZANGO DA ETA 'COVID  
ZIURTAGIRIA' AURKEZTU  
BEHARKO DA**

"Parte-hartzea da garrantzitsuena. Esaldi hori buruan sartu zigunak gezur galanta sinestarazi nahi izan zigun. Gaur egungo gizartea kompetitiboa, krudela eta fidagaitza da. Irabaztea da helburua. Irabazi ala hil", dio Plazaolak *Irabazi* antzezlanean gainean. Hori ardatz, galtzen irakatsi diguten arren irabazten ote dakigun galdetuko dio bere buruari oholiza gainean, umore beltzez betetako saioan.

### Edukiera murriztuarekin

"Sarrera gutxi batzuk geratzen dira salgai. Duela hiru edo lau hilabete lotu genuen ikuskizun hau, Jon Plazaola kontratatzea ez da-eta erraza, lan pila du. Antzokiko edukiera mugatuta dugun arren, dataz aldatzea ezinezkoa izan zaigu. Hori horrela, domeka honetan gure artean izango da, eta Zaldibarren batzen direnek gozatu ahal izango dute ikuskizunaz", adierazi du Arantza Unzuetak, Eskoriatzako Kultura teknikariak.



Akrobatak ariketak egiten. ESKORIATZAKO UDALA

## Akrobazia tailerra egingo dute datozen bi domeketan

Urtarrilaren 23an eta 31n, kiroldegian eskainiko dituzte saioak, 17:00etatik 19:00etara bitartean

### I.B. ESKORIATZA

Akrobaziak eta zirkuko teknikak ikasteko aukera izango da Eskoriatzan, domeka honetan eta hurrengoan izango diren akrobazia tailerretan. Manuel Muñoz kiroldegian izango dira saioak, eta 17:00etatik 19:00etara bitartean izango dira bi egunetan.

Ane Etxabe arituko da saioetan gidari lanetan, eta 8 eta 12 urte bitarteko haurrentzat zuzenduta dago. Euskaraz eskainiko du akrobazia tailerra, eta, musikarekin lagunduta, ondo pasatzeko aukera izango dute gaztetxoek.

### Teknika landuz

"Lehenbizi, beroketa lanak egiten ditugu, eta, oihalekin arituko garenez, besoak luzatzen ditugu, batez ere. Behin oihaletan, politena posturak eta koreografiak lantzea izaten da, baina aurretik teknikak landu behar dira. Hori egitean, oihalean gora igoera bat, figura bat eta jaitsiera bat egiteko eskatzen diet; ikasle bakoitzak ikasi dezan igotzen, jaisten... Amaitzeko, koreografia bat prestatzeko eskatzen diet, eta saioaren amaieran berriz luzaketak egiten ditugu", dio Ane Etxabek.



HUHEZI

## Ate irekien jardunaldiak Huhezinean

Astehenean, unibertsitate graduen ate ireki jardunaldiak egin zituzten Huhezi fakultatean. Hurrengo bisitak, berriz, otsailaren 26an egingo dituzte, eta, COVID-19ak sortutako pandemia dela-eta, aurrez aurreko ate irekiek edukiera muga izango dute. Ondorioz, ikasle bakoitzeko, gehienez, hiru pertsonak jardunaldiko izango dute aukera joateko.

# Zuhaitz Egunean, arteak landatuko dituzte

Domekarako Ibarraundi museoan hitzordua eginda, 12:00etarako, Santa Marina plazako berdegunean landatuko dituzte zuhaitzak. Iaz, 21 haur jaio ziren, eta beraien familiek izango dute bitzta irudikatzen duten zuhaitzak landatzeko ardura

**Imanol Beloki Unamuno** ESKORIATZA  
Zuhaitzek gizakiak bizitzeko behar duen oxigenoa ematen dute. Xurgatu egiten dituzte kaltegarri diren karbono oxidoa eta atmosferan dauden hauts eta beste partikula asko. Izan ere, atmosfera garbitzeko lan egiten dute, baita hotza eta beroa baretzeko ere. Eta euri zaparradak egitean, zorua defendatzen dute, erosioa gutxituz. Hegaztien, txorien eta hainbat izaki bizidunen egoitza ere badira; izan ere, eguzki gogorraren aurrean gerizpea ematen dute, eta baita fruituak ere. Azken finean, bizia ematen dute. Hori horrela, Eskoriatzan Zuhaitz Eguna egingo da domekan, bizia irudikatzeko.



Iaz, Ibarraundi museo alboan egin zen zuhaitz landaketan. GOIENA

## Arteak landatuko dituzte

Normalean, aurreko urtean jaiotako haur beste landare landatzen dituzte. Iaz, horrela egin zuten, baina aurten, zazpi zuhaitz bakarrik landatuko dituzte, hitzordura batzen diren guztien artean. "Santa Maria plazako berdegunean egingo dugu landaketa. 21 haur jaio ziren iaz eta horien guraso guztiei egin diegu gonbidapena. Hala ere, haur bakoitzeko zuhaitz bat barik, zazpi landatuko ditugu -arteak-. Bertan dagoen lurra ez da hain ona, baina zuhaitz

## ARTEAK LANDATUKO DITUZTE DOMEKAN, SANTA MARINA PLAZAKO BERDEGUNEAN

mota honek indarra hartuko duelakoan gaude, eremua ere eguzkitsua baita...", adierazi du landaketa egunean gurasoak gidatzen eta laguntzen arituko den Saioa Altzuak, Ibarraundi museoko langileak.

## Landaketa Santa Marinan

2021ean jaiotako haurrak omentzeko Zuhaitz Egunerako hitzordua 12:00etan egin dute Ibarraundi museoan, eta bertatik abiatuko dira material guztia hartuta Santa Marina plazara. Iaz, gorostia izan zen landatutako landarea; Ibarraundi museo alboan eta Eduardo Gorosarri kalean landatu zuten. Landare horiek indarra hartu dute, eta bizirik daude. Aurtengo helburua ere bera izango da; hau da, landatzen dena ongi egokitzea, eta indarra hartzea.

# LEINTZ GATZAGA | 23

## "Gazteek gastronomia elkarteak erabiltzea ezinbestekoa da"

**PERIKO OROBENGOA** TOKI EDER ELKARTEKO KIDEA  
Gastronomia elkarteak 30 kidek osatzen dute gaur egun

**Imanol Beloki** LEINTZ GATZAGA

Gatzagako Toki Eder gastronomia elkarteak historia luzea du atzetik, sortu zenetik gaur arte aldaketa asko izan dituzte bertan, eta juntako Periko Orobengoa idazkariaren esanetan maiztasun gutxiagoz erabili arren, bizitza du elkarteak. Une honetan, 30 sozio inguruk osatzen dute elkarteak, eta erabiltzaileek ezinbestekoa ikusten dute elkartearen txoko bat izatea.

**Beste elkarte batzuk bezala, itxita izan duzue elkarteak, baina dagoeneko zabalik da; erabiltzen da?**

Legeak agindu duenean itxita izan dugu elkarteak, baina osasuna ondu esango nuke. 25 bazkide gaude, kuotadunak garenak, eta gero, kuota erdia ordaintzen duten *B bazkideak* izenekoak ditugu, horiek lauzpabost lagun dira. Urteen poderioz jaisten joan da bazkideetza kopurua; izan ere, gogoan dut 60 lagun inguru gineneko urtea, baina, maiztasun gutxiagorekin bada ere, erabiltzen dela esango nuke. Asteazken zehar gutxiago erabiltzen da, baina asteburuetan gehiago. Horrekin batera, gazteak ere batu dira elkartera, eta hori ezinbestekoa da.



Periko Orobengoa gatzagarra. GOIENA

## Ezinbestekoa da Gatzagan elkartearen txoko bat izatea?

Duda barik. Erretiratuen elkarteak duen izen bera du elkarte gastronomicoak. Horiek ez dute kuotarik ordaintzen, eta besteok, bazkideok, hilero 18 euro ordaintzen ditugu. Hori horrela, lagun artean edo familian elkartzeko txoko bat izatea ederra da. 60ko hamarkadan, Gatzagako apaiza, Ramon Uribetxeberria eskoriatzarra, izan zen elkartearen sortzailearen bultzatzailea; gero, 1985ean, Udalak erosi zuen, eta gaur arte.

## Erretiratuen elkartearen jarduerak guztiak etenda, eta luzerako

Toki Eder erretiratuen elkarteak ekintza bakarra egin zuen iaz, eta batzar orokorra egiteko dute, data barik

**I.B. LEINTZ GATZAGA**

Toki Eder erretiratuen elkartearen Eusebio Villar kideak etorkizun beltza ikusten dio aurtenko urteari, erretiratuen elkartearen jarduerari dagokienez. COVID-19aren aurrean tentuz ibili nahi dute, eta, egoera epidemiologikoak hobera ez badu egiten, ez diete berrekingo urtean zehar antolatzen dituzten ekintza eta jarduerak.

"Gaur-gaurkoz, hogeita hamar bazkide ditugu Toki Eder erretiratuen elkarteak, eta ez dugu

samur ikusten egoera. Ez dugu ekintzarik antolatuko denborak batez. Iaz, urteroko briska txapelketa izan zen antolatu genuen ekintza bakarra, ez genuen batzar orokorrik egin, pelikula emanaldiak, urteko bazkaria eta irteerak ere alde batera utzi genituen, eta aurten ere antzera... Martitzenean gizarte-laguntzaileekin egon nintzen, normalean, elkartearen berriak berari ematen dizkiogulako; ez dugu albisterik, eta, gauzak horrela, aurtengo batzar orokorra ere ez dugu egingo".

## Hildakoak gogoratzeko, gereziendoa

Jaiotzez gain, hildakoak gogoratzeko ere landaketa berezi bat egingo da aurten Eskoriatzan. Izan ere, hilaren 28an, Porrotx eta Marimototsen azken ikuskizuna izango da kiroldegian, eta antzezlanak dolua eta heriotza lantzea ditu helburu. Hori horrela, ikuskizunean, herriko eragile bati zuhaitz bat oparitzeko diote, eta hura landatzeko ardura

eman. Tortolis ludotekak jasoko du zuhaitza, gereziendoa bat izango dena, eta bertako erabiltzaileek familiekin batera egingo dute landatzea. Otsailaren 6an, 12:00etan, frontoiaren kanpoaldeko berdegunean landatuko dute, eta ekitaldi bat ere prestatuko da, landatzearekin batera joandakoei omenalditxoak egiteko. Horren aurretik, baina, astean

zehar zenbait ekimen jarri ditu martxan ludotekak. Batetik, otsailaren 1ean eta 2an, gereziendoa apaintzeko harriak margotuko dituzte, bi txandatan: 16:45etik 18:00etara txanda bat eta 18:00etatik 19:15era bigarren txanda. Bestetik, otsailaren 3an, Porrotx eta Marimototsen ikuskizunerako dantza eta abestia ikasiko dute, 16:45etik 18:00etara txanda bat eta 18:00etatik 19:15era bigarren txanda bat izango da.

# Adituen bidez hidrogeno berdeaz ikasteko aukera

Otsailaren 15era bitartean, Laboratoriumen dagoen 'Hidrogeno berdea. Klima aldaketaren konponbidea?' izeneko erakusketarako zientzialariek gidatutako bisitetan izena eman daiteke; pil-pilean dagoen gaia umeei gerturatzeko ipuin kontalari saioa ere antolatu dute

## Jokin Bereziartua BERGARA

Otsailaren 15era arte dago aukera azaroaren 18a ezkerko Laboratorium museoan zabalik dagoen *Hidrogeno berdea. Klima aldaketaren konponbidea?* izeneko erakusketa bisitatzeko. Asteburu honetarako, umeendako ipuin kontalari saioa antolatu dute eta zientzialariek gidatutako azken bisita gidatuak urtarrilaren 21ean eta 25ean eta otsailaren 3an eta 11n izango dira.

Klima larrialdiaren aurrean hidrogeno berdeak eskaintzen dituen aukeren berri ematea du helburu erakusketak, Laboratoriumeko arduradun Rosa Errazkinek gogoratu duenez: "Erregai fosilen agortzearen aurrean proposatzen diren alternatibak gizarteratu nahi genituen, eta hor kokatzen dugu hidrogeno berdea. Izan ere, egun, hidrogenoa lortu daiteke CO<sub>2</sub>-rik sortu barik; hau da, kutsatu barik. Hidrogenoa uretik lortzea da errazena; elektrolisi izeneko prozesuari esker hidrogenoa bakartuko genuke. Hidrogenoaren propietateak oso erabilgarriak dira hainbat alorretan: besteak beste, berotzeko energia iturri moduan, garraiolarako edota metalurgian".

## Erregai fosilen agortzea

Erregai fosilen erabilerak bi arazo nagusi ditu: beste herrialdeekiko menpekotasuna, haiek nahi duten preziora, eta erabiltzerakoan CO<sub>2</sub>-a isurtzen dutela eta horrek klima larrialdia azkartzen duela. Horregatik, energiari dagokionez independente eta ingurumenari dagokionez jasagarriak izateko aukera ematen duten ordezko energia-iturriak bilatzen ari dira, hala nola energia-berriztagarriak eta hidrogenoa.

## Bisitak, zientzialariek

Gaian sakondu nahi duten herritarrentzat zientzialariek gi-



Susana Gil zientzialaria, erakusketan; gaztelarazko bisitak gidatuko ditu. LABORATORIUM

## SORGINA TXIRULINA IPUIN KONTALARIA GONBIDATU DUTE UMEENDAKO, HILAREN 22RAKO ETA 29RAKO

datutako bisitak antolatu dituzte. Euskarazko bisitak Kimikan doktore eta UNEDeko irakasle Janire Lamarianok egiten ditu; gaztelaniarazko saioak, berriz, Susana Gil bergararrak gidatzen ditu; Kimikaren Teknologian doktorea da, eta Teknoliako teknologoa. Hain zuzen ere, Gilen espezialitateak dira teknologia kimikoa, prozesuak, hidrogenoaren ekoizpena eta CO<sub>2</sub>-aren atzematea eta erabilera. "Hidrogeno berdea da uraren eta energia berriztagarrien bitartez lortzen dugun hidrogeno mota. Nahi dugunean erabili ahalko genuke eta independetzia energetikoa emango liguke, beste herrialdeekiko menpeko gara-eta gaur egun", dio Gilek.

Gaur egun, hidrogenoaren erabilera oso mugatua da, teknologia gaur-gaurkoz ez dagoelako nahikoa garatuta. Horregatik

ikerketa sustatzea ezinbestekoa dela dio. Erakusketaren epea amaitu bitartean lau bisita gertatzen dira: urtarrilaren 21ean eta 25ean eta otsailaren 3an eta 11n; euskarazko bisitak 12:00etan izango dira eta gaztelarazkoak, 17:30ean. Erakusketa bisitatzen duenak hidrogenoak historian izan duen bilakaeraren berri ere jasoko du, Ana Madinabeitia bergararraren ilustrazioei esker. Panelez gain, besteak beste, hidrogenoa lortzeko voltmetro bat dago, eta baita egunerokoan gizakiak zenbat CO<sub>2</sub> sortzen duen kalkulatzeko duen gailu bat ere.

## Ipuin kontalaria ere bai

Bestalde, Erica Lique tek antzetzten duen Sorgina Txirulina ipuin kontalaria egongo da museoan urtarrilaren 22an eta 29an, 11:00etan. 4 eta 8 urte artekoendako izango da –gurasoak bertan egon daitezke–, eta Lique hidrogeno berdeaz arituko da, bere zeharkako txirula baliatuta. Ipuinean agertuko dira hidrogenoa duten elementuak –ura, eguzkia, zura, gas naturala eta azukrea, adibidez–, eta elementu horiekin osatuko du ipuina; ordu erdi inguru iraungo du.



Begarako erraldoiak, Palentziakoekin batera, 2021eko irailan. BERGARAKO ERRALDOI TALDEA

## Bartzelonara doaz erraldoiak dantzatzera, asteburu osorako

2022ko lehen ekintza hau elkartruke moduan planteatu dute: asmoa da kataluniarrek Pentekosteetan etortzea

## J.B. BERGARA

Begarako Erraldoi Taldeak asteburu honetan izango du 2022ko lehen ekitaldia, Bartzelonako hiriburutik gertu dagoen Castellbisbal herrira joango dira-eta gaurtik domekara. "2020ko 20. urteurreneko ekitaldien artean genuen aurreikusita irteera egitea, baina pandemiaren ondorioz bi urte berandu helduko gara", adierazi du BETeko kide Ibon Unamunok. Ume, gazte eta helduen artean 34 lagun irtengo dira gaur arratsaldean, eta domeka gauera arte ez dira Bergarara itzuliko.

## Hamabi figura eroango dituzte

Zapatuan, bazkalostean, ongie-torria egingo diete udaletxean, eta gero, kalejiran irtengo dira. Domekan ere badute asmoa erraldoiak dantzan jartzeko: "Hamabi figura eroango ditugu, Bergarako erraldoien ordezkariak ederra".

Elkartruke bat denez, asmoa da Castellbisbalgo erraldoiak Pentekosteetan Bergarara etortzea, Burrianako (Castello) erraldoiekin batera; izan ere, iaizko jaietan Burrianatik ez ziren etorri, COVID-19agatik. "Espero dugu jaietan hiru herrietako erraldoiak elkartu ahal izatea".

## GORA ETA BEHERA



GOIENA

## Irteteko "kontu handiz" ibili beharra

Ozaeta kalean aparkalekutik edo garajeetatik errepidera irteteko "kontu handiz" ibili behar dela dio herritar batek: "Edukiontziek traba egiten dute ibilgailurik ote datorren ondo ikusteko".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) edo 688 69 00 07.



# "Patriarkatuak bertakoei ez bezala eragiten digu"

**MARIA TEODOCIA JUNCAY** ZAINZA LANETARAKO SINA ELKARTEAREN SORTZAILEA Emakume migratuendako zaintza lanen eta ekintzailtzaren gaineko saioa gidatu du Jabekuntza Eskolan; hurrengo Olatz Salvador musikariak zuzenduko du, hilaren 29an

**Jokin Bereziartua** BERGARA

Jabekuntza Eskolaren *Zaintza lanak eta ekintzailtza emakume migratuentzat* izeneko bigarren saioa gidatu zuen Maria Juncayk urtarrilaren 16an. Ekuadortik migratu ostean, 1999an Bilbora iritsi zen, eta, ordutik hona, urte luzez aritu da mendekotasun egoeran dauden adineko pertsonak etxe barruan zaindu eta artatzeko lanetan. Bilboko Udalak Emakume Ekintzailearen Saria eman zion 2021eko martxoaren 5ean, SINA (Laguntza Berriko Zerbitzu Integralak) elkarte sortu izanagatik.

**Zein izan zen hilaren 16ko Jabekuntza Eskolarako saioaren helburua?**

Nire esperientzia kooperatibista eta emakume migratuok eguneroko bizi dugun errealitatean oinarritutako nire esperientzia aktibista partekatzea. Bertarautakoak oso pozik irten ziren, eta oso indartuta irten ginen.

**Zein da emakume migratuek, oro har, bizi duzun errealitatea?**

Emakume migratu eta arrazializatu guztiak sistema eta gizarte arrazista, matxista eta klasista baten mende gaude, eta hortik askotariko indarkeriak sortzen dira: politikoa, ekonomikoa, lanekoa, gizartekoa, tratatu txarrena... Horregatik ez dugu beldurrik izan behar egoe-



Maria Teodocia Juncay, agerraldi feminista baten. M.J.

ra aldatu arte altxatzeko; legeak dio atsedean hartzeko, gure zereginak antolatzeko eta zortzi lanordu egiteko eskubidea dugula. Nagusiek denbora gehiago eskatzen badute ordu presentzialetan, ordain dezatela. Lehen pertsonan bizi izan dudana adibide bat: 40 orduko kontratua sinatu arren, lan egiten duzun pertsonarekin bizi zara, eta ez da langileak sabaia edo janaria behar duelako, baizik eta astean zazpi egunez 24 orduko arreta, zaintza, behaketa eta laguntza zerbitzua eskatzen delako. Ida-

tzita dagoen hori betearazi dadin eska dezagun denon artean.

**Ze onorio nagusi ateratu zenituzten?**

Lehenik, espazioak eta laguntza eskatu behar ditugula, baliabideekin, emakume migratuak antolatu ahal izateko eta instituzioak elkarrekin lanean hasateko. Bigarrenik, emakume migratu eta arrazializatuok kontzientzia hartu behar dugula, euskarri garelako zainketen krisia arintzeko; ez bakarrik EAEn, baita Estatu osoan ere. Hirugarrenik, etxe barruko zainketa lana deuseztatu egin behar

da, migratutako gorputzen esplotazio sakonaren nitxo delako eta botere arrazistak bere botere guztia gauzatzen duen testuinguru delako. Laugarrenik, mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaindu eta artatzeko langile guztiok eskubide eta betebeharrak ditugu, paperak izan ala ez. Bosgarrenik, atzerritartasunari buruzko legea aldatu edo eguneratu egin behar da, gure gorputz migratuak esplotatzen jarraitzeko lehen mailako konplizea delako, etxeko enpleguaren erregimenean erabateko zabarkerian bizitzera behartuz; gainera, profesionalizazio sozio-sanitarioa eskatzen digute, eta esan nahi diegu ez dela gauza bera pertsona zaurgarrien bizitzak artatzea edo objektuak garbitzea. Uste dugu erregularizazio-saria eskuratzeko baldintza bakarra lan-kontratu justua eta duina dela. Seigarrenik, hitzarmen edo lege-dekretu bat sortzea eskatzen dugu, migratutako eta arrazializatuak emakumeek egiten dugun ordaindutako zainketen lana profesionalki aitortzeko. Izan ere, guztiok bezala lan egin eta kotizatu nahi dugu, eta eskubide berberak izan, hala nola lan-osasuna eta langabezia-prestazioa. Gaur egun, zaintzako langileok ez ditugu eskubide horiek guztiak.

**Zer egin daiteke egoera hobetzeko?**

Erakundeek beharrezkoak diren baliabideak jartzea ezinbestekoa izango da, eta ezkutuko errealitate hau bistaratzeko eta sozializaziorako proiektuak sortu behar dira. Gure borrokak eta erresistentziak ikusarazi behar ditugu, eremu politiko eta sozial guztietan erabateko aldaketa bultzatzeko. Patriarkatuaren ondorioak emakume migratuok

bertako emakumeek ez bezala pairatzen ditugu, migratuoi gehiago eragiten digu. Horrez gain, Gipuzkoan emakume migratu eta arrazializatuak antolatzeko eta ahalduzko erreferentziako gune bat sortu beharko litzaiteke. Antolaketa eta borroka komunitarioa behar dugu.

**Bergarako Jabekuntza Eskola moduko ekimenekiko ze iritzi duzu?**

Oso interesgarriak direla. Ekimen honi esker nago ni hemen, eta ahalduz harago prestakuntza ere eman behar zaie, eta ez bakarrik sozio-sanitarioa ateratzeko, baita lan, ekonomia eta gizarte eskubideetan eta hemengo pertsonentzat prestakuntza emateko ere, eskola bat, gu ongi tratatzen ikas dezaten.

**Antolatzen hasita zaudete, ezta?**

Bai, baina bide luzea dugu aurretik. Autoeratzeko feministaren eta arrazakeriaren aurkako borrokaren aldeko apustua egiten dugu, eta pribilegio zuriak behar den moduko sakontasunarekin aitortzea nahi dugu. Soilik orduan irtengo gara egun bizi dugun egoera lazgarritik; gure borroka eta erresistentzia onartzea besterik ez dugu eskatzen.

**Beste deirik egin nahiko zenuke?**

Bai. Gure ahizpa migratu guztiei dei egiten diegu gurekin antola daitezen. 200 emakumek osatutako kolektibo bat da zaintzako langileak batzen dituen. Honako telefono zenbaki honetara *whatsapp* mezua bidali dezakete: 630 05 47 95. Estatu osoko emakumeak gaude kolektibo horretan.

**"GURE BORROKAK IKUSARAZI BEHAR DITUGU ERABATEKO ALDAKETA BULTZATZEKO"**

**'Hitzen ahairea': izena eman daiteke urtarrilaren 23ra arte**

Jardunek eta Udalak antolatuta eta Gotzon Barandiaranen eta Rafa Ruedaren gidaritzapean, euskal kantagintza aztertzea helburu duen *Hitzen ahairea* ekimeneko saioak izango dira urtarrilaren 27an eta otsailaren 3an eta 10ean. Izena eman daiteke domekara arte, hilak 23: 943 76 36 61 zenbakian edo *jardunkultura@topagunea.com* helbidean.

**Sugoi**

ERLOJUAK,  
ARTIKULU  
ELEKTRONIKOAK,  
KALKULAGAILUAK...

Fraiskozuri plaza 8.  
943 76 59 54 BERGARA

**Kabutzia**

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6  
BERGARA  
Tel.: 943 76 56 62

Aitor Zabaleta  
Tel.: 606 58 18 10  
www.txipi.com

**TXIPI**

LEIHO ISOLATZAILEAK

Amillaga 5, behea - BERGARA

Jokin Bereziartua BERGARA

Astelehenean hasi ziren agintaldi honetako hirigintza proiektu garrantzitsuena gauzatzeko obrak, astelehena ezkeroko itxita dago eta Zubieta kalea. Zubieta eta Masterreka kaleak berriro urbanizatzeko lanen lehen faseari ekin diote, beraz, Bideberriko bidegurutetik zubirainoko tartean. Udaletik adierazi dutenez, obraren lehen egunak aurreikusitako moduan joan dira. Hori bai, aldaketa txiki batzuk iragarri dituzte, lehen egunetako egoera "gertutik" aztertu ostean.

Aldaketa horietako bat da orain arte aurreikusitako biragune bakarrak gain beste biragune bat egokitu dela –horiz margo-tutako tartearak dira–, kalearen alde bakoitzean bizilagunek zamalanetarako erabil ditzaten; postontzian utziko zaien txartela emango die Udalak auzotarrei, zamalanetarako erabiltzen ari direnean ibilgailuan jartzeko. Bestalde, hasierako asmoetako bat zen fatxadetako pitzadura eta bestelako kalteak neurtzea; hala, bizilagunek eskatuta, fatxadetaz gain, etxe barruak ere bisitatzen ari dira edozein kalteren berri jasotzeko. Herribusaren geltokietan egin diren aldaketak egokiak diren ikus-teko jarraipena egingo da, moldaketarik behar den argitzeko.

#### Zirkulaziorik eza, arraro

Bergarako ardatz hori berritze-ko eskaera historikoa dela dio-

# Makinak lanean Zubieta kalean, errepidea itxita

Astelehenean errepidea itxi ostean, eguaztenean hasi ziren makinak lanean Zubieta kalean; Udalak dio "informazio jarraitua" emango diela bizilagunei, eta obraren eraginak arintzen saiatzeko neurrietan "aldaketa txiki batzuk" iragarri ditu dagoeneko



Eguaztenean hasi ziren hondeamakinak errepidea altxatzeko lanetan. JOSE SANCHEZ

te bizilagunek, pasatu direla 40 bat urte lehen eskaerak egin zirenetik, eta pozik hartu dute, oro har, lanak "behingoz" hasi izana. "Makinak martxan hasi aurreko lehen egunetan inoizko lasaitasunik handiena izan dugure kalean, itxita egon denez sekula ezagutu ez dugun zirkulazio falta izan dugulako. Egoe-

ra oso berezia izan da. Udaleko teknikariak etxe batzuetatik ere pasatu dira eraikinen egoera zein den aztertzeko. Zarata eta bestelako eraginak jasan beharko ditugu, baina urbanistikoki XXI. menderako saltoa emango du, azkenean, gure kaleak", adierazi du Zubieta kaleko bizilagun Jose Sanchezek.

#### Bulego teknikorako aukera

Obraren tamaina aintzat hartuta, Udalaren ardura handiena obrak eragingo dituen kalteak dira. Udaleko teknikariak pazientzia eskatu dute eta gogora ekarri dute edozein arazo balezko Udaleko Hirigintza Saileko bulego teknikora deitzea besterik ez dutela egin behar: 943 77

91 38. Gainera, obra zuzentzeaz arduratzen ari den Typsa enpresa bulego bat egokitzen ari da Masterreka kaleko 16. zenbakian. Zaratari dagokionez, legezko mugetan egon dadin jarraipena egingo dute. Lanak aste barruan eta ordutegi zehaztuetan egitea aurreikusten da, baina, astebururen baten edo gauez emergentziaren batengatik lan egin beharko balitz, herriarrei jakinaraziko litzaieke. Era berean, garajeak erabiltzeko aukerarik ez denez egongo, garaje moduan erabiltzen diren lokalen ibi iraunkorraren ordainketa salbuestea aztertzen ari da Udala.

#### Hiru fase, eta 18 hilabete

Proiektu osoaren exekuzio-epaia 18 hilabetekoa da eta aurreikuspena da hiru faseetan gauzatzea; fase bakoitzak hiru hilabete iraungo du. Aurrekontu osoa 2.350.000 euro ingurukoa da, eta hiru urteko udal aurrekontua baldintzatuko du; Zubieder enpresari adjudikatu zitzaion obraren exekuzioa, eta, esandako moduan, obraren zuzendaritzaz Typsa enpresa ari da arduratzen.

## ZAMALANEI BEGIRA, AUTOZ HURBILTZEKO BIRAGUNE BI JARRIKO DIRA, AZKENEAN, BIZILAGUNENDAKO



AA

## Goi mailako sushia Osintxun

Japoniako jaki ospetsuena nola prestatzen den ikasteko aukera izan zuten joan den zapatuan Osintxuko Txuringo tabernan. Sushia prestatzen auiduten Sebastian Pincheira sukaldariaren argibideak adi jarraitu ostean, bertaratu ziren auzotarrek jaki berezia

prestatzeko eta ondoren dastatzeko aukera izan zuten, umeek barne. Antolatzaileak oso pozik geratu ziren esperientziarekin: "Luxua izan da halako sukaldari baten lana bertatik bertara ikustea; aukera baliatu beharra zegoen".

## OHARRAK

### Kukubaso: bertako zuhaitzen lehen landaketa

Bertako basoa berreskuratzeko elkarteak urtarrilaren 29rako antolatutako lehen landaketa, adin guztiendako. Miguel Altuna ikastetxe berriaren parean elkartuko dira, 10:00etan. Aldez aurretik izena eman behar da: [kukubasoelkartea@gmail.com](mailto:kukubasoelkartea@gmail.com).

### Mintzapoza ekimenerako izen-ematea

Astean ordubetez lagun artean euskaraz egiteko gonbidapena egin du Jardunek: "Mintzapoza praktikatu, euskaraz hitz egiteko dituzun mugak hausteko! Probatu dutenek ez diote utzi praktikatzeari!". Izena emateko: 943 76 36 61 edo 605 71 24 69.

### Oxirondoren gaineko bisita historiko gidatua

Ugutx Tours-en eskutik Oxirondori buruzko "historia eta hainbat bitxikeria" ezagutzeko aukera egongo da, zapatuan eta domekan, 12:00etan. Ordu eta erdiko bisitak izango dira eta prezioa hamar eurokoa da. Izena emateko: 695 75 34 30 (Ugutx).

### Ahoztar Zelaieta kazetariaren azken liburua

Angiolillo liburutegiaren eskutik, Zelaietak *Residencias SA. El negocio de los cuidados en Euskal Herria* liburua aurkeztuko du gaur, hilak 21, kartzela zaharrea (18:00).



2021-2022 denboraldian, 9 eta 17 urte bitarteko 70 igerilari inguru dabilta Agorrosinen entrenatzen. IGERI ELKARTEA

# Agorrosingo urak, igerilari gaztetxoenen harrobi

Asier Perezek eta Olatz Olañetak gidatuta, denboraldiko txapelketak prestatzen dabilta Bergarako igeriketa taldekoak. Metodologia berriarekin entrenatzen, markak garrantzitsuak diren arren, pozik aritzea eta talde giro ona azpimarratu dute

**Jone Olabarria** BERGARA

"Bergara eta inguruko ume eta gazteen artean igeriketa kirola sustatzea" da, hain zuzen, Bergarako kirol elkarteko igeriketa sailaren helburua. Lan horretan dabilta, Asier Perezek eta Olatz Olañetak gidatuta, aurten ere. 2021-2022 denboraldian Bergara, Antzuola eta Elgetako 70 igerilari ari dira Agorrosinen

entrenatu eta txapelketak prestatzen.

Mailaka aztertuta, Perezek azaldu du txikienak, benjaminak, daudela "sendoen" une honetan, kopuru polita direla eta haurrak gustura ari direla. Alebin mailan, baina, hutsune handia dutela zehaztu du, nahiz eta dioen beste elkarte batzuetan ere gauza bera gertatzen zaiela. Hala

ere, taldea "osasuntsu" ikusten duela dio: "Kristoren talde giroa sortu dutela iruditzen zait, oso gustura daude igerian, bai kirolarien aldetik eta baita guretik ere. Une honetan, talde giro hori bultzatzen jarraitu behar dugu; azken batean, nahiz eta topera eta marka bila entrenatzen aritu, lehenengo, talde giro ona egon behar da, ezinbestekoa da".



Bergararrak azaroan Agorrosinen jokatuako txapelketan. GOIENA

## Otsailaren 5ean eta 6an, Bergaran

"Gipuzkoako txapelketa hartuko dugu Agorrosinen, infantil, junior eta maila absolutuan. Momentuz, sei igerilari ditugu sailkatuta Bergaran jokatu den txapelketarako, baina Gipuzkoako taldeen kopako emaitzen arabera beste bik ere aukera dute han izateko".

### Metodologia berriarekin

Lanean "ondo" ari direla dio Perezek, eta, pazientziatz, lehenago edo geroago, emaitzak iritsiko direla argi du. Entrenatzaile berriekin, aitortu du entrenatzeko metodologia apur bat aldatu dutela eta oraindik ere moldatzeko fasean daudela hainbat igerilari.

### Gipuzkoakorako lanean

Une honetan, Gipuzkoako txapelketa prestatzen dabilta infantil, junior eta maila absolutuko igerilariak. Datorren asteburuan Tolosan lehiatuko dira, Gipuzkoako koparen barruan. Txapelketa garrantzitsua izango da; izan ere, emaitzak apurka iristen ari diren erakusle, Ane Alberdi igerilaria dagoeneko sailkatuta dago Euskadiko udako txapelketarako, eta neguko txapelketara joate-

ko aukera ere izan dezake, Gipuzkoako taldeen kopan gutxieneko marka lortuta.

### Pandemiaren eragina

COVID-19ak entrenamenduak baldintzatu arren, aitortu dute ezin direla kexatu, modu batera edo bestera entrenatzen jarraitu dutelako: "Federatuekin ez dugu arazorik izan, baina eskola kirolekoekin egun batetik bestera bertan behera lagatzen zituzten entrenamenduak, eta gero, dena berrantolatu behar genuen. Igerilekuko kaleekin ere nahiko larri ibili gara".

**"NAHIZ ETA TOPERA ENTRENATU, SORTU DUTEN TALDE GIRO ONA EGOTEA EZINBESTEKOA DA"**

## Lehen postuan da Burdinola

Aste bukaera "borobila" izan du Burdinolak, Sabadellen jokatuako hiru partiduak irabazi eta sailkapen buruan da 16 punturekin. Lobos de Iscar taldearen aurka 0-12 irabazi zuten, 7-4 gailendu ziren Metropolitanoren aurka eta 0-5 Alas de Iscarren aurka. Bost jokalarik gazteak debuta egin zuten, gainera, eta hasieratik izan zirela jaun eta jabe adierazi dute.



BURDINOLA HOCKEY TALDEA.

## Lau partidu jokatu dituzte etxean saskibalo sailekoek

Labegarrietak bi partidu hartuko ditu zapatuan: 16:00etan, Drunkat Hoops-en aurka arituko dira senior mailako emakumeak; 18:00etan, senior mailako gizonak Avia Eibarren aurka. Domeka eguerdian, Ganboa Hoops taldea hartuko dute junior mailako emakumeek Labegarrietan. Kadete mailako gizonak zapatuan lehiatuko dira, 12:00etan, Mariaren Lagundian.

## Gizonezkoen territorial mailako taldeak, Irunen

Bergarako eskubaloitako taldeko gizonezkoen lehen eta bigarren territorial mailako taldeak Irunen lehiatuko dira zapatuan. Txingudi Goibar taldearen aurka arituko dira, dagokien mailatan. Irungo Artalekun 16:30ean izango da lehen territorialaren txanda eta 18:15ean arituko dira bigarren territorial mailako jokalariek.

# Artea eta kultura nagusi, beste behin ere, Aroztegin

"Kalitate handiko" askotariko erakusketak hartuko ditu Aroztegi aretoak 2022. urtean. Herriko taldeen erakusketez gain, iaz zendutako Miguel Okinaren lanak eta artista gonbidatuak izango dira. Domekara arte, Buztinzaleen erakusketa egongo da ikusgai

**Jone Olabarria** BERGARA

2022rako Aroztegi aretoan egingo diren erakusketen egutegia osatu ostean, asteen eman du aditzera bertan ikusgai egongo diren artista eta erakusketen zerrenda Bergarako Udalak. Aroztegi aukeraketaz arduratzen den batzordeak aitortu duenez, beste urte batez, "kalitate handiko lanak" aurkeztu dituzte aurten.

Aukeraketa egiteko orduan, ibilbide artistikoa, curriculum eta aurkeztutako obraren kalitatea hartu dira kontuan. Horretaz gain, programazioa osatzerakoan arte plastikoaren arteko oreka lortu nahi izan dutela azaldu du Udalak, eta, artisten sexuari erreferatuta, aukera berdintasuna bermatu gura izan dutela.

**Okinaren eta Galartaren lanak**

Irailaren 9tik 25era bitartean, iaz zendu zen Miguel Okina artista bergararraren lanak egongo dira ikusgai Aroztegi aretoan, 2011. urtean hil zen Julio Galar-



Asteon Aroztegin ikusgai dagoen Buztinzaleen Elkartearen erakusketa. N.O.

ta artista arrasatearraren obrarekin batera.

**Klasikoak errepikatuz**

Aroztegi hartuko dituen erakusketen artean nagusi dira bergarar artisten eta herriko

arte taldeen erakusketak. Horren adibide dira, esaterako, Beart elkarte, Taila elkarte, Buztinzale elkarte, emakume zeramisten taldea eta Martxoaren 8aren bueltarako aurreikusitako Bergarako emakume artisten erakusketa.

Dagoeneko ohikoak diren hainbat lehiaketarako lanak ere hartuko ditu Aroztegi; Bergara Hiria argazki lehiaketa eta kirol argazkien lehiaketa, esaterako. Gonbidatu gisa, motorren erakusketa izango da 2022an, apirilaren 22tik maiatzaren 8ra.

**Aste honetan, buztinzaleak**

Urteroko hitzordua izan ohi den Bergarako buztinzaleen erakusketa ikusteko aukera dago domekara arte; guztira, 17 artistaren lanak biltzen ditu. Azaldu dutenez, lan guztiek ildo bera jarraitzen duten arren askotarikoak dira, eta Santi Arrietaren lanak ere batzen ditu, gonbidatu. Bergarako Buztinzaleen Elkartea sasoi oneko dagoela azaldu dute bertako kideek; guztira, 30 bazkide dira une honetan, eta, profilaz galdetuta, geroz eta gazteagoa dela diote.

## Dantzaren bidez sormena familian lantzeko tailerra

Otsailaren 29an egingo dute 'Dantzan familian' saioa, Seminarixoan, 3 eta 8 urteko umeen familientzat

**J.O. BERGARA**

Ordu eta erdiko saioa eskainiko dute urtarrilaren 29an Amaia Arantzabal biolin-joleak eta Oihane Vicente dantzariak Seminarixoan. Familian egiteko saioa dela azaldu dute, haur eta helduek jolas eta dantzaren bitartez euren arteko harremana lantzea helburu duena.

3 eta 8 urte bitarteko seme-alabak dituzten familiei zuzenduta, heldu bakarra joan ahalko da umeko eta edukiera hamabi pertsonetara egongo da mugatuta.

"Tailer moduan planteatuta dago, eta, askotariko dinamikak landuz, parte hartzea, sormena eta espresioa lantzen ditugu. Askotan, gurasoek sorpresak eramaten dituzte, haien seme-alaben gaitasun edo erreakzioekin harrituta".

Arantzabalen zuzeneko musikarekin eta Vicentek gidatuta, aurretik ere egin dituzte hainbat saio, eta arrakastatsuak izan direla zehaztu dute. Sarrerak eskuragarri egongo dira Seminarixoko leihatilan, hilaren 26an, lau eurotan.

## Pinotxo protagonista duen antzezlanaren bihar Seminarixoan

Alberto San Juanen ahots narratzaile beroak lagunduta, eta obraren soinu-banda originala erabiliz, Canti Vaganti konpainia italiar-herbeheretarrak Carlo Collodiren ipuin gordina eta komikoa berreskuratu du. Klasisikoa biziberrituz, arriskuz beteriko gizarte batean agertzen den izaki ezberdin baten istorioa kontatzen du Canti Vagantiren

lanak. Familia osoarentzat proposa, Seminarixoan egingo du geldialdia antzezlanak, bihar, 18:00etan hasita.

Umorea eta objektu-antzerkia nahasten dituen obrari esker, Pinotxok abentura fantastikoak biziko ditu. Berari beti gaizki doakion arren, beti salbatzen da, beti arriskatzen eta ausartzen da, nahiz eta askotan okertu. Sarrerak lau eurotan eskuratu daitezke Seminarixoko webgunearen bitartez, edota leihatilan bertan.

## Aroztegi aretoako erakusketak 2022an

- **Vicente Iriondo** Urtarrilak 28 - otsailak 13.
- **Ander Etxaniz** Otsailak 18 - martxoak 6.
- **M8: Bergarako emakume artisten erakusketa** Martxoak 11 - 27.
- **Sofia Hebron** Apirilak 1-17.
- **Motorren erakusketa** Apirilak 22 - maiatzak 8.
- **Aranzadi ikastola** Maiatzak 13- ekainak 6.
- **Luis Candaudap eta Julio Melendez** Ekainak 10-26.
- **Bergara Hiria lehiaketa** Uztailak 1-17.
- **Soraia** Uztailak 22 - abuztuak 7.
- **Almudena Maeso** Abuztuak 14 - irailak 4.
- **Miguel Okina eta Julio Galarta** Irailak 9 - 25.
- **Ipintza institutua** Irailak 30 - urriak 23.
- **Laboratorium ZTB** Urriak 28 - azaroak 13.
- **Kirol argazki lehiaketa** Azaroak 18 - abenduak 4.
- **Euskararen historia soziala** Abenduak 9 - 25.
- **Taila elkartearen erakusketa** Abenduak 30 - urtarrilak 8.



JOKIN BEREZIARTUA

## Victimas Club, bermuta girotzen

Txapa Irratiak antolatuta, Gasteizko Victimas Club taldeak kontzertua eskaini zuen zapatuan kartzela zaharrean. Bermutaren ordua aprobeztatuta, agertoki txikian jo zuen boskoteak, eta giro berezia sortu zuen. Ordu bete inguru iraun zuen emanaldia motz geratu zitzaizela aitortu zuten bertaratu ziren gehienek.

# **Okm:** *batzen gaituen distantzia*

---

**Egin zaitez goienakide!**

**goiena<sup>“</sup>**  
**kide**



[www.goiena.eus/kideak](http://www.goiena.eus/kideak)





Ion Aranguren zinegotzia Sarasketa baserri aurrean. M.A.

## Ura eramango diete saretik kanpo daudenei

Sarasketa, Loieta eta Altzeta baserriak ura eramateko proiektutik kanpo geratu ziren, azpiegituraren zailtasuna medio. Orain, hiru baserri horiek duten ur-eskasi arazoari irtenbidea eman nahi dio Antzuolako Udalak. 10.000 euro bideratuko dituzte

### Maidar Arregi ANTZUOLA

Hamabost urte igaro dira jada Antzuolako Udalak herriko baserrietara ura eramateko proiektua abiatu zuenetik. Zehazki, 2006an idatzi zen lehen proiektua eta 2008an hasi ziren lanak. Iaz amaitu zituzten lan horiek eta Antzuolako 40 baserri inguruk jada badute ur-edan-garria eskuratzeko azpiegitura egina.

Obra sakona bezain luzea izan da, eta urteetan inbertsio handia eskatu duena. Guztira, ia 770.000 euroko kostua izan du. Horietatik 425.000 euro inguru Gipuzkoako Diputazioak jarri ditu. "2002 inguruan hasi zen gaia lantzen, saneamendu eta ur-arazoak zirela medio. Halaxe sortu zen proiektu hau; gainera, laguntzak eskuratzeko aukera ere bazegoen. Proiektu honek, ordea, baserri gehientsuenei irtenbidea ematen zien; ez, aldiz, guztiei", kontatu du Ion Aranguren, Antzuolako Udaleko Nekazaritza eta Ingurumen zinegotziak.

Hamaika faseko proiektu sendoa dela gaineratu du Aranguren. "Azpiegitura hasten da Iturbe baserria dagoen depositutik. Ondoren, Galartza auzoraino doa, Lizarra auzoa igarota. Iaz, Irimo auzoko lanekin amaitutzat eman genuen proiektua. 2022an, proiektuetatik kanpo geratu diren hiru baserriei emango zaie irtenbidea".

### Hiru baserri irtenbidea

Baina ur-sare horretatik kanpo hiru baserri geratu dira, azpiegitura eta irtenbide konplexuagoa baitaude. Irimo-Goiena auzoko Sarasketa, Irimo-Barreneko Loieta eta Basalden dagoen Altzeta dira, hain zuzen ere. Arangurenak dio asmoa dela

### 15 URTEKO LANEN OSTEAN AMAITUTA DAGO BASERRIETARA URA ERAMATEKO PROIEKTUA

hiru baserri horiei ere irtenbidea ematea. "Ura Sarasketarako iturburura Basalden dagoen Katiako iturburutik ekarriko genuke. Aurten bertan emango genioke irtenbidea Sarasketari. Loietan eta Altzetan ere ur falta dute, baina teknikoki zailagoa da aipatutako proiektuarekin bat egitea, zeren iturburua behealdean geratzen baitaie. Hala ere, irtenbide puntuala emango diegu aurten. Baina behin betiko proiektua idatzita geratuko da, eta, garestiagoa izango den arren, ahal denean, irtenbidea emango zaie Loieta eta Altzeta baserriei".

Hiru baserri irtenbidea emateko, aurrekontuetatik 10.000 euro bideratuko dira 2022an. Era berean, Arangurenak baserriarrei izandako borondatea eta pazientzia eskertu gura izan die. "Eremu publiko nahiz pribatuetan egin behar izan dira hoditeria-lanak, eta jendearen borondateari esker egin dute aurrera lanek".



Aitortza jaso duten odol-emaileak. AINIZE SEGUROLA

## Antzuolako bost odol-emailek aitortza jaso berri dute

60 bat antzuolar joan ziren odola ematera urteko lehenengo saioan; bigarrena maiatzean egingo dute

### M.A. ANTZUOLA

Urteko lehen odol-emate saioan, 60 bat antzuolarrek eman zuten odola Torresoroan. Ainitze Segurola Antzuolako odol-emaileen elkarteko kideak herritarrek erakutsitako borondatea eskertu gura izan du. "Azken saioan, herritarrek hala eskatuta, 75era igo dugu plaza kopurua. COVID-19 dela-eta bajaren bat edo beste izan zen arren, ia 60 lagunek eman dute odola, eta oso pozik gaude". Izan ere, koronabirusa igaro eta 28 eguneko tartea pasa behar da berriro odola eman ahal izateko.

### Aitortza

Era berean, 25, 40, 50 eta 80 bider odola eman duten antzuolarrek zoriondu zituzten. Hurrenez hurren, Iker Mansok 25 aldiz eman izana txalotu zuten; Ana Jesus Egañak, 40 bider; Mikel Montorik, 50; eta Iciar Mancidorrek eta Miren Zubillagak, ordea, 80-argazkian Iciar Mancidor falta da-.

Hurrengo odol-emate saioa maiatzean egingo dute. Gogoratu odola eman nahi dutenak aurrez deitu behar dutela telefonoz txanda hartzeko, 943 00 78 84 telefono zenbakira.



ARROLA

## Bide gehiago markatuta

Urtea hasita, Arrolak mendi-bideak seinalezatzen dihardu. Kaxetatik Pagamendira joateko Ogeiturritik gorako bidegurutzetako bat markatu dute, zehazki, Arrolako mendizaleek asteburuan. Beraz, honekin, ibilbide zati honen seinalizazioa bukatutzat eman dutela adierazi dute. Argazkiak eta bideoa ikusgai [goiena.eus/komunitatea](http://goiena.eus/komunitatea) atalean daude.

# Egurrezko arrapalaren lehen zatia eginda dago

Torresoroa atzealdetik hilerrirako zein Eztalarako bidea irisgarriago egiten duen arrapalaren azpiegituraren lehen lanak eginda daude; herritarrei zabaldu aurretik, ordea, metalezko eskubanda babesgarria jartzea eta obra zibila egitea falta da

**Maider Arregi** ANTZUOLA

Antzuolako Udalak 2021ean egin zuen herriko aisialdi-guneen inguruko parte hartze prozesua. Eta orain, orduan hartutako erabakiak gauzaten ari dira. Tartean, hilerrirako bidea irisgarriago egiten duen egurrezko arrapala dago, eta amaitu berri duten gazte txokoko rokodromoa. Arrapalaren azpiegitura lanak amaituta daude. "Astebeteko atzerapena izan dute lanek, langile batek istripu txiki bat izan zuelako, baina arrapala eginda dago", dio Beñardo Kortabarrria alkateak.

Hala, 100 metroko arrapalak modu irisgarrian hilerrirako bidea eta Sagasti auzoa lotzen ditu; eta, era berean, errepidea zeharkatzea saihestu. Berehala hasiko dira jartzen metalezko eskubanda babesgarria. Behin obra zibila amaituta, arrapala erabilgarri egongo da. Hilabete barru, ordea, argiteria eta seinalizazioa jarriko dituzte.

Arrapalaren ezaugarriei dagokienez, 2 metroko zabalera dauka eta 10 metroan %8ko aldapa; 2 metroko eskailera-burua du eta 6,40 metroko altuera libratzen du azpiegiturak; bertan bizikletan edo patinetean ibiltzea debekatuta egongo da. 100.000 euroko kostua du.



Sagasti auzotik hilerriraino doan egurrezko arrapala. M.A.

## OBRA ZIBILA EGITEAN ETA METALEZKO ESKUBANDA JARTZEAN ZABALDUKO DUTE

**Bestelako proiektuak**

Errepidearen bestaldean, hilerrirako alboa, zehazki, puntrak eta tirolina parkeko lanak egiten hastekoak direla azaldu du alkateak: "Eguraldiak ez du lagundu, eta lanak orain dira haste-

koak; otsailerako amaituta egongo dira". Azaldietan jartze-ko mahaiak ere iritsi dira, baita Ibarre auzoko jolasguneako armiarma-sarea ere. "Aisialdi-guneak txukuntzeko lanak esleituta daude, eta joango gara egiten". Bestalde, Eztalarako argiteria lanak ere nola egin adostuta dute, eta ondorengo bizpahiru hilabeteetan egiteko asmoa du Udalak (95.000 euro). Jolasguneen egokitzapen lanetarako eta arrapala egiteko 240.000 euro bideratu dituzte -Goizperrek ere egin du diru ekarpena-.

## la 200.000 euro bide berdeko Jauregiko tunela konpontzeko

2019ko abenduaren 13az geroztik dago Jauregiko tunela txita; Aldundia konponketa lanekin hastear da

**Maider Arregi** ANTZUOLA

Ia 200.000 euro bideratuko ditu Gipuzkoako Aldundiko Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuak Antzuolako bide berdeko Jauregiko tunela konpondu eta inguruko lur-jausiak txukuntzeko. Antzuolako Udalarekin lortutako akordioa txalotu du Rafaela Romero diputatuak. Izan ere, herritarrek asko erabiltzen duten azpiegitura dela nabarmendu dute, eta, inbertsio horri esker, txirrindulariek nahiz oinezkoek bide hori berriro erabili ahal izango dute.

Jauregiko tunelak itxita jarraitzen du 2019ko abenduaren 13an gertatutako lur-jausi baten ondorioz. Aldundiak gaineratu du otsailaren 22ra arte dagoela alegazioak aurkezteko epea zabalik, eta, dena ondo bidean, bi hilabeteetan egiteko lanak direla.



Jauregiko tunela. M.A.

Bestetik, Aldundiak beste 115.000 euro bideratuko ditu Galardi baserria eta Deskarga arteko trenbide zaharraren bidea ere egokitzeko. Lanak Udalak egingo ditu eta 5.000 euro jarriko ditu. Goizperrek, berriz, 20.000 euro emango ditu.

## 'Abiatu' gailua aurrez aurre eskuratzeko azken aukera

*Abiatu* eskuratzeko kanpaina luzatu egin du Gipuzkoako Aldundiak. Kanpainak izandako "erantzun ona" eta gaiarekin lotuta zenbat dei jasotzen ari diren ikusita, luzatzea erabaki dute.

Hala, hilaren 26an, Antzuolako udaletxean izango dira Bidegiko langileak herritarrei informazioa eta laguntza emateko:

09:30etik 13:30era bitartean eta eta 16:00etatik 20:00etara.

Herritarrek bertan eskuratu ahaliko dute *Abiatu* gailua edo euren autoaren matrikula banku-txartel bati lotu; aurreneko aukerak deskontuetarako modua dakar; bigarrenak, ez. Gogoratu behar da jada ordainpekoa dela Beasain-Bergara autobidea.

Hilean 33,37 euroko gehienezko gastua izango du gailuak Gipuzkoako autobideetan; 49,30 eurokoa Bizkaiko AP-8an; eta Arabako AP-1ean.

## Hilaren 31n irekiko dute rokodromoa

Eguzki auzoko gazte txokoko rokodromoak lanak amaitu dituzte. Antzuolako Udalaren asmoa da hilaren 31n zabaltea. Orain, erabilera arauak eta nola kudeatu adostuko dute; dena ondo bidean, rokodromoan begirale bat egotea ere badu xede Udalak -gazte txokoa zabalik dagoenean, ezingo da erabili-. Herritar orori irekita egongo da rokodromoa.



Gazte txokoko lokalean egin berri duten rokodromoa. M.A.

**LARREA**

**TABERNA**

Kalebarren 17  
ANTZUOLA

MUJIKA  
HARATEGIA



Berezitasunak:  
Etxean hazitako  
zekorrak eta oilaskoak

Kalebarren 1  
ANTZUOLA  
Tel.: 943 76 64 34

# 157 sinadura pediatria zerbitzua eskatzeko

Martxoan ezkerro pediatria kontsulta barik daude Elgetan. Hasiera batean, behin-behineko neurria zirudien, baina hilabeteak aurrera doaz eta erabiltzaileak kezkatuta daude. Sinadura bilketa egin dute, eta eskaera zuzena egin diote Osakidetzaari

**Larraitz Zeberio Lekuona** ELGETA

Aitor Gantxegi Olasolok urtarreko lehenengo astean aurkeztu zuen 157 elgetarrek sinatutako idatzia Debagoieneko ESIko pazienteen arreta zerbitzuan. "Gure haserrea eta nekea adierazi ditugu Elgetako pediatria zerbitzua dela eta. Alde batetik, ia urtebete da pediatria kontsultarik ez dagoela herrian. Lehen, astean behin egoten zen, eguenetan, eta aldizkako errebisioetarako bakarrik. Gaur egun ez dago batere. Hasiera batean, behin-behinekoa zirudien neurriak, baina denbora aurrera joan ahala berdin jarraitzen dugu", azaldu du.

Gaiak eman du zeresana, batez ere, Elgetako gurasoen artean. "Askotan irteten den gaia da; parkean, plazan, eskola atarian... Hala, pentsatu genuen sinadura bilketa egitea. Idatzia pertsona bakar baten izenean aurkeztu beharrean, hainbat familiaren izenean aurkeztea, alegia. Herriko merkatarien laguntza izan dugu sinadura bilketa egiteko. 157 lagunek izenpetu dute idatzia", azaldu du.

**Gora eta behera haurrekin**

"Ez dakigu zehatz zergatik, baina, halako batean, eskatu ziguten Bergarako kontsultara jaisteko. Txanda eskatu, eta Bergarako osasun etxerako eman zigiten ordua, esanez Elgetan ez zela kontsultarik izango. Unean uneko kontua izango zelakoan hasi ginen horrela, horrek sortzen dizkigun kontziliazio eta familia antolakuntza arazoekin. Eta ez da hori arazo bakarra. Jaisten garenean, pediatria ezberdin bat dugu aldiro; izan ere, ia urtebete da Bergarako ambulatorioan pediatria titularretako bat ez dagoela. Txandakatzeko sistema edo zerbait dago Bergaran, Osakidetza ez diguna argitu. Hala, astero, mediku ezberdin batek artatzen gaitu, eta



Aitor Gantxegi, kontsultaren atarian. L.Z.L.

## ERANTZUN BATEN ZAIN DAUDE ELGETAN; PEDIATRIA ZERBITZUA BERRIZ EZARTZEA NAHI DUTE

horrek zerbitzua penagarria izatea eragiten du. Pediatrek ez dituzte umeak ezagutzen, eta horrek zaildu egiten du umeen gaixotasunen jarraipena egokia izatea. Kontsulta dugun aldiro hutsetik hastea bezala da. Sentsazio hori dugu; izan ere, dena azaldu behar dugu behin eta berriz".

Elgetako gurasoen artean dagoen ezinegona ez da nolana hiko. Zerbitzuak murrizten doazela ikusten dute, eta ez zaie bidezkoa iruditzen. "Ez dakigu zergatik gertatu den. Ez digu inolako azalpenik eman, eta egin dugu galdera behin baino gehiagotan".

**157 lagun, erantzun baten zain** Elgetarrek aldarrikatzen dute gainerako herrietako erabiltzaileen eskubide berak dituztela, eta merezi dutela pediatria zer-

bitzua kendu aurretik zutenera bueltatzea, gutxienez. "Osakidetzaari eskatzen diogu egoera hau lehenbailehen konpontzeko. Oraingoan, ez dugu erantzunik jaso, baina, erreklamazioa jarrita, konponbidearen zain gaude". Eskaera nagusiak bi dira: Elgetako neska-mutikoendako pediatria bat izendatzea eta, astean behin besterik ez bada ere, herrian kontsulta egiteko aukera izatea. Azalpenak nahi dituzte, eta erantzunak. "Erantzun baten zain gaude".

**Eskaera ez da berria**

Behin baino gehiagotan gertatu izan da elgetarrak kexu agertzea herrian duten pediatria zerbitzuarekin. 2011n ere sinadura bilketa egin zuten zerbitzua hobetzeko eskatzeko. Orduetik hona ere egin dira gehiago, eta gaia behin baino gehiagotan irten da herri mailan egindako parte-hartze prozesuetan.

Sinatzaileek ez dute itxaropenik galdu. Konponbide bat eskatzen dute. Elgetak duen biztanle kopurua kontuan izanik uste dute batutako sinadura kopurua nahiko garrantzitsua dela irtenbide bat bilatzeko.



Herri Eskolako neska-mutiko talde bat erakusketa bisitatzen, atzo. L.Z.L.

## Pozik daude erakusketak izandako bisitari kopuruarekin

Gaur zabalduko dugu azkenengoz; aldiz, prestaketekin hasteko lehen saioa dugu, 19:00etan, gimnasioan

**Goiena komunitatea**

Goibeko / ELGETA

Harrera oso ona izan du aurreko aste bukaeran zeramika gelan ipinitako koko-jantzien gaineko erakusketak. Hiru egunean herriko kuadrilla asko pasa dira bertatik, eta gehienek agertu dute koko-batzean parte hartzeko prestutasuna. Azken egunotan, Herri Eskolako neska-mutikoak ere pasa dira bertatik. Koko-batzearen ingurukoak ikusi eta entzun dituzte.

Lau asteko tartea dugu orain nork bere koko-jantzia osatu eta prestatzeko. Baserriz baserri

koplak abestea da asmoa, eta, trikitalaria eta pandero-jotzailea konpartsarekin batera ibiliko direnez, dantza batzuk egiteko aukera ere izango da.

**Saio irekia gaur gimnasioan**

Dantza batzuk gogora ekartzeko eta jantziekin zein beste edozein konturekin egon daitezkeen zailtasunak argitzeko saio irekia egingo dugu gaur, barikua, 19:00etan. Ordubete inguruko tartea izango dugu. Antolakuntza gaiekin lotutako hurrengo batzarra egunean egingo dugu, 18:30ean, Ozkarbin.

## GORA ETA BEHERA



## "Nireak jaso eta besteenak zapaldu"

Bi argazki bidali ditu irakurle batek. Batean poltsa bat ageri da barruan zakur kaka duela. Bestean, kaka oinetakoan. Kexu da han eta hemen ikusten diren gorotzekin. Ikusi eta zapaldu...

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) edo 688 69 00 07.



# Enduro martxa ere bai aurten Elgetan

Bueltan da Elgetako enduro martxa. Apirilaren 23rako iragarri du Piñu-koku taldeak. Intxortako Ahuntzak taldeak martxoaren 27an egitekoak dituen bi mendi lasterketak kontuan hartuta, kirol mugimendu polita izango da udaberrian Elgetan

## Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Dagoeneko zabaldu da albistea inguruko  *rider* -en artean: Elgetako Piñu-koku taldeak II. enduro martxa antolatzea erabaki du, eta Pazko asteko zapatuan egingo dute, apirilaren 23an.

Antolatzaileek aurreratu dute 2019an egindako martxaren oso antzerakoa izango dela, baina ibilbide berriarekin. "Ez da duela bi urtekoa izango. Aldatu egingo dugu, hori da asmoa. Beste pista batzuk aukeratu ditugu". Distantziari eta zailtasun mailari dagokienez, 30 bat kilometroko luzera eta 1.500 bat metroko desnibela aipatu ditu lantaldeko Etor Garatek.

Berrikuntzen artean anoa-puntuaren kokapena aipatu behar da. "Aurrekoan, Aixolan kokatu genuen, baita mekanika postua ere. Aurten, ideia da herriko plazan egotea". Horrek aukera ematen du probari ikusgarritasun handiago emateko; izan ere,  *rider* -ak bertatik bertara ikus-



Piñu-koku enduro taldeak egindako lehen martxa, 2019an. J.A. OJANGUREN

teko aukera izango dute herri-tarrek ere.

Duela bi urte antolatutako enduro martxarekin egin moduan, ez da beharrezkoa izango alde aurretik izena ematea. "Egunean bertan etorri, eta or-

duan egingo da", azaldu du Garatek. Piñu-koku taldeak 2019ko apirilean egin zuen I. enduro martxa. Proba arrakastatsua izan zen; 120 bat  *rider*  bertaratu ziren. "Aurten ere apirilean egingo dugu. Aste Santuko jai-



Intxortako Ahuntzak taldeko kideetako batzuk kartelekin. L.Z.L.

## Ahuntzen lasterketa, bide onetik

Gauzak ondo egin nahi dituzte eta horretarako ari dira lanean. "Aurreko astean hasi ginen pista batzuk garbitzen", azaldu du Eleder Lozanok. "Piñu-koku taldekoen laguntzarekin aritu ginen. Herriarrak ere laguntzeko prest ikusten ditugu. Milesker denei!"

gunak ondo etortzen dira azken detaileak josteko. Proba belarra altxatzen hasi aurretik egitea ere garrantzitsua da. Garbiketa lan gutxiago guretzat!"

## Mendi lasterketa, martxoan

Intxortako Ahuntzak taldeko kideek, berriz, martxoaren 27rako iragarri dituzte bi mendi lasterketa: Ahuntzen lasterketa 16 urtetik gorakoendako eta Antxumeen lasterketa 12-16 urte artekoendako. Pozik dira; izan ere, erantzuna ona izan da. Nagusien lasterketarako jarritako

200 dortsalak astebeteko epean banatu ziren. Gazteen lasterketarako 31 dortsal gelditzen dira. "Hemeretzi daude izena emanda. Gustatuko litzaiguke gehiago izatea", azaldu du Eleder Lozanok. *Herrikrosa.eus* atarian dago izena emateko aukera.

## 2019KO MARTXAREN ANTZERAKO EZAUGARRIAK IZANGO DITU, BAINA BESTE IBILBIDE BATEKIN

## Danborrada atzo eskolan

Pandemiak baldintzatuta, baina San Sebastian Eguneko danborrada egin zuten atzo Herri Eskolan. Gurasoen parte hartzerik gabeko ospakizuna izan zen. Eskolak webgunean ipini ditu irudiak. 3, 4 eta 5 urteko umeek jo zuten danborra LH-6ko ikasleek laguntzarekin. Gainerako ikasleek *Meet* bidez jarraitu zuten danborrada.



ELGETAKO HERRI ESKOLA

## OHARRAK

### Ozkarbi elkarteak, zuzendaritza berria

Ozkarbi elkarteak bazkideek zapatuan egin zuten urteko batzarra. Zuzendaritza berri egin dute, besteak beste. Lierni Mendizabalek hartu dio lekukoa presidente karguan Ana Gillegiri.

### Lau jaiotza eta bederatzi heriotza 2021ean

Amaitu berria den 2021ean lau jaiotza eta bederatzi heriotza erregistratu dira Elgetan. Hazkundera, beraz, negatiboa izan da bi datu horiek kontuan hartuta.

### Bazkietza eta mendi federazio txartela

Kantsatzeke mendi taldeko bazkide egiteko zein mendi federazio txartela eskatzeko aukera egongo da martitzenean. Mendi taldeko ordezkariak 19:00etatik 20:00etara zabalduko dute kultura etxeo bulegoa. Eskaera online ere egin daitekeela gogorazi dute.

### Garbigune ibiltaria eguaztenean

Mankomunitateak Salvador kalean ipiniko du garbigune ibiltaria, eguaztenean, 10:00etatik 21:00etara.

# Etxe baten sarbideak duen zailtasunaz hausnartzeko proiektua

'Oñatin bizi nahi dut. Etxerik gabe, nolako bizitza' dokumentalarekin etxebizitzaren gaineko arazoaz sentsibilizatu gura dituzte herritarrak, eta tailerrak egin etxe bila dabiltzanekin eta etxe hutsen jabeekin, irtenbideak topatzeko eragile aktibo izateko

## Oihana Elortza OÑATI

Oñatin etxebizitza baterako sarriera zaila dela plazaratzeko dokumental bat egin dute. Hainbat testigantza jaso dituzte, izan etxe bila dabilen gazte edo etorkinena, adibidez, edo izan etxe jabeena. Gai horren inguruan hausnartzeko erabili duten euskarria da ikus-entzunezkoa, sentsibilizatzeko helburua duena eta arazoari irtenbideak bilatzen hasteko abiapuntua izateko asmoa duena. 40 minutu irauten duen lana da, joan den astean eskaini zuten eta 80 bat herritar izan ziren ikusten.

## Hamabost testigantza

EH Bilduren gai sozialetako atalean ikusi zuten etxebizitzaren inguruan bazegoela arazo bat, eta, hori aztertzeke asmoz, herriko beste eragile batzuekin batera, gazteak, pentsiodunak eta Caritas, esaterako, talde bat sortu eta gaia lantzen hasi ziren. "Hamabost bat testigantza dira, profil ezberdina dutenak. Galdera sorta bat prestatu genuen bai etxe bila dabiltzanendako bai etxea alokairuan duten jabeendako, euren esperientziak eta iritziak jasotzeko. Egia da alokairuaren arazoak pisua hartzen duela dokumental honetan, baina asmoa da etxebizitza eredu ezberdinak aztertu eta zer gura den jakitea. Egun, salerosketaren eredu da nagusi. Alokairua ere ezaguna da, baina badira etxebizitza sozialak eta komunalak ere, adibidez, eredu ez hain ezagunak", dio EH Bilduko mahai sozialetako kide den eta proiektuan parte hartu duen Ander Zarketak.

Lara Martin gaztearena da dokumentalak dakarren testigantzetako bat. MUko master bat egitera etorri zen Oñatira

Martin, eta bertan, Oñatin, bizitzea erabaki zuen. "Pisuren bat alokairuan hartzea zen asmoa, baina berehala konturatu nintzen ez zela batere erraza hori. Eskaintza oso txikia zen, batetik, eta, bestetik, ez nuen herrian inor ezagutzen. Gerora konturatu naiz bertako gazteek ere zailtasunak izaten dituztela, eskaintza faltagatik eta alokairua ahoz aho jardunda lortzen dela,

jende ezagunen artean. Azkenean, neuk jarri nuen iragarkia eta horrela sartu nintzen. Jende asko ezagutzen dut harrezkero, eta errazagoa izan da horrela. Egun, pisu konpartitu batean bizi naiz, alokairuan".

Mohamed El Fadeli ere bat dator: jendea ezagutzeak erraztu egiten du egoera. "31 urte dira Espainian bizi naizela eta inoiz ez dut pisurik alokatu etxe-agen-



Dokumentalean parte hartu duten Lara Martin, Ander Zarketa eta Mohamed El Fadeli, San Lorentzon. O.E.

## 700 etxe huts Oñatin

Dokumentalean aipatzen da 700 etxe huts daudela Oñatin. Eta Udalak emandako datua hurbiltzen da horra: Eustat-ek 2016an emandako datuak eta HAPOrako egin zen diagnostikorako erabilitakoak dira, hain zuzen ere: 678 etxe huts eta 271 bigarren etxebizitza Oñatin.

Azken urteetan egindako etxebizitza kopurua eskatuta, hauek dira Udalak emandako datuak: 2006 eta 2022 artean, 757 etxebizitza egin dira auzoetan eta 117 kalean egindako eraberritzeetan. Kopurua zatituta, adibide batzuk: 60 egin dira Otadui zuhaitzian, 298 San Martinen, 290 Ugarkalden, 124 Kurtzebiden eta 85 Kalegoienan. Babes ofizialeko etxebizitzak, tasatuak eta libreak daude kopuru hauetan.

Oñatik datorren urteetan izan dezakeen populazioaren aurreikuspena kontuan hartuta, 600 bat etxebizitza jaso beharko lituzke HAPOk, nahiz eta alkatearen esanetan soziologo batek egindako ikerketa baten arabera gutxiago beharko diren. Horren aurrean, baina, erdigunean, kalean, dauden etxebizitzak eraberritu eta hutsak betetzea gurago dutela dio Elorzak.



Erdiguneko etxebizitza bat. O.E.

tzia baten bidez. Beti bitartekoekin. Logela bat alokatuta bizi izan naiz pisu batean hiru urtez, eta gero, jabeak alokatu egin zidan etxea, ezagutzen ninduelako. Oñatin, adibidez, erdiguneko pisu batean nengoan alokairuan. Kontratua bukatu aurretik saldu zuen jabeak etxea eta etxe-agentziakoak bilatu zidan egun nagoen etxea. Duela bost bat urtetik nago alokairuan hemen eta oso gustura bizi naiz, jabeekin ere pozik nago. Baina zuzenean alokatzea oso zaila da jendea ezagutzen ez dugunondako. Horrez gain, arrazakeria baino gehiago, uste dut pobrezia dela bazterketaren arrazoi nagusia, errenta baxua izatea".

## Tailerrak egitea hurrengo

Etxebizitzaren gaiaz sentsibilizazio kanpaina martxan jarrita, tailerrak egitea da orain asmoa gaiaren inguruan berba egin, hausnartu eta, ahal dela, irtenbideak bilatzeko. "Tailer horietan etxe bila ari den jendea batzen bada, arazo bera duten herritarrak elkartu eta talde moduan eratzten badira indarra egiteko moduan, subjektu po-

litiko moduan, taldeak berak funtzionatuko du aurrerantzean eta etxebizitzaren mahai sozialaren lana hor bukatuko litzateke. Berdin etxe hutsen jabeekin ere. Berez, ez dakigu zergatik dauden etxe huts asko. Jabeek zergatik ez dituzten alokatzen ez dakigu. Izan daiteke beldurragatik, alokatzeko gogorik ez izanagatik, informazio falta dutelako, berme gehiago gura dituztelako... Baina beraiek elkartu eta euren kekezk jardutea izango litzateke helburua. Gerta daiteke talde horiek dinamizatu beharra egotea ere, eta horrela balitz egingo genuke, baina espazio horiek sortzea da mahaiaren helburua. Tailerrak oso irekita egongo dira eta datozen asteetan egingo ditugu. Egunak zehaztea falta zaigu", zehaztu du Zarketak.

## Arazoa konpontzeko nahia

Udalbatza osatzen duten alderdiak ere jabe dira gai honen inguruko arazoaz. "Ikusi dugu herrian, sektore ezberdinetan, kezka bat dagoela gaiarekiko. Identifikatuta genuen hori eta

Azken belaunaldiko pila alkalinoetarako Manganese Dioxidiko Elektrolitiko ekoizpena.



berretsi egin da orain. Aztertu egingo dugu eta ahal dena egin egoera arintzeko", dio alkateak, EH Bilduko Izaro Elorzak. "HAPO, Hiri Antolamenduaren Plan Orokorra, ari gara lantzen orain, eta datozen urteetan Oñatik izan dezakeen hazkundera aurreikusi eta etxebizitza eremu bat jaso behar du plan horrek. Herria handitu barik, hutsik daudenak betetzearen aldekoak gara. Orain badago erdigunera etortzeko beste joera bat ere eta erdiguneko etxe hutsak betetzea izango litzateke onena, kanpoaldean berriak egin barik. Hori

egiteko aukerak aztertu behar dira", gaineratu du.

Hutsik dauden etxeei dagokienez, 2013ko foru araua irten zenetik, errenergia aplikatzen zaie; 2021ean, 268ri aplikatu zitzaizkien. "Eusko Jaurlaritzak onartutako Bizigune Etxebizitza Hutsen Programa ere badago eta beste kanon batzuk ere aplikatu ahal zaizkie etxe hutsei eta beste neurri batzuk hartu. Oraindik ez gara hori aplikatzen hasi". Laguntzei lotuta, berriz, alokairurako, 2015ean hasi zen Oñatiko Udala emantzipazioarako dirulaguntzak ematen gazteei, 35 urte arteko iaztik. Eskaerak gora egin dute eta joan den urtean, esaterako, 41 eskatzaileen artean banatu ziren 65.000 euro; 28 ziren emakumeak eta 19 gizonak. Gizarte zerbitzuetatik, bestalde, emakumeendako dirulaguntza berezia dago; ohiko bizikidetzaren unitateak hautsi eta, gainera, errenta eta sarrera urriak izanik familia kargak dituzten emakumeei ematen zaie dirulaguntza 2014tik.

Jeltzaleek ere onartzen dute pisua alokatzea, adibidez, zaila dela Oñatin, eta ondo ikusten

dute sentsibilizazio kanpainak egitea. Erpin asko dituen arazoa dela diote, "dela inklusioa, dela pobrezia, dela gazteen bizitza duinak eraikitze eskubidea...", eta erakunde ezberdinei dagokiela "eskubide hori gauzatzeko politika eraginkorrak" egitea. Gaineratu dute alokairurako etxebizitza publikoak eraiki ahal dituela Udalak, eta Oñatikoak ez duela aurreikusten "epe motzera Bidebarrieta, Ugarkalde edo San Martin bezalako eremuak bultzatzea hirigintza-plan orokorrean" eta, ondorioz, gazteek "euren bizi proiektu duinak garatzeko arazo gehiago izango dituztela". Jaurlaritzaren programa aplikatzea ondo ikusten dute, "dauden etxebizitzak eskuratzeko eta alokairu babestuaren bidez merkaturatzeko". Jenderik gabeko etxebizitzaren deklarazioa egiteari ere ondo deritza eta etxebizitza hutsen alokairua sustatzeko Caritasek ikusten duena aintzat hartu behar dela uste dute.

Oñatin bizi nahi dut ikus-entzunezkoa laster egongo da ikusgai sarean.

## Hilaren 28an da musika eskolako bigarren saio irekia

Jose de Azpiazu musika eskolak etorkizunean izan behar du litzuzkeen zerbitzuak, eskaintza pedagogikoa eta kudeaketa ereduaren inguruko gogoeta egiteko bigarren saio irekia hilaren 28an egingo dute, Eltzian, 18:30ean. Etorkizuneko gobernantza eredu eta espazioa dira saio horretan landuko dituzten gaiak.



Musik eskola. GOIENA

## 'COVID agiria' eskatzearen kontrako elkarretaratzea

COVID ziurtagiria-ren kontra dauden hainbat herritar batu dira Eskubideen Alde-Oñati izeneko taldean eta ziurtagiria eskatzearen kontrako elkarretaratzea deitu dute hurrengo asterako. Urtarrilaren 29an izango da, 13:00etan, Foruen plazan. Agiria erakutsi beharra "diskriminatzailea" eta "bazter-tzailea" dela deritzote.

## 11.500 pasa biztanle zituen Oñatik urtearen hasieran

Urteko lehen egunean, urtarrilaren 1ean, 11.518 lagun zeuden Oñatin erroldatuta, urtebete lehenago baino 90 gehiago. 2021. urtean, Oñatin erroldatuta zeuden 127 lagun hil ziren eta 90 ume jaioberri erroldatu. Kanpotik Oñatira bizitzera 127 lagun etorri ziren eta horiekin osatu da urte hasierako biztanle kopurua.

# Etorri, ikusi!



Hitzordua aukeratzeko:



Urgain eskuorria:



Bideoak:



Matrikulazioa: urtarrilaren 17tik 28ra



Hainbat lagun Aratuste-zapatuko dantzak entseatzeko joan den zapatuan Eltzian. J.B.

# Ari dira Aratusteetako ekitaldirako prestatzen

lazio etenaldiaren ostean, aurtengo Aratuste-zapatuan dantzak, behintzat, ez daitezela falta ari dira entseatzeko hainbat herritar Eltzian Oñatz dantza taldekoekin batera. Goizez bakarrik, baina dantzak kalean osagarri guztiekin egiteko asmoa dute

## Oihana Elortza OÑATI

Otsailaren azken asteburuan dira aurten Inauteriak, eta Oñatin ari dira prestatzen dantzarik, behintzat, falta ez dadin otsailaren 26ko Aratuste-zapatuan.

## Burbuila-taldeetan entseguak

Formatu berria izango du aurtengo ekitaldiak, osasun egoerak eskatuta. Egun osoko jaia izan barik, goizez bakarrik egingo dituzte dantzak herriko kaleetan. Izan ere, COVID-19ak ez zuen utzi 2021ean ezer egiterik, baina aurten kalera irteteko asmoz daude, baldintzatuta bada ere, eta urtarrilaren 11n hasi zituzten entseguak; ezohikoak horiek ere. "COVID-19a dela-eta jende berriarekin eta asko elkartu ezin garenez, burbuila-taldeak mantentzea erabaki dugu. Horretarako, alde aurretik eman behar izan dute izena, eta martitzeneko edo zapatuetako taldeetan sartu ditugu", dio Oñatz dantza taldeko Paula Ugartek. Burbuila-talde horiek manten-

tzeko, entsegu bakarrera eta beti aukeratutako egun horretakora ari dira joaten dantzak prestatzen parte hartzen ari diren herritarrek. Hain zuzen ere, oinarritzko datuak eta dantzak ezagutzen zituzten edo ez galdetzeaz gain, entseguak zein egunetan egin gura zituzten eta aldatzeko aukerarik izango luketen argitzeko eskatu zieten parte hartu nahi zutenei izena ematerakoan bete beharreko galdetegiak.

## Ohiko dantzak eta pertsonaiak

Bazkaririk ez dute egingo aurten, eta, goizez bakarrik irtengo diren arren, asmoa da Aratustee-tako ohiko dantza guztiak egitea, baldin eta denbora ematen badie

## 170 BAT DANTZARI IRTENGO DIRA OTSAILAREN 26AN, OÑATZEKOEZ ETA PERTSONAIEZ GAIN

guztiak ondo prestatzeko. Dantza guztiak ez ezik, ohiko osagarri guztiak ere izango ditu Aratuste-zapatuko ekitaldiak. Dantzariez gain, hartzak eta gainerako pertsonaiek ere irteko asmoa dute, eta, pandemiara egokitutako neurriekin, betiere, hainbat lagun elkartuko dituzte itzulera berezi honetan. "Entseguetara etortzeko epe barruan izena emandako dantzariak 170 inguru izan dira. Kopuru horri gehitu behar zaizkio Oñatz dantza taldeko kideak eta pertsonaiak. Azkenean, dezenteko taldea aterako da dantzan kalera. Batzuk, beldurragatik, ez dira etorri, baina jende berri asko animatu da, eta horrek zerbait esan gurako du".

Iazko etenaldiaren ostean, ilusioz ekin diete entseuei, eta badute gogoak, diotenez, herriari kolore apur bat emateko. "Egun ona pasatzeko gogoak izanez gero, denak zarete ongietorriak ekitaldia ikustera eta herria kolorez betetzera".

## Eusko Label txapelketako partidua gaur Zubikoan

Eskuzko emakume pilotari profesionalen Ados Pilota klubak antolatuta, Emakumezkoen Eusko Label binakako pilota txapelketa nagusiko partidua izango da gaur, egubakoitza, Zubikoa kiroldegiko frontoian. Lehen mailan lehiatzen ari den Zelaia-Lopez bikoteak Etxekolonea-Mujika bikotearen kontra jokatuko du eta Iturriaga-Egaña bikoteak Kortazar-Eceiza bikotearen aurka. Txapelketaren finalerdiak Iruñeko Labriten jokatuko dira, otsailaren 19an; eta finala 22an, Azkoitian, txapelketako lehen partidua jokatuko diren frontoi berean.

Partidua 19:00etan da, eta sarrera bost euro.

## Espainiako futbol taldearekin arituko da Arabaolaza

Hamabost urtez azpiko Espainiako selekzioak deituta, Madrillgo Las Rozasen egingo ditu entrenamendu saioak, datozen egunetan, Realeko harrobian jokatzen ari den Maren Arabaolaza futbolari oñatiarrak, Realak jakinarazi duenez. Urtarrilaren 24an eta 26an izango dira entrenamendu saio horiek, Las Rozasko Futbol Hirian.

## Abonamenduen aldaketa, baje arazo nagusia

Zubikoa kiroldegian orain arte baje eman duten gehienek tasen aldaketagatik, prezioaren igoeragatik, eman dutela baieztatu dute kirol arduradunek. Aurreko asteko GOIENA aldizkarian, askoren arazoia COVID ziurtagiria erakutsi beharra zela publikatu genuen, gaizki uler-tuta. Egon dira arazo horretatik baje eman duten herritarrek ere, baina gehienek, datu zehatzak oraindik ez badituzte ere, prezioen igoeragatik baje eman dutela adierazi dute Zubikoako arduradunek. Lehen gutxi edo erabiltzen ez zuten askok, adibidez, ez dute berritu. Tasen eta hobarien informazioa kiroldegian eska daiteke.

## OHARRAK

### Ermandadearen bilera

San Anton ermandadeak urteko ohiko bilera egingo du domekan, hilak 23, 12:00etan, meza nagusian, parrokan.

### Nekazarien Elkarte

Urteko ohiko batzarra egingo dute Nekazarien Elkarteak bazkideek hilaren 28an, Santa Ana antzokian. 18:30ean da lehen deialdia eta 19:00etan bigarrena.

## GORA ETA BEHERA



## Salaketa paretetako pintaketan kontra

"Oñati da Euskadin pintaketa gehien dituen herria, 60 eraikin baino gehiago daude hirigunean. Okerrena da arduradunak izena duela eta Udalak horretarako baimena ematen duela", salatu du herritar batek GOIENARA bidalitako mezuan.

## EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus  
edo 688 69 00 07.





Otsailean bi urte beteko dira Lizaur kalean dagoen AUTLAN EMD enpresak Oñatiko Tximist edo Cegasa lantegia erosi zuenetik. AUTLAN EMD

# AUTLAN EMD, Oñatin garapen eta etorkizun sendoa dituen enpresa

Otsailean bi urte beteko dira AUTLAN enpresak Oñatiko Tximist edo Cegasa lantegi entzutetsua erosi zuenetik; eskualdean 132 lanpostu zuzen edo zeharkako sortu ditu eta Euskadira bost milioi eurotik gorako fakturazio ekonomikoa ekarri ditu

Enpresak finantza-krisiak, barneko eraldaketak, antolakuntza-aldaketak eta geroz eta globalagoa eta lehiakorragoa den industria baten erronkak bizi izan ditu. Gaur egun, lantegian manganeso dioxido elektrolitiko ekoizten da –EMD, ingeleseko siglen arabera–; hori funtsezko osagaia da pila eta bateria alkalinoen ekoizpenean, eta horiek guztiok erabiltzen ditugu etxean eta lanean.

Oñatiko AUTLAN EMD lantegiak 66 urte baino gehiago eman ditu elementu hori lantzen, eta, beraz, lantegi efizientea da: eskualdean 132 lanpostu zuzen edo zeharkako sortu ditu, eta Euskadira bost milioi eurotik gorako fakturazio ekonomikoa ekarri du.

Aipatutako hori guztia lortu ahal izan da prozesu eta teknologia berritzaileak abian jartze-ari esker, eta elementu horiek AUTLAN EMD merkatuko EMD ekoizpen-lantegi efizienteena bihurtu dute.

Azpimarratu behar da Gipuzkoako enpresa Europako bigarren EMD ekoizle handiena dela, eta haren urteko salmentak hemezortzi milioi eurotik gorakoak dira.

Oñatiko AUTLAN EMD lantegiak bere segurtasun, ingurumen eta kalitatearekiko konpromisoa berresten duten ziurtagiriak dauzka, ISO 45001, ISO 14001 eta ISO 9001 ziurtagiriak baititu.

## Zero isuriaren politika

AUTLAN EMD enpresak bere gain hartzen du ingurunearekiko erantzukizuna, zero isuriaren politikarekin. Gainera, haren atmosferarako igorpenak muga legala baino %3 txikiagoak dira. Kontsumo elektrikoaren %100 berriztagarria da, eta energia termikoa Iberdrolarekin batera kudeatzen duen efizientzia handiko kogenerazio-lantegi batetik lortzen du. Horrek ekiditen du urtean 10.250 tona CO<sub>2</sub> igortzea, 3.534 autoren baliokidea.

## Otsailean, bi urte

2020ko otsailean, AUTLAN enpresak –erabilera siderurgikoko ferroaleazioak eta manganeso-mineralak lantzen dituen talde mexikarra– Oñatiko lantegia erosi zuen. Erosketa horren hasierako asmoa zen epe luzerako proiektzioa ematea Oñatiko eragiketari, hornikuntza-kateak integratuz eta merkatu berriak

aztertuz. Eragiketa indartzeko, erosketa Euskadiko tokiko bazkide baten laguntzarekin egin zen orduan, eta hark parte-hartze aktiboa du gaur egun ere enpresaren Kontseiluan.

Geroztik, enpresak lan egin du EMD fabrikatzeko jardunbide egokienak finkatzeko, Oñati zainduz eta eragiketa perfektionatzeko moduak bilatuz. Gaur egun, Oñatiko lantegiak AUTLAN EMD du izena, eta, enpresaren errentagarritasunak gora egin ahala, udalerrian lanpostu gehiago sortu ahalko dira.

## Ekintza-eremu zabala

AUTLAN EMD enpresaren merkatu nagusia bateriak ekoizteko enpresa nagusiek osatzen dute: European, Panasonic, Varta eta Energizer dira horiek. Hala ere, AUTLAN enpresarekiko integrazioari esker, ekintza-eremua zabaldu ahal izan da, eta dagoeneko hasi dira produktua AE-Betara esportatzen.

AUTLAN EMD enpresak epe luzeko ikuspegia du. Manganesoa funtsezko rola jokatzen ari da belaunaldi berriko baterien industrian eta AUTLAN prest dago iraultza horretan parte hartzeko. Elementu horrekin 60 urtetik gorako esperientzia du, eta AUTLAN enpresak bere gain har dezake sektoreko eragile garrantzitsu bihurtzeko erronka. Horri dago-kionez, Eusko Jaurlaritzak mota horretako bateriak ekoizteko fabrika erraldoi bat sortzeko ekimena du, 882 milioi eurotik gorako inbertsio publiko-privatuarekin.

Zalantzarik gabe, gizartearen tzentz aukera bikaina da mota horretako abangoardiako enpresak edukitzea, Oñatiren nortasuna jatorri-zigilu bihur baitezake horrek. Aurreko guztiak agerian uzten du AUTLAN EMD enpresaren lantaldeak Oñati udalerriri oparo bihurtzeko eta EMD industrian erreferentzia izaten jarraitzeko egin duen ahalegin guztia.

**PILA ETA BATERIA ALKALINOEN EKOIZPENERAKO FUNTSEZKO OSAGAIA EKOIZTEN DA BERTAN**

**ERRENTAGARRITASUNAK GORA EGIN AHALA, LANPOSTU GEHIAGO SORTU AHALKO DIRA UDALERRIAN**



Gaur egun, lantegian manganeso dioxido elektrolitiko ekoizten dute. AUTLAN EMD

# "Bailaran epaile gutxi ditugu; funtsezkoak dira"

**MANU DIAZ** GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOKO PRESIDENTEA

Bergararrak urtebete egin du karguan eta azken hamairu hilabete hauen erreposoa egin du GOIENAREndako; federazioak gai sozialetan duen interesa nabarmendu du

**Xabier Urtzelai** ARRASATE

2020ko abenduaren 14an irabazi zituen Manu Diazek (Bergara, 1965) Gipuzkoako Futbol Federazioako hauteskundeak. COVID-19ak goitik behera baldintzatu zuen denboraldi hura. Bigarren urtean ere pandemiari egin behar izan diote aurre, baina bestelako proiektuetan buru-belarri dabilza Federazioako kideak.

**Zer-nolako urtea izan da?**

Oso urte interesgarria izan da. Proiektu askoko urtea izan da, egitasmoak jarri ditugu martxan, eta, oraindik pandemian murgilduta gaudenez, horrek ekarri du eguneroko kudeaketa zailtzea. Baina asko ikasi dugu, eta ilusioz gaude.

**Akaso, lehenengo urtea da zailena? Dinamikak aldatu, norberaren proiektuak abiarazi...**

Baliteke. Egia da hauteskunde kanpainara begira lan hori eginda geneukala; alegia, klub guztiekin izan ginen gure lantaldea eta proiektua aurkezten. Baina ikasi behar izan dugu erakunde honen funtzionamendua zelakoa den, bestelako erakundeekin ze hartu-eman izaten den, Euskadiko edo Espainiako futbol federazioekin, Jaurlaritzarekin, Aldundiarekin... Bigarren urte honetan



Manu Dias Goiena telebistako platoon. GOIENA

iaz abian jarri genituen zenbait proiekturen emaitzak ikusten hasiko gara.

**Zeintzuk dira proiektu kuttunak?**

Gizarte gaietan ari gara indarra jartzen. Bistan da gure erakundearen zati bat lehiaketak antolatzea bideratzen dela, hori da gure lanetako bat. Baina esku artean ditugu, esaterako, futbol egokituko programa, emakumezko entrenatzaileendako egiten ari garen kursoak eta etorkinak integratzeko programa, eta horiek beste poztasun bat ematen digute.

**Duela aste gutxi egin zenuten, hain zuzen, futbol egokituko saioa Mojategin.**

Proiektu hau hasiera-hasieratik geneukan gure programan jasota. Horretarako, Josu Zubia dugu gurekin, aditua dena gai horretan. Proiektua Foru Aldundiaren eskuetan dago dagoeneko, eta Irunen eta Mojategin egin dugu saio bana. Orain, beste zazpi egingo ditugu, Gipuzkoako hainbat eskualdetan banatuta. Nik uste dut Mojategin batu ginenok hunkituta irten ginela saiotik; gazte horiek kirola egiten iku-

sita ikuspuntua aldatzen duzu gauza askotan, barruak mugitzen zaizkizu.

**Ze osasun dute Gipuzkoako futbol klubek?**

Orokorrean, esango nuke oso osasuntsu daudela. Nahiz eta pandemian egon, izugarritzko lana egin dute, eta arlo ekonomikoan, esaterako, ondo egokitu dira baldintza berrietara. Denak ez daude berdin, baina arlo horretan ez dut aparteko kezkarik. Arazo handiagoa dugu kirol instalazioekin. Askok leku falta dute. Inoiz baino federatu gehiago dugu eta futbol zelaiak saturatuta daude. Eta horrekin batera, zelai batzuei berdegune artifiziala aldatzeko unea ere iritsi zaie. Hala, hor inbertitu behar da dirua.

**Beste erronka bat izan da entrenatzaileak formatzearena.**

Ahalegin handia egin da hor. Pentsa, azken sei hilabeteetan 420 lagunek lortu dute entrenatzaile titulua. Urte normal batean ehun bat lagunek lortzen zuten hori, eta kopurua laukoiztu egin da. Garrantzitsua da harrobietan entrenatzaile onak izatea, baina baita klubetako zuzendaritza-batzordeetan ere ondo prestatutako jendea izatea. Gipuzkoan lan hori egiten duten %98k boluntario egiten dute lan hori; ehuneko handi baten jende edadetua da, eta erreleboa behar dute. Formakuntza ikastaroak antolatu, aholkularitza eskaini... Halako proiektuak ditugu esku artean, baina bai, Gipuzkoan futbola egoera onean dago.

**Pandemiak ekarri duen beste gaurerako bat izan da epaile kopuruak behera egin duela.**

Bai, halaxe da. Jendeak beste ohitura batzuk hartzen dituelako-edo, baina epaile kopuruak behera egin du, bai. Aurtengo

denboraldi hasieran jabetu ginen horretaz, eta, zorionez, epaileen batzordeak nahiko azkar erreakzionatu zuen eta ondo egin dute lan. Duela hilabete inguru hasi dira 60 epaile berri partiduak epaitzen. Gertatzen dena da oso jende gaztea dela; aldageletan izan naiz eurekin eta 15-16 urteko gazteak dira, ikasi egin behar dute oraindik. Horregatik, klubekin jarri ginen harremanetan, esateko gazte hauek zaindu egin behar ditugula, futbolaren alde oso garrantzitsua direlako. Eta klubuen partetik oso harrera ona izan dugu.

**Eta emakumezko epaileen kopurua zelan dago?**

Gipuzkoan, guztira, 14 epaile inguru ditugu emakumezkoak; kontua da geografikoki ez daudela ondo banatuta. Hau da, Donostia inguruan badira emakumezkoak epaile lanetan, baina Debagoienean eta Urolako bailaran ez dugu halakorik. Gure bailaran hutsunea dugu, baina ez emakumezkoekin bakarrik. Gizonezko epaileak ere falta zaizkigu.

**Jaurlaritzak eskola kiroleko lehiaketak eten izana salatu berri duzue.** Bai, Gipuzkoako hamazazpi kirol federazio batu gara Donostian, esateko erabaki horri ez diogula inongo zentzurik ikusten. Uste dugu afizionatu mailako kirolak neurria eman duela pandemia garaian, era guztietako erabakiak onartu ditugu. Baina honek gazteei ez die baxterik onik egiten.

**"KIROL INSTALAZIOAK DIRA ERRONKETAKO BAT, FUTBOL ZELAIK SATURATUTA DITUGU, LEKU FALTA DAGO"**

## Aretxabaletak Aloña Mendi hartuko du domekan Ibarren

**FUTBOLA** Bigarren itzulia hasiko dute asteburuan, eta oñatiarrak errebantxa gogoz joango dira hitzordura

**X.U.** ARRASATE

Aretxabaletak (29 puntu) eta Aloña Mendik (18) derbia jokatuko dute domekan (16:30, Ibarra). Joaneokan, Calzonon mutilek 1-2 irabazi zuten, eta domekan errebantxa bila joan-

go dira txantxikuak. Oso ondo dabil Aretxabaleta, laugarren postuan sailkapenean; oñatiarrei, berriz, kontrako ezertirik sartu zaie 2022 hasiera hau, jokatu dituzten bi partiduak galdu egin dituzte eta.

Etxean jokatuko duen beste ordezkaria Mondra izango da (28), bosgarren ligan, eta arrasatearrek orain arte partidurik galdu ez duen Elgoibar (35) izango dute aurrean (zapatua, 16:30) –Ikus 20. orria–.

Bergarak (21), azkenik, irabazi beharreko partidu horietako bat izango du Allerruren (16) kontra (zapatua, 16:30). Baina esatea egitea baino errazagoa da. Dena dela, lezotarrak etetik kanpora ari dira etxean baino puntu gehiago batzen.



Artxiboko argazki bat. GOIENA

**Leintz Arizmendik, etxean**

Emakumezkoen ohorezko erregerional mailan, berriz, Leintz Arizmendik (31) etxean jokatuko du. Debagoiendarrak hirugarren daude sailkapenean, eta bigarren postuan dagoen Oiarzun (34) hartuko dute domekan (17:00) Mojategin. Oilarren arteko lehia, horrenbestez. Bergara (14), berriz, taularen erdi inguruan dago, hamargarren postuan, eta seigarren dagoen Hernaniren (26) zelaian jokatuko dute zapatuan (16:00).

# Derbi "historikoa" zale barik jokatu dute

**ARETO FUTBOLA** Zapatuko Eskoriatzaren eta Mondrateren arteko partidua berezia izango da ibarreko areto futbolarendako; bailarako bi taldek lehenengoz jokatu dute elkarren kontra maila nazionalan. Baina publiko gabeko partidua izango da

## Xabier Urzelai ESKORIATZA

Eskoriatzak eta Mondratek lehenago ere jokatu izan dute elkarren kontra, baina inoiz ez maila nazionalan. Eta zapatuan (18:30), gutxi batzuk izango dira horren testigu, Manuel Muñoz kiroldegiaren ateak, pandemia tarteko, itxita egongo dira eta publikoarendako. Halaxe erabaki du klubak. Hala, Eskoriatza Kirol Elkartek Youtube bidez eskainiko du partidua, eta Goiena telebistako kamerak ere bertan izango dira, astelehenean *Harmailatik* saioan zabal landuko da eta partidua emandakoa.

Aurreratu moduan, 2018-2019 denboraldian Aretxabaleta, Mondrate eta Eskoriatza Euskadiko Txapelketan izan zirenean, elkarren arteko partidua intensitate handiz bizi izan zituzten. Esaterako, Eskoriatzaren oraindik gogoan dute Euskal Kopan Mondrate 0-3 aurreratu zenekoa, ondoren Eskoriatzak 4-3 irabazi zuen eta. Edo 2019ko Araruste-zapatuan Musakolan jokatu zuten derbia; ikuskizuna orduan kantxan baino gehiago harmailetan egon zen. Bihar ez da halakorik izango.

## Bi taldeak oso ondo dabilta


Zapatuko norgehiagokara etorrira, bi taldeak bikain dabilta ligan. Hirugarren postuan dago Eskoriatza (31) eta laugarrena da Mondrate (26). Eskoriatzarrei Gabonetako geldialdiak ez die mesederik egin, tartean positiboak ere izan dituzte eta ez dira nahi moduan entrenatu. Hala ere, azken sei partiduetatik bost irabazi egin dituzte; hain zuzen, Tolosako kontra galdu zuten partidua izan zen publiko barik jokatu zuten lehenengoa.

Mondratek, berriz, joan den astean zazpi gol egin zizkion Elorriori, eta etxetik kanpora, talde indartsuen kontra, bi partidua berdindu berri ditu.



Eskoriatzaren eta Mondrateren arteko derbia, 2018an. GOIENA

## Protagonisten esanak



**ARATZ KORTAZAR**  
ESKORIATZAKO KAPITAINA

**"Zaleek asko animatzen gaituzte, igarriko dugu"**

"Klubak erabaki zorrotza hartu du publikoari dagokionez, eta guri errespetatzea tokatzen zaigu, baina, normala den moduan, zaleen hutsunea asko igarriko dugu, gure etxeko partiduetan bultzada handia izaten dugulako. Bestalde, ondo gauden bi talde izango gara aurrez aurre, edozer gerta daiteke. Mondrate mailaz igo berri da, baina talde ona daukatela erakutsi dute. Gu ondo gaude, akaso, ez Gabon aurretik bezain ondo, baina maila onean gabilta. Dena ematera irtengo gara".



**JULEN OTXANDIANO**  
MONDRATEKO ENTRENATZAILEA

**"Partidu ofizialean ez diegu inoiz irabazi"**

"Neuk dakidala, Mondratek ez dio inoiz partidua ofizialean Eskoriatzari irabazi, eta datu hori aldatzeko asmoz joango gara. Azken batean, Mondrate klub gaztea da, eta Eskoriatzarekin gutxitan egin dugu bat ligan. Pena da publikoarena; ea itzuliko norgehiagokan, Musakolan, bi taldeetako zaleek elkarrekin gozatzerik duten partidua. Momentuz, ondo gaude, ez dugu presiorik, eta Eskoriatzari irabazita goiko postuen borrokako saltsan sar gaitzke".

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

### FUTBOLA

O. ERREGION. GIZ.

**Mondra-Elgoibar**

Zap. 16:30. Mojategi.

**Allerru-Bergara**

Zap. 16:30. Lezo.

**UDA-Aloña Mendi**

Dom. 16:30. Ibarra.

O. ERREGION. EMAK.

**Hernani-Bergara**

Zap. 16:00. Zubipe.

**Leintz Arizmendi-Oiartzun**

Dom. 17:00. Mojategi.

GOINGO MAILA

**Idiazabal-Antzuola**

Zap. 15:30. Idiazab.

**Soraluze-Mondra**

Zap. 16:30. Soraluze.

**Ikasberri-UDA**

Dom. 16:00. Azpeitia.

OHOREZKO GAZTEAK

**Aloña Mendi-Bergara**

Zap. 17:45. Azkoagain.

**Anaitasuna-Mondra**

Zapatua. 16:00. Azkoitia.

ARETO FUTBOLA

MAILA NAZIONALA

**Eskoriatza-Mondrate**

Zap. 18:30. M-Muñoz.

EUSKADIKO TXAPELKE.

**Aretxabaleta-Soloarte**

Zap. 16:00. Ibarra.

GIPUZKOAKO TXAP. GIZ.

**Gaintxu-Mondrate**

Zap. 16:00. Lezo.

GIPUZKOAKO TXAP. EMAK.

**Antiguoko-Eskoriatza**

Dom. 12:00. Donos.

ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAP. GIZ.

**Basauri-Fagor Industrial**

Zap. 12:15. Basauri.

**Mugarri Ingou-Corazonis.**

Zap. 17:00. Iturripe.

\* Baliteke bertan behera

geratzea.

EUSK. TXAP. EMAK

**Cons. Aloña-Urdaibai**

Zap. 16:00. Zubikoa.

GIPUZKOAKO TXAP.

**Txingudi-Soraluze**

Zap. 16:30. Artaleku.

SASKIBALOIA

EBA

**Leioa-MU**

Zap. 18:30. Leioa.

MAILA NAZIONALA

**Ardoi-MU**

Zap. 19:45. Zizur N.

EMAK. BIGARREN M.

**Askartza-MU**

Zap. 16:00. Leioa.

GIP. SENIOR. GIZ.

**Bergara Sor.-Eibar**

Zap. 18:00. Labegarieta.

GIP. SENIOR. EMAKUM.

**Bergara Sor.-Drunkat.**

Zap. 16:00. Labegarieta.

PILOTA

**Eusko Label Binakakoa:**

**Oñatin:** Gaur (19:00).

Madalen Etxegarai Zelaia

Lopezekin osatuko du

bikotea; Etxekolonea eta

Mujikaren kontra jokatu

dute. Lehen mailan,

Iturriagak eta Uxue Osés

Egañak Kortazarren eta

Ezeizaren kontra dute

partidua.

**Antzuolan:** Domekan.

(12:00). Rodriguezek Leire

Galeano Mondragonekin

osatuko du bikotea; Santos

eta Urriza izango dituzte

aurrean. Lehen mailan

Etxeberriak eta Iraetak

Iturzaetaren eta Azpeitiaren

kontra jokatu dute.

## PILOTA Eusko Labeleko partidua, Antzuolan eta Oñatin


Ados emakume pilotarien klub profesionalak antolatuta Eusko Label Binakako Txapelketa hasi zuten urtarrilaren 2an, eta asteburuan Oñatin eta Antzuolan egingo dituzte jaialdiak. Gaur, Oñatin (19:00) tartean izango dira Uxue Osés eta Maddalen Etxegarai. Domekan, Antzuolan (12:00) Leire Galeanok jokatu du lehen partidua.



Leire Galeano. GOIENA

## ZIKLISMOA Debagoiena zeharkatuko du Tourrak 2023an

2023ko uztailearen 2an, Frantziako Tourreko bigarren etapa Gasteizen hasiko dute, eta Donostian amaitu. Eta, tartean, munduko lasterketa entzutetsuena Debagoieneko errepideetatik pasako da -Kruzetatik sartuko dira-. Urtarrilaren 26an aurkeztuko dituzte Euskal Herriko etapak, Gasteizen egingo duten ekitaldian.



Sastre, hori jantzita, 2008an. CELSO FLORES

# "Barkamenari buruzko drama musikatua da"

**KEPA ERRASTI GORROÑO** AKTOREA

Alacanteko Josi Alvaradok idatzi eta sariak irabazi dituen 'Tarara' antzezlan eskainiko du Hika Teatroak Arkupe kultura etxean domekan, 19:00etan; sarrerak agortuta daude

**A. Aranburuzabala** ARETXABALETA

70eko hamarkadako Bilbon kokatu du Hikak istorioa, San Frantzisko auzoan. Han bizi dira Rosa (Tania Fornieles eta Jurdana Otxoa) musikaria eta Jasmin (Kepa Errasti), gaueko auzoko klub bateko abeslaria eta prostituta.

**Erreterian estreinatu zenuten aurreko asteburuan. Zer moduz?**

Sentsazio oso onak ditugu, jendeak obra gustura ikusi zuen.

**Nor eta nolakoa da Jasmin?**

San Frantziskon bizi eta gau giroan mugitzen eta lan egiten du. Eta gidoian ez dagoen berezitasun bat jarri diogu guk, euskarazko bertsioan azkoitiarez egiten dut. Nik hala imajinatu dut Jasmin: Azkoititik oso garte joan eta bere bizitza Bilboko gau giroan berregin duena. Egia esan, obrak tonu iluna du –gai asko jorratzen dira– eta Jasmin da kolorea, argitasuna eta bizitasuna ematen diona. Protagonistak bizi duen drama hori, eskutik eramanda, igarotzen laguntzen diona.

**Gozoki bat oparitu dizu, hortaz, Agurtzane Intxaurren zuzendariak?**

Oso eskertuta nago, oso polita da eta pertsonaia. Egoera oso ezberdinetatik pasatzen da eta gainontzeko aktore guztiekien eszena oso politak ditut. Publi-



Kepa Errasti, Hika Teatroaren *Tarara* ikuskizunaren une batean. DANI BLANCO

koarentzako oso esker oneko eszenak direla esango nuke.

**Josi Alvaradok idatzitakoa da eta SGAEk bultzatutako Ana Diosdado antzerki saria irabazi du.**

Hala da; Agurtzane obra irakurri zuenean asko gustatu zitzaion eta Hikaren aurreko lanekin antzekotasunak ikusi zizkion; nik parte hartu nuen *Txarriboda*-rekin, esaterako. Alvaradorengana jo eta lanketa baten ostean Hikak aretoetara eramatea adostu zuten. Obra originala Alacanten kokatuta dago, eta, konpainia euskalduna

izanik, istorioa Bilbora ekartzea erabaki zuen zuzendariak.

**Zein da kontakizuna?**

Istorioren bizkarrezurra Rosa Teresa da, goi mailako biolin-jolea. Eta istorioan kontatutako dena da Rosak helduarotik nola kontatzen duen txikitik gertatu zitzaion pasarte bat. Rosaren ama egoitza batean dago eta hura bisitatzea joango da, ahaztuta dituen iraganeko pasarte horiek birgogoratzeko asmoz. Jasmin da iraganeko pertsonaietako bat. Obra bidaia bat izango da, iragan hori puzzle moduan osatuz.

**Horrek esan gura du denboran aurrera eta atzera egiten duela istorioak, ezta?**

Bai, eta hori ere erakargarria du, nire ustez, obrak. Haria jarraitzeko ikusleari aktibo egotea eskatzen dio, eta hori oso interesgarria iruditzen zait.

**Barkamenari buruzko istorioa dela diozue.**

Hala da; barkamena, zentzu eta erpin askotan. Iraganeko istorioak barkatzeko gai garen hausnartzera bultzatzen du. Askotariko gaiak jorratzen dira, baina, antzezlanaren izenak adierazten duen moduan, pertsonaia guztiak gizartean baztertuak daude.

**Istorio gogorra da; beraz, barre gutxi egingo dugu, ezta?**

Eszena oso gogorrak daude, baina, era berean, drama hori guztiori musika-uneetan goxatu edo leundu egiten da, eta gauza asko ikusten direla uste dut; gordintasuna ikusten da, baina maitasuna ere bai, maitasunaren zentzurik zabalenean. Oinarrian, obra gordina da, baina erraz digeritzen den gordintasuna duela esango nuke.

**Rosa Teresaz eta Jasminez gain, zeintzuk dira beste pertsonaiak?**

Rosa pertsonaia bi pertsonaren artean egiten dute; hau da, batetik, Rosa pertsona dago, eta, bestetik, Jurdana Otxoa biolin-jole profesionalaren eskutik, Rosaren musikari aldea dugu. Rosaren ama Telma (Eneritz Artetxe) ere badago; Lizst konpositoreren figura ere agertzen da tarteka, eta aitzakia horrekin piano-jolea dugu agertokian, Adrian Garcia de los Ojos izaten da gurekin batzuetan eta Iñar Sastre beste batzuetan. Eta bada beste pertsonaia bat ere, Cristobal (Jose Cruz Gurrutxaga) da hori. Rosaren begietatik kontatzen da istorioa.

**Bi bertsio egin dituzue: euskaraz eta gazteleraz.**

Bai; Erreterian estreinatu genuen euskarazkoa eskainiko dugu Aretxabaletan, eta gazteleraz, oraingoz, Alacanten eta Valentzian ditugu lotuta. Gaztelerazkoan, Sandra Ferrus da Rosa; eta Itziar Ituño da Telma. **Musikak pisua du, baina ez da antzerki musikal bat.**

Momentu musikal asko ditu; piano-jolea eta biolin-jolea taularen gainean daude, eta nik ere, tarteka, abestu egiten dut. Dautan berezitasuna da –eta niri antzerkian asko gustatzen zaidana– soinu-espazio guztia, hau da, ikuskizunean entzuten den guztia, zuzenean sortzen dela, eta horrek asko jantzen du.

**Zer diozu eszenografiar?**

Eszenografia oso sotila da; tarima bat da, eta tarima horretan espazio asko irudikatzen dira, eta, jantziei dagokienez, nik, esaterako, aldaketa asko ditut. Ikerne Gimenez da arlo horietako arduraduna.

**Aretxabaletan eskaintzeko gogoz?**

Bai; oso gustuko dut nire herrian antzeztea, eta esango nuke ez nautela sekula halako tonu dramatikoan ikusi. Martxoaren 20an Arrasaten izango gara.

**Irati (Paul Urkijo) filma estreinatuko da aurten. Zer moduz ibili zara?**

Errespetuz hartu nuen lana, erronka zen-eta niretzako, baina giro oso ona izan da gure artean eta egokitu zaidan pertsonaia oso berezia eta polita da. Esperientzia aberasgarria izan da.

**"OBRA GORDINA DA, BAINA ERRAZ DIGERITZEN DEN GORDINTASUNA DUELA ESANGO NUKE"**

## MARISA BARRENA

MAISTRA

**GOIENA TELEBISTA, 'ELKARRIZKETTAP'**

URTARRILAREN 26AN, EGUAZTENEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN

IDOIA TORREGARAIAK EGINDAKO ELKARRIZKETA



DESKARGATU  
GOIENA  
APP BERRIA!

**goiena**  
Zu hemen zaude.







## IRAGARKI SAILKATUAK

## 1. ETXEBIZITZAK

## 103. ERRENTAN EMAN

**Oñati.** Etxebizitza ematen da errentan Olakua auzunean. Hiru logela, egongela, bainugela eta sukaldaria. Eraberritua. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 615 00 46 92

## 2. GARAJEAK

## 203. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Garaje itxia, 19,50 metro koadrokoa, ematen da errentan Zarugalde kalean. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 639 15 69 04

